

ELIZAREN OIÑA-RRIZKO LEGE-GAIA

Arrotz gertatzen dira burrukan dabiltzen euskaldun askorentzat Eliza eta Elizaren arazoak. Ajola gutxi zaie askori Erroma aldean maniatu den Lege-gai onetaz. Nonbait beste zeregin batzuk aztoratzen gaituzte.

Dena dela, Lege berri bat, Elizaren gainontzeko lege guzientzat oiñari izango den lege berri bat, eratzin jardun da oinarriko izendatutako batzorde bat, bost urte aurretan.

Kristau erriak onartzea nahi luke ainbeste buruaustez moldatutako Lege-gaia. Obeto esanda Lege bihurtzea nahi lukete kristau erria jabetzerako. Orregatik ez diote ezeren berri eman. Eta orregatik gotzaiari ere aztertzeko betarik gabe erakutsi zaie.

Baia gaur ez da erraz isilik gordetzea. Eizaren zati dagoen katuaren antzera zai daude albitariak ere berriak jakitako eta zabaltzeko. Atzeman dute zuloaren batean Lege-gai eta.

Eta sortu da eztabaida. Inolaz ere sortzerik nahi etzan eztabaida. Aita Santuak irakurri ondoren munduko gotzaiak, pentsatzeko betarik gabe, txaloka onartzea nahi zen legea kolokan jarri da.

Kristau erriak ez du onartu guzientzat den lege bat isilik-misilka egitea. Ez du onartu aztertzeko eta eztabaidatzeko astirik gabe lege bihurtu nahi izatea. Min artu du ostera umetzat arztearekin.

Kristau erriaren iritzi eta erabakirik gabe jarri nahi izan dute kristau erriak bete behar duen legea. Baiezkoa kendu nahi izan zaie gotzaiari beren eliz-barrutietako apaiz eta kristaierri, ikas-tzetxeetako teologo eta lege-gizoneri galdetzeko betarik gabe.

Jakintsuek dituzten konfilzioen sortu zen asmo az konfilzioaren azal eta mamiaren aurka burutu da. Estatu baten antzeko elkarte indartsua bezala azaltzen da berriro Eliza. Bi zatitan banatzen du Eliza, lehen bezalaxe: elizgizonak eta eliztarak. Jainkoaren Erria «societas perfectaren» itzalean gaitzen da ostera.

Ez dio eskerrik ematen gaur Eliza Espirituak ari duen lanari. Ez du aitortzen behar bezala Espirituaren eragina. Lorrean ipini nahi luke bizi-ndar orbi giza.

Ez dirudi Elizaren oiñari-oiñarriko lege nagusia Ebanjelioa danik. Lotzen duen lege otz eta nagiz baten bila jardun dirudi. Ez dirudi Eliza bizi, arnas, eragile, espiritu izan behar duenik.

Ez dute ikusi nonbait, lege-gai oi eratzin jardun direnak, Eliza agintek eta legeak sinestunen elkartearen serbitzuan egon behar dituela. Kristau erriak ez duela agintea eta auzo legeak serbitzeko bizi behar. Kristau erriak munduaren serbitzu leial eta apalean bizi behar duela.

Eta agintea eta legeak, eginkizun ori betetzen laguntzen dion neurrian bakarrik behar dituela.

BAZTANDARREN BILTZARRA ELIZONDON

Urtero bezela, Abuztuaren lehen egunean, Elizondo nafar herrian Baztandarren Biltzarra ospatu zen. Honen berri niri baino hobeki emango dizue bertako idazle dan Izeta Jauna langile azkarrak.

Hala eta guztiz ere, egun horretan bertan gertatu ginenez geroz, zerbaite esan beharrezko bada goela derizkiot. Izan ere hain jaialdi bikain eta alai izan bere egitekota bete dezan zerbaite falta zaila esango genduke.

Milaka eta milaka pertsona, era guztitakoak, bertako eta kanpo-koak, euskaldun eta arrotzak, bildu ziren Elizondon. Dantzari talde ugariak, txistulariek bere eginitza ongi baino hobeki bete zuten. Bertan agertu ziren gurgil edo karrozak ere bazuten esan nahirik guzientzat. Eguerdian bertiz, berebiziko bazkaria antolatu zuten... Honetan, benetan txalotu beharrezkoa dugu baztandar gazteria.

Baina ez omen da akatsik gabeko egintzarik eta, nik ere, salatzaile antzo, bertan gertatu ozenki salatua eta denuntziatu nahi nuke: ARREN EUSKALDUNOK, BAZTANDARROK, ASKI DA...

Goizeko jardunaren ondorenean herriko seme eta agintari bazkaria bildu ziren pelota lekuean albaan dagoen itzalpean. Mutilak, neska eta mutilak esan nahi dut, oso ondo eta trebe serbitzu zuten bazkaria. Gero, mikrofonoa han zegoenez geroz bertan jaialdi gisan edo sortzikote batek bere abesti saloari ekin zion. Txalotak izan ziren.

Geroxeago, eta Iñaki Beobide aurkezle zelarik, han igo zitzein jaun bat (bere izenik eta deiturarik ez dut ezagutzen), eta izkirimu batzuk kontatu zizkigun, eta oso egoki kontatu ere. Baina geroxeago, euskeraz ulertzen ez zutenentzat ipui bear berak kontatu zizkigun ERDERA LOTSAGARRIAN...

Ez, ezin genezake horrelakorik ontzat eman... Ezin genezake, inolaz ere, han jalkitako txalorik onartu. ARREN, EUSKALDUNOK, NOIZ ESNATUKO OTE GERA?

Orain dela urte batzuk, Donostiako Seminarioan, horrelako jardunak zirela bide, entzun zituan bereak eta bi. Eta orain gure lotsagarrikeria aurrez-aurre dakusagu. Euskaldunok arlo, kaitu eta ezjakin bagina bezelaxe... Noiz arte?

Nazkagarria benetan jaun honen jarduna, nazkagarria han geundun guztion, jokabidea. Batzuke txalotu zuten erdera saio zitala, besteak isildu ziren, eta besteek ez genduen jardun hori galazteko... izan.

Guztiok gaituzte pekatarik... Baina arren, Euskal Herriko euskal edo erdal festa guztietan ez dezala horrelako inork partetik har... Nahikoa da... Gehiegi...

Humore merke hori lehenbailahehen jaurti behar dugu gungandik. Gure kontura faren egiten dutelarik, txalotzen ditugu gainera... Elizondoko Baztandarren Biltzarrek ez du irabazi handirik jasoko horrelako inbilerak direla bide.

Gainontzean, egun honetaz, zer esan? Antolatzaileen helburua egun googoangari eta alaitusa gertatzea baldin bada, ongi lotu zutela esan behar... Baina, horrelago jaialdiak ez dire Euskal Herriari on handirik ematen. Eta gozen, nere iritzi, euskal festa gori jatorrik... Erdaldun gehiegi, kontzientziarik gabeko euskaldun, turista, ikusle eta salatzaile...

Euskal jaialdiak antolatzeak ematen du naiho buruustez, batek bai noz gehiagok loa gaitzen du horrelakoetan... Bere ondorenak ondu neurtea merezi duela esango nuke.

Agur bada baztandarrok. Akatsak direla eta etzaltzela desanima. Aurrrerantzerako zuzentzea baino ez genduke nahi ta.

Mikel Ugaldé

ERRAZTU BEHARRA

Gaurko honetan Matematika-arazo ezagun batzuez mintzatuko naizazue aurrenik, eta segidan bidetako iruditzen zaizkidan ondorioak aterako ditut. Matematikazko problemetan eta soluzio-bideetan gertatzen dena txit lagungarri izan da kigulealakoan.

Har dezagun oso adibide ezagun bat. Irakurleak dakikene bezala, bariabile edo aldaki bakar bateko ekuazio aljebriko bat lehenengo mailakoa izan daiteke (ax + b = 0), bigarren mailakoa (ax² + bx + c = 0); hirugarren mailakoa, laugarren mailakoa, eta abar; eta n-garren mailakoa izan daiteke, hitz batez.

Lehenengo mailako ekuazioaren soluzioa, haurrek bere ikasia dutenez, ezin errazagoa da: x = -b/a. Aski da zatiketa bat egitea.

Bigarren mailako garbitzeko, berriaz, edozein ikasle gaztek dakitene, erro laukiak egiten jakin behar da, kontutan hartu behar da erro laukiaren izana ala ez izana, bi soluzio izan daitezkeala hartu behar da gero gogotan (edo bakar bat bikoitza, edo bi alegiazkoz), eta abar. Hitz batez; bigarren mailako ekuazioak ba du bere «kokxa», eta batxilertoko ikasleek dakite ongienik.

Hirugarren eta laugarren mailako ekuazioetan badago oraindik ere soluzio-bide bat, oso korapilotsua: Cardano-Vietta-rena oroitza. Koordenada-aldakuntza bat eginez, hirugarren (edo laugarren, jakina) mailako erroak burutz, eta abar, dagozkien hiru (edo lau) soluzioak aurki daitezke. Ez da hau erraza izaten, beraz. Batxilertoko ikasleek ez dute maila hauetako problema hau askatzen jakin ohi.

Bosgarren mailatik gorako ekuazioak ez dute soluzio orokorrik izaten: EZ DAGO FORMULARIK. Iterazioz edo hurbilketaz askatu behar dira soluzioak, banan-banan, oluzio orosik eta baterakorik ez dute. Eukazioaren maila gora ala, hortaz, problema zailago bihurtzen da; eta bosgarren mailatik gorakoetan, kitto: ez dago formula orokorrik.

Beste adibide bat: ekuazio diferentzialena. Funtzioak aldaki edo bariabile bakar bat baldin badu, eta deribadak lehenengo mailako baldin badira soluzioa aurki daiteke, eta ez oso nekez. Baina deribadak bigarren, hirugarren edo abar, mailakoak izan ala, soluzioaren bilaketa zaildu egiten da. Fenomeno bera gertatzen da funtzioak bi aldaki duenean: deribada partzialetako ekuazioak agertzen dira, askoz ere zailagoak, baita lehenengo mailakoak berak ere. Bigarren mailakoak, noski, askoz ere zailagoak. Eta abar. Problema-mota honetan ere, beraz, bai aldakien kopuruk, bai deribaden maila, zaildu egiten dute problema. Eta maila batetaz gero, ezinezko bihurtzen.

Hirugarren adibide bat, geometriatik hartua. Konpasa eta erregelearen bidez ezin daiteke aska BIGARREN mailako problemak baino zailgorik: alegia, analisi-problema bihurturik, bigarren mailakoak direnak ez besterik. Anguru baten hiruketa edo trisezioa, esate baterako, hirugarren mailakoa da; eta ezin daiteke konpasa eta erregele soilekin aska. Askoz ere ezinago, jakina, n-garren mailako problema.

Laugarren adibide bat: Newton-en mekanikari dagokiona. Bi masaren kanpoa eta hiergar matematikariko aztertea erraza da. Baina hiru masaren problema askoz ere zailagoa. Eta «n» masaren problema ezin-askatuzkoa da.

Beste adibide bat oraindik: bosgarrena. Bi dimentsiotako espazio bati, planoan dagoiko (euklidetarra izanez gero), edo superfizietan bat eskuarkiago: esfera, elipsoide, edo abar. Oraindik ere espazio-mota hori «pentsatu» egin daiteke. Hiru dimentsiotako espazio bat berriz zailagoa da: euklidetarra baldin bada, uesteko espazio normala da, zerura begira eta ikusi uste duguna. Baina euklidetarra ez bada (eta Kosmoaren espazioa ez da euklidetarra, Einstein-er gerotzik dakigunez) ezin dezakegu «pentsatu» zertu den; ez dakigu gure Kosmoa nola izan daitekean («makur» ala «kurbatua»). Esfera bat (bi koordena datako superfizietan) nola den «makurtua» ulertzen dugu; baina gure Kosmoaren «makurtua» hori zertan datzan ez dakigu, au, bost, sei, dimentsiotako espazio

ziaoak guztiz abstraktoak dira, eta «pentsatu» ezinak.

Zailtasun-aldapa bera ikus daiteke tentsoreen ilaran: eskalarak (zero mailako tentsoreak, beraz) egunerok erabiltzen ditugun kantidadeak dira: peseta, metro, eta abar. Bektoreak (lehenengo mailako tentsoreak) zailago dira, baina halere «pentsatzeko» modukoak: habaila, azelerazioa, eta abar. Bigarren mailako matematika-izakiak, jatorrizko tentsoreak alegia, askoz zailagoak: abisa bat atera nahi duenak ba daki... abisa «oker-aldera» askatzen duenean...

Hitz batez: Matematiketan argi-eta-garbi ikusten dugunez, gizonak ez daki askatzen aldaki eta maila txikitako problemak baizik. Aldaki asko eta maila gorako diren problemak itzuri egiten zaizkio gure adimenari.

Matematikariak, beraz, problema zail bati soluzio bat aurkitu nahi dionean, erraztu egiten du egiazko problema; eta horrela, PUNTU BEREZ BATEAN bigarren garrantziko diren aldakiak baztertz, lehenengo hurbilketako soluzio bat aurkitzen du. Matematikariak, ordea, ongi daki NOIZ erraztu duen problema bat; eta NOLA aurkitu duen soluzioak ez duen balore-ilara guzian lizean baldin. Puntu honen inguruan balio duen errazi-deak, puntu hartan guztiz desegokiak baita; eta alderantziz. Habe moztetan aisa bazter daitezke dinamika-karkulei buruz flesiozko makurduak; lizeatan aldir, flesiozkoak dira nagusi. Bigarretan flesiozko nagusi delako, lehenengoetan ere flesiozko, eta ebakidurazko distorsiozko baztertzen dituenak, ez du ezer onki aterako. Eta alderantziz.

Giza-izpitu, halere, eta hau estrukturalistek dakite inork baino hobeki, munduaren taxuketan edo pentsa-bidea OPOSIZIOTAN, elkarrekin ukaeratan, ikusteko joera sakona du. Oposizioetan azaltzen zaizkigunak, benetan sortzen dute gudan ategin handia: zuri / beltz, on / gaizto, hasi / bukatu, berri / zahar, bai / ez. Ederki! Gauzak «garbi» daude. Konturatu ere gabe gizonak oro, eta ez matematikariak bakarrik, konpasarekin eta erregelearekin askatu nahi dituzte problemak eta korapilokoak.

Hots, erratasun-helburu hau, Matematikaren argitan azaltzen salatuta garenaz, ezina da. Hurbilketa bakoitzean iruzur bana egiten diogu Egari. Puntu xehe eta zehatz baten inguruan ondorio larriak ez duen iruzurra, jakina; baina funtsean, problemaren osotasunari begiratu, eta estrapolazioaren muturretan, iruzur larri bat.

Matematikarion baranoan hori gertatzen delarik, nola ez pentsa, nola ez suma bederen, gizartearen fenomeno zailagoetan gaizta bera, eta iruzur asko ere itsutsuagorik, egiten ez duguniki?

Gizartearen problemak ez dira aljebrikoak, aldaki asko dute; gehienak, bestalde, nolatasunezkoak dira, eta zenbatasunezkoak. Aldaki horiek, beraz, ez dira ez gutxi eta ez lehenengo mailan idatzirik! Giza-kondaira eta gizartearen kaka, horretara, oposizio eroso eta bir-kunetara, eta —hitz batez— erregeleaz eta konpasaz gizadiaren patua «garbitu» uste duten teorik, iruzur egiten diote Egari.

Emaz dezakete, agian, aztarna edo hurbilketa onik A edo B puntuen inguruan; alegia, gizarte-puntu eta kinka berezi batetan. Baina D edo G puntuen inguruan BESTE ingurubide desberdin bat egin behar litzake: lehenik hautatutako termino horietek orain baztertz, eta guztiz alderantziz lehenago baztertuak berak hautatz. Hau ongi dakite matematikariek. Baina zenbait soziologiarik ez bide du ikusi nahi.

A edo B gizarte-egoeran nagusi ziren terminoak edo indarrak. D eta G egoeratan bigarren mailakoak dira; eta alderantziz. D edo G-ren inguruan gailen zirenak. A edo B-ren inguruan mespretxagarri.

Gizartearen problema algebra-ekuazio batena baino aisa zailagoa da. Errazketak ongi izan daitezke puntu berezitan erabiltzeko. Baina osotasunari buruz gagoziolarik, soluzio bikoitza, erregele eta konpasazkoen kideak, nahiz gure izpirtuarentzako oso kiliagarri eta baka-iturri izan, sasi-soluzio nabarmenak dira.

Larresoro

“PART TIME FARMING” EUSKAL ERRIAN

Z. A. gaz gaude uda, baserrian igarotzeko eskatu dudalako eta bide batez behartsu diren baserriarrei laguntza polita emateko agindu dudalako. Laguntza horrek, orain zaarrateko zuloetan dauden, sarnak kentzeko, belardiak moztu eta sioietera eroteko, ukulak garbitzeko, bestetarikoko etxeko gelak zaintzeko, artoak joratzeko, belar txarrak erretzeko, etab. Honetarik oinarriak behar beharrezkoak dira eta bestetarikoko, burgeskeri utsa bihurtzen diralako, alferrikoko. Bestetarikoko, oporketa kirastuak, egurtsu kirastu baten azpian igarotzen dira.

Eguneko egunean askoren, oporetak ez dira bidezkoak. Automobilaren barnean sartu eta ihes diozate. Nora? Ziur, beratik ez dakit. Gehienbat itzaseriztzen galdetzen dira narrauk kikkaldu arte. Honetarik oporketak edozein lurraldetan ikusi ditzakegu, txorixarrez. Aberastosen edo erdi mailako aberastosen gizartean egiten dira honetarik oporketak, txiroen artean ez, txiroak horretarako, eskubide-rik ez dute iritzi. Txiroen artean nekazari asko sartzen dugu. PART TIME FARMING EUSKAL ERRIAN

Balaunaldiz belau, gure Euskal Errian «part time farming» erabili izan dugu eta erabiliko da etorkizunean bizi nahi badugu. Sartaldeko Euskal Errian «part time farming» izan da nagusien. Baliteke, sartaldeko Euskal Errian, Nafarroan, «farming» osoa bere erabiltzea, ogi-bide bakarra bezala, baina Bizkaian eta Gipuzkoan ez orraitio.

Eta zer da «part time farming»? Itz honen azpian esatera asko biltzen da. Eskualde batzuetan esan nahi batzuk eta beste eskualde askotan beste batzuk, baina gutxi gorabehera, esan nahi bat dute. Era askotako lanak egitea familiari eusteko, familia aurrera eroteko. Baserriko lanak aldi batzuetan eta beste batzuetan lantegietakoarenean edo etxegintzan egindakoak. Era bietakoak edo behar bada era askotako lanak egitea eta horren artean, nekazaritzaren lanak ogi-bide bezala.

Nekazaritzaren lanak alorrean edo jaube bezela. Lan honek, etxeko nagusiak egindakoak, senarrak edo nagusiak eta familia guztiaren laguntzagaz, emazte eta zemeen laguntzagaz. Zenbat orduko

lanak egin behar dira nekazaritzan «part time farming» deitzeko ogi-bide horri. Era bateko iritziak ez da bildu oraindik. Gure Euskal Errian nolako zeindupena ezarri beharko zaio era horretara egiten dan lanari? «Nekazaritza aldizka aldizka»

Holandan eta Belgikan, iru eratako «part time farming» ikus dezakegu:

- 1) astero 4, 5 egun edo 6, 8 ordu eguner.
- 2) astero, 2, 3 egun edo 3, 5 ordu eguner.
- 3) Urteko aldi bat edo 2 egun astero.

«Part time farming» oso ezaguna da mundu guztian. Letari aurreratuenen bere bai. Alemanian, Frantzi edo Ipar Amerikan, Esaterako, Kalifornian, bertako bizilagun askok, lantegiko lanaren gantetik, soloak zaintzen sai dira. Mahastiak barriak sartzen eta zainarotza egiteko edo jatorjand jateko. Erri atzeratuen artean bere egiten da eta etorkizunaren egingo da, Mansholt-en iritziak gogoan artu gabe.

Kostaldekoko bizilagunak bere erabiltzen dute. Noruegan, nekazari asko, aldi berean, arrantzale bere badira eta sardinak arrapatzen arkitzen dute gainontzeko saria. Japonen gauza bardina sortzen da. Irlandan bere beste ainbeste. Gure artean, honetarik ogi-bideak, arrantzan eta nekazaritzan arkitzen diranak, Mutriku aldean ikusi ditzen, mahatsak saltzeko, gehienbat tzaquegu, beste errian ez ainbeste.

Lehenago, gure gizartean, nekazaritza eta bestetarikoko ogi-bideak ikusten ziran nahaste. Nekazariak, aldi berean, arotz edo argin izaten ziran. Era bietako zereginetan, oso bizkor, argi eta trebe ganera. Gaur egunean, industri andia sartu zanez gero, bestetarikoz zereginak ikusten doguz. 7 edo 8 ordu lanetik eta 4, 5 edo 6 ordu baserrian.

Gure errian, era honetako nekazaritza eder bat ikusi ahal dogu gaur egunean. Irusteanen. Irusta zaharra, nekazari oso trebea zan eta argin ohea aldi berean. Bere seme zaharrena, Pedro, aitaren erakutsi onari jarraituz, Firestoneko lanak eginda, eguner, baserria txukuntzen paregabea da. Ama eta emaztea ditte lagun. Erakutsi on asko eman dute era honetara.

S. Larrea

DEUSTOKO IKASTETXEAREN ESKABIDEA

Il onen 4'ean, arratsaldeko 4'tan, egin zuen azkenengo batzarrak Euskaltzaindiak Gipuzkoako Aldundegian.

Deustoko ikastetxearen eskabidea aipatu zen beste gai askoren artean. Euskaltzaindiaren agiri bat behar lukezela, alegia, euskera irakasteko gai direnak esaten zuen eskabideak.

Onartua izan zen eskaera jakina denez. Baina arazo au tajuz moldatzeko aurrez gauza ondo pentsatzea eta aztertzea erabaki zuen. Agiri orren jabe egiteko zer eskatu ikustea, alegia.

Arrazoizko Deustoko ikastetxearen eskabidea. Baita Euskaltzaindiaren erabakia ere.

Behar beharrezko dugu euskera jakitea eta euskera batu-bidean jantziak egotea euskera irakasten diardutenak. Bestela ez da inoiz ere iritxiko erriarengana euskera jatorrik eta batirik.

Baina ez dezagun ahaztu gure erriaren egoera. Gure erriak ez du ikastetxerik izan. Erderazkoak izan ditu eta dauka kultura-bide guzikiak. Etxean eta kalean ikasitako euskalkia besterik ez daki.

Orregatik askotan esaten digutena esatea ez da bat ere aritzeko. "Idatzi eguztue euskera errazagoan. Ez dugu alakoren eta olakoren euskerarik ulertzen".

Ez da aski norberak idatzitakoa norberak ulertzea. Irakurlek jaso behar dute idazleek ipinitakoa. Kontu aundia eduki behar da beraz. Are gehiago irakurle sail aundi batentzat idazterakoan. Erri xumeari idazterakoan batipai.

Ez du gaita uskeritzen euskera errazak. Ezta sakontzen euskera zaillak. Ezta euskera edertzen eta batutzen erdal-itz eta joskeraz beterik dagoen euskerak ere.

Ez dakigu askok antzifako liburuetako euskerarik ikasi duten ala ez. Gaurko erriak ez dituela ulertzen dakigu guk. Gaur itzigitan dan euskerarengandik ez duela gehiegi urrundu behar euskera batuak uste dugu. Euskera batuzte ez da ilda dagoen mintzaira bat berpiztea. Bizi den zerbitu berdintzea eta indartzea baita.

Au ez bezate ahaztu ikuntzalariak. Eta au ez bezate baztertu idazleek irakurleentzat idazten da. Au ahaztu zaie askori edo irakurleentzat idazte bestela. Euskeraren mamirik eta joskerarik ez dute artu agian.

Erriak salbatuko du euskera. Baita euskera batua ere. Erriak muzzin egiten badio, erriak erabiltzen ez badiu, galdu da gure euskera.

Gogoan eduki dezagun gure erriaren egoera. Ez ditzagun pedagogi eta soziologi arrazoik ahaztu. Idatzi dezagun gure aldirietan erriak jaso dezakean euskera batuan. Idatzi dezagun gehienak ulertzeko eran.

GOGOAN HARTZEKO...

Oraindik orain Zeruko Argian 439 garren alean Larresoro euskal idazle trebe eta azkarak Chileko iraultzaren egegarren berri ederki asko eman dugu bere "PRAGA-TIK SANTIAGO-RA" artikuluan. Neronek ez nuke lehenago ageritatu behar den horren nahi, ongi baino hobeto erakutsi baitzuen gure gure sozialismo bidetik jarraitzearen aurrez-aurre dauzkaten oztipo eta eragozpenak.

Sarritan hitzek, jardunaren jardunaz, euren mami eta esan nahia gaitzen dutela dirudi. Iraultza, sozialismo, borroka, t.a. sarriegitan entzun ohi ditugu, hitz horietara ere ohibu gara noski.

Baina, uue honetan, ba du gaurkotanunik guretzat, Chilen gertatzen ari denak. Egia bizia bihurtu nahi duten sozialismoa, lege bariari ekinaz ezarri nahi duten sistema berria... guretzat ere dei la dala esan beharrea dugula. Izan ere, gure arteko nahaste-borraste honetan ba dago zertaz pentsatu eta gure jokabideetan zer aztertu eta zuzendu ere bai.

Momentu honetan Jacques Chonchol nekazalgoaren Chileko ministroaren deklarazio batzuk ditut gogoan, eta gogoan hartzekoak dirala derizkio. Pedro Altarek jaunari esaten dionez (ikus Cuadernos para el Diálogo XXVI alea) "gure herriari jaso eta osatu behar dugun sozialismoa chiletarra behar du izen; gure gaureguneko egoera konkretu honetan errotu behar da, gure izatea, izaera eta nortasuna haintzat hartuaz ekin... Gaiuntzean, beste herrialdeetan gertu duten sozialismo berbera gureganatzeari ekingo bagenio, lur joko genduke berehala. Jakina, honek ez du beste zenbait esperientzia gogoan hartu behar direnik esan nahi...".

Chileko ministroak hitz horien bitartez ez digu ezer berririk esaten, egiazko sozialismoak nor bere herri eta lurraldean ondo sustraitu behar duela aspaldiko esana baita. Baina askok, dirudienez, ez dute horrelakorik onartu nahi. Hauentzat Chonchol jaunaren hitzek ez dute gaurkotanunik nabait... Horregatik gure artean erdal eta sasi-sozialismoaren hazia eriten ari zaizkigu... Itxuraz aurrerazale eta progressista deriztenak, herri aurrerapenaren etsai baino ez dira. Zergatik? Egiazko sozialismoak eskatzen duen lehen baldintza betetzen ez duelako, euskal-langiletasunaz sustraitu ez dagoelako...

Ezin gintzake luzaroko itsuturik egon, esnatzeko garaia heldu zaigula uste det. Baldin hoielakorik nere lan hau irakurtzen badu reformismo epelera abiatu naizela esango dute... Gure artean sasi-profeta asko dago, aski da...

Chilen ere, eta ez han bakarrik, danak ez dira eritzi berdinekoak. Iraultza maitatzen eta bilatzen dutenen artean ere ba dago tarteki zenbait puntutan. Gaurkoz ezker-tiarren arteko ezberdintasunak eragozpede gerta ote dituzken galdetzen ditonena ara zer dion: "Sarritan nere buruari galdera hauxe egin izan ditz: eskuindarrak al erraz elkartzen diran ara berean, zergatik erraztuz berdintzaerakin ezker-tiarren gara sakabanatzen eta erditzen? Behanbada eskuindarreko bideak eta zaindu nahi dizkien interesak bultzatzen die horretara. Ezker-tiarrek, berriz, ez du aberastasuna eta ondasunik, ideologia eta pentsaera soilak baizik, eta bere bizitza osoan ideologia horren baitan lan egiten du. Chilen, zorionez, ez gaude erditurik Hego-Amerika eta Europako zenbait herrialdeetan bezala. Bakoitzak bereari eusten dio eta erditurik egotearekin etsalarren jokoan bete-betean erortzen dira. Ideologia beharrezkoa bada ere, ezker-tiarrok politika bidetik abiatu behar dugu, eta politikak eskatzen duen neurrian erantzun. Historia aldaerazteko, iraultza egiteko, agintea eta indarraren jabe izan behar dugu, eta horretarako batasuna dugu beharrezkoan...".

Ez dira txantzetako hitzak. Ona hemen bi zutabe trinko eta sendo: gure herriari dagokion sistema berria sortzen ahalgindua eta batasunez eta politikak ikuspezen lanari ekin.

Zoritxarrez, bestelakorik ere ezagutu dugu bada gure artean. Pertsonarekin errezagel jostatzen dugu dirudi, lagun urkoak gure zerbizurako eta gure talde eta ideologiarren esanetara nola ipiniko buru belarri gabiltza. Askatasunaren izenean ez dugu giza eskubide eta askatasunik errespetatzen... Mikel Ugald

FONFURUAK

Ez zait inoiz ahaztuko, nik uste, lehenago eguneko gertakaria. Ba zertorren ekaiza — kasetik esan dutenez, aspaldi honetan ezagutu den bortitzaren — eta, zeru beruna hurbildu ala, tximistak bertago, eta ozengoa bihurtzen zen inhortzirien orroa. Zalatzarrik ez zegoen: hodei itsusi haiekin kazkabarra heldu zen.

Orduan, lehendabiziko haize balezkin batera kanpai hotsa hasi zen etxe ondoko eliza zaharretik inguruko bazterreiarra zabaltzen. Kanpaiari haizeak eragiten ziola pentsatu nuen haseran, soina apala eta jarraikia bait zen, ia-ia metalzko zurrumuru bat. Lehendabiziko jasadak hasi ziren orduan, eta kanpai hotsa beti etengabe ari, dei etsian.

Zer ote zen hura galdetu nien alboko etxekoiei; eta hauek, jende eskolatu, guztiz lasaiki honela erantzun zitaden: "Kanpai hotsak gesaldu egiten du kazkabarra, eta euri bihurtzen. Uzta, horrela, babeturik gertatzen da".

Ez nuen deusik erantzun, ez alde ez aurka Kanpai hotsak ordu erdi batez erauntsi zuten hala-hala; eta gero, turmoiak urrundu zirelarik, isiltsun osoa nagusitu zen bazterrez. Eta, egia aitorzeko, han ez zen kazkabar alerik erori.

Zientziaren arabera ez da ulertzen, noski, kazkabarrik ez sortu horretan kanpai hotsak ezertxotan ere lagun zezakeanik. Jokabide horretan, beraz, lehen Euskal Herrian oso zabaldua, oso gertakari gogoangarri bat dagoela iruditzen zait. Zeren-eta eskualde hauetako base-eritarrak, teknikari eta ekonomiaridagokienez, ez baitira batere "atzedatutak"; hemen ez da idirik ez mandorrik ageri, telebista nun-nahi da ikusten, eta nekazaritzako makina berriak etxe guzietako lanabes dira. "Armagnac-eko nekazari jendea, "moderno" da. Kaskoina ere ez da maiz entzuten, eta haurren artean inoiz ez.

Halaz ere, ekaizta hurbil delarik, kanpaiari eragin; eta bai kazkabarra, bai barazua, bai harria urtuko badira, "fonfuruak" jo behar. Ez 1.100 ean, edo 1700 ean bakarrik. Ez, fraintziako departamenduetan arrezarale eta antikerrikal batetan, telebista-oihan betean entzun ditut nik fonfuruak 1971 turmoia heldu aurretik.

Gaurko Gizadiaren berriaren axala, horretara, gauza ageria iruditzen zait. Mekanizazioak, "mini-ek eta "midi-ek, eskolak, telebistak, berebilk eman duen kosmopolitismoak eta harat-hunatak, ez dute gizon "zaharra" hil; alegia, Kosmoaren indar izkutekin mintza daitekeala uste duen gizona. Gizon "zaharrak" makinen artetik ateratzen du burua, askoz ere lehenago harri landuen artetik burua alxtza zuten bezala.

Funtsean gizon "zaharra" atxematzen da bizirik, eta gizon "berria" behin eta berriz makaldiruk, larriturik eta burtoraturik. Hobeki esateko: Gizona da bizirik diruena, eta haren izuak eta esperantzak. Alegia: Kosmoaren aurrean ezintasunean galdurik eta abandonaturik dagoela inolaz ere sinetsi nahi ez duen gizona. Hauxe da bizi; eta bestea, zuzena, herio-suhar.

Atzera ote doaz fonfuruak, eta zegozieren sendimenduak? Baietz erantzun behar dala dirudi. Baina ez zait hau oso gauza segurua iruditzen.

Fonfuruak jotzea atzera doa bere horretan, hau bai. Hain zuzen ere, harritu egin nau ohitura nau bizirik aurkitzek.

Baina gaurko gizon modernoak, fonfuruak jotzen ez diren hirietan beretan, ez ote dit fonfuruak bestela jotzen? Ene ustez dudarik ez dago: bai. Eta "bai" oso bat eman behar da. Baina itxura aldirutrik datoz fonfuruak gaur. Bestelako gerizabide magikoak erabiltzen dira. Baina bai helburua, eta bai jokabidearen muina berberak dira funtsean: Naturalezak gizonentzako prestatu duen zoritxarra maglaren bidez uxatzea, Kosmo etsai hau maglaz adiskidetzeta, behin eta berriz kazkabarra fonfuru baten bidez euri bihurtzea. Gaurko fonfuruak teknikaiburukoak dira; baina kanpai hotzaren kide ondorioel buruz... eta garantiei buruz!

Fonfuruak bizi dira. Eta kaka ez da iluna, ene ustez, eta ez berriki aurkitua ere: Adimenaren eta Biziarren arteko dialektikak argitzen du dena, baita izan ohi diren gorabeherak. Gure Unamunoi alpea litike mezu honen iragarle gisa. Baina ba dago haundigorrik ere: Friederich Nietzschedugu behar bada denetan haundiena.

Oraingo gure zibilizazioan — ez txirripaz Zibernetikaren aita — Adimena nagusi, eta Analisia. Guraso zaharrek familiarik bota, eta agurretxe batetara eramatea oso "logikoa" da. Sexotasuna eta sendimendua elkargendik beretzeta oso "erosoa" da, pilura bazuk lanun. Kanposantuko agerririk urruntzeko eta disimulazteak baretu egiten du. Gure zibilizazioa profusiariene eta asepsiarren zibilizazio idorra da. Gure zibilizazioa "razionala" da; edo izan nahi du, hobeki esateko.

Baina gizonarentzako funtsezkoena ez da izan Zibernetika jainkoaren araberako "adimen" hotz hori, gizonaren HELBURUEN zerbizutuan erabili behar den zibernetika laguntzaila baizik. Zailena ez bait da problema bat askatzea edo garbitzea, problema bat SUMATZEA baizik. Hots, gaur modan dagoen adimena zibernetikoa da, analitiko; eta hortaz BIZIERATIK ETA SINTESITIK AT. Gizonaren kaka, gizonaren patuari sentidu ematen diotena, baloreak dira, helburuak, jatorrien berri ematen duten hitzak. Eta xede hauek ez dira Adimen huts eta hotzaren sorkari, beste maila batetako bifakizuna baizik.

Zaratustra-ren esanak, gure zibilizazioaren krisiaren salatari, inoiz baino egiago dira gaur; eta Nietzsche, heren profeta heren filosofiko heren olerkari (gizon haundi guziki bezala), BIZIERAREN mailan mintzo delako, eta BIZIERAREN beharrene alde dihadarka hotsegin zuelako, 1971 ko igarletarik beharrena da.

Zergatik jotzen dira fonfuruak? Nola uler daiteke Lurde-ko peregrinazio etengabea, ehun urtez isuri ugarian ari? Nola uler daiteke Bernadette Zuburu neskatila arlo-teak sortutako imajina-industria txundigarria? Nola uler Benares, La Mecca, Compostela edo Jerusalem? Nola konpreni hainbeste intelektualek baikorren desilurtzea? Nola azal drogaren hedakunde bildurgarria? Nola "Planeta"-ren arrakasta?

Ez naiz, noski, fenomeno horien guzian barne-egiaz ardurutzen neure honetan, sortu duten giza-erantzun gaitzaren problemaz baizik.

Ene ustez, gertaera horiok guziki iturri berbera dute: besterik behar du Biziaz; gaurko zibilizazioa eskeintzen ez dion zerbitu.

Gizonak Kosmoan bakarrik eta alferrik iraugitzen den izakia ez dela sinetsi behar bide du. Hau eskelnei ez dion zibilizazioa, antizetan madarikatu du. Eta bihar ere gurea, hau segurutzat daukat, Kosmoarekio loturak zeharo eten nahi dituelako hain zuzen, madarikatu egingo du; eta "confort" hau eta gainerako hobiarik penarik baretze gabe basamortuko bakardadean hortziko.

Larresoro

Gasteizko solasa

Ikus, oraintsu arte taberna homena izena beste bat zen. Zeren gudua bukatuz geroztik ez zuten agintariak euskal izenik begi onen ikusi. Jendeak, jakina, leheneko izenaz deitzen zuten, alegia orain berriro duen horretaz. Ba dakizu zein aldagaitz diren gauza hauek.

Konturatu zarateke taberna honetan, Gasteiz osoan bezala, oro har, ardo ona ematen dutela (eta hau ez da harrokeria hutsa). Oroitzen zara, halaber, zein kafe on edan dugun bazkal ondoren egindako itzulinoan.

Baina utz ditzagun gauzato hauek. "Gasteiz" izenak zer demontre esan nahi duen galdegitan dauzta. Ez dakit ba. Horrela duzu hiri honen izen jatorria, edo "Gasteiz" (San Millango agirian, 1025), sekulan ez "Gasteiz", batzuek idazten duten moduan (zenbat eta "z" gehiago ipini, hanbat euskal kutxa, uste omen dute). Bidebarrak: orain duela gutxi, "Victoria" bizihurtu nahi zuela aditzera eman zuten alkateak, "Victoria" arlotze delakotz nonbait. Izan aldatze nahi hori zaba da, baina behin eta berriz itzultzen zaiku. Zure aurrean naizen honek artikulatu bat idatzi zuten, esanez "Bitoria" edo "Victoria" euskal fonetikaren xenplo bat ela, hau da, euskalidunok "Victoria" nola esaten dugun xenploa: guk arbuatzen bait dugu konsontanteen elkartasuna. Betidanik esan dugu, hain zuzen, "Bitor" eta "dotore" (Axularrek "doktor" e, kultismatik). Orain ere, "Gasteiz" izena ezagutzen ez duten euskalidunok "Bitoria" esaten dute ("a" organika edo itsatsiarekin).

Eta alkatea aipotv dugunez gero, begira zer zioen santxo nafar erregek, gasteizko fundatze-agirian: "Eta laket ez bazaiuz, alda zaitete alkatez". Baina aspaldinardik garde beste erresumen mendeen.

Zer-nolako euskar zen hemengo, eta noiz aste irau zen ohiko hizkuntza bezala? Hemengo euskara eta bizkaiera berdintu ziren, Landucci-k bere liburuan (1562-urtekoan) bildu zituen hitzak ikusita. Beste italiar batek, venturino-k 1571 urtean, hauxe zion: "Gasteiz Arabako hiriburua da. Bertan jende xehez euskaraz huintzatzen han-

dikiak berriz gaztelera". Herri xehe horrek hizaro jarraitu. Zuen euskaraz egiten, bai eta arrotzei irakasten: Mallarme frantsese poetak hauxe dio bere gutun batetan, 1840 urtean: "Gasteizko ostatu-neskamekin ikasi dut euskaraz". Baina emeki-emeki joan zen herriko hizkuntza zokoratuz eta euskaltasuna urrituz.

Hogei urte hontan erruz handitu egin da gasteiz, bai. Baina beste edonon bezala, hemen ere ez zait handitze horri erregelarik jarri. Zenbat etxe, zuhaitzi eta alderdi eder sutsitu egin den arrazoin gabe. Eta hauzo herrietan, zenbat maiturken eta bidegabe: etxeak garesti, batzutan planoan baino izanez liprago, korefazino ez dendarik gabe bertan. Jadanik edoki dugu kentegien keagatik zenbait protesta. Parkeak eta alderdi berdeak atzera dohaz, naniz eta jendetza handiz jende anitz bere auto edo moto erosteko premian zurkitzen da hain dira traketsak transporteak. Eta abar... Jakina, diruaren nagusikeriak ditaueno, ez dago ezer egite-rik tolderrin-en bertosez oroitzen naiz:

"Galbidea sortzen den lekuan,

bertain sortzen da salbabidea ere"

Inazko abendua hozino lehenago zenbait igarlek esaten zuten gasteizko langileria ez zela higituko. Igarite hoik harritu ziren, egin halatan eta geroxeago gertatu zenaz. Hemen ere, beraz, langileria ohasu edo kontzientziatzaigorik dago, batzuek uste duten baino.

Gure jaietarako atasi bezala, euskal jai bat ospatu zen garbeako hegaletan dagoen mairregorretako haitzuloan barrena leheneko igandean. Sinbolo bat iruditzen zait hori: lurpean, isilpean ez ote dihardurik? Orain kanporatu behar dira gure asmoak, esperantzak...

Daniel Hibargoitiko

ARGIA

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinok argitaratua (Kale Nagusia, 50-1. Burlada-Pamplona).

Donostia: Okendo, 22
Tel. 42.65.66

ARPEDE SARIA:

Barruan	250 pezeta
Korroo batasunetako errietan	300 pezeta
Atzerrietako beste errietan	320 pezeta
Aldetz	Aurrez galdetu

Salmetan (ala bakoitzean) 6 pezeta

Ikastaro berria

Amaitu dira oporraldiak. Asi dira irakasleek beren gauzak gertutzen. Laister ikusiko ditugu ume eta gazteok, beren liburuk skuletan, eskolara bidean. Pozik daude guroasok etxean pake gehiago izanen dutelako.

Izango da makiñabat gorabehera urterean buruan. Egingo da amaikatxo ahalagin. Edukiko da utsunerik aski. Zenbat otz-bero urtea amaitzerako.

Aurtengo ikastaroa aipatu dugu. Ez dugu ikastola bakarrik buruan. Ikastetxe guztiak baizik.

Ba dirudi gure Erria aztoraturik dabilla ikastolak direla eta ez direla. Ez dezagun ahaztu gure Errian badaudela beste zenbait eskola ere.

Eta aitor dezagun behingoz ikastolak direla, beren eskasean ere erriari ondoen erantzuten dioten eskolak. Ez duela beste eskolarik Euskalerrriak eta Euskal-erriak dirudi zenbait garaiz. Akatsak ikastolak bakarrik balituzke bezala mintza ohi gera.

Eta beste ikastetxe guztiak jorratu on baten premian daudela iruditzen zaigu ikastolaren mailaraino iristeko. Zergatik ez zaie etenkada gehiago ematen praille-monjen ikastetxeeri, maixu-maixuren eskolari?

Baina gaitzen arira. Euskalerrriaren kultura, ikuntzan, izakeran eta giroan ezi behar ditugu gure aur eta gazteok. Eta orri ikastolak bakarrik egiten duela esan dezakegu.

Ez da aski, ordea, asko bada ere.

Ez dakit nola, baina, aurrei Erriak bizi duen egoera adierazi eta bizierazi behar zaie ume dugu. Aurr, berak dezakean neurria, zuzenbakekeren aurka burrukan zaildu behar da. Burrukalari egin behar da. Euskal eta langille arazoa bizi arazi behar zaizkio.

Egiaren, zuzenbidearen, maitasunaren, askatasunaren, sendetasunaren eta berdintasunaren gose-egarri ipini behar da. Adimen eztena zorrotzu behar zaio zapaketa guzietaz jabetu dedin.

Erriaren eta zapaldu guzian alde lan egiten erakutsi behar zaio. Besteren eskubideak errespetatzen jakin behar du. Bakoitza duen erantzunkizunetat jabetuarazi behar da.

Baina jakin behar du burruka ortan etsai gogorrek arkituko dituela ere. Jakin behar du burruka luzea dala ere.

Eta erakutsi behar zaio inor ez salatzen.

Lan zaila. Egin beharrekoa, ordea. Nola? Ez dakigu. Irakasleek suma behar dituzte bideak.

Elkarren aurka gaizkiesaka igarotzen ditugun ordu etan, bide auker sumatzen jardungo bagina!

USTE BAINO URRUTIAGOTIK HELDU

Oso ale irakurgarria ateraberritu du «Sciences-Avenir» aldizkariak. «La Vie Préhistorique» deritza (Kondairia-Aurreko Biziera, alegia); eta artikuluak hornitu duten jakintsuak (Ouechon, Coppens, Chavalillon, Leroi-Gourhan, eta abar) gaur egun aipa daitezkeen antropologorik sonatuenetakoa dira.

Irakurleak pentsa dezakeenez, jakintza sail horretan jantziak ez direnontzat (ez garenontzat, hobe) argi-emale bikaina da banako hau. Jakintza-adar honetan ere, beste guzietan bezala, urte gutxitan «zabartzen» dira teoriak; funtsatzeko erabili ziren datuak, urte gutxitan osaturik edo gainturik gelditzen direlako.

Oroitzen naizenez, orain dela hogeit bat urte Neandertal-go Gizona zen gizakirik aspaldikoa: 100.000 urte. Eta kitto: atzerago ez geniekien ezer. Noski, gizonak eta tximuek jatorri berbera eto duten galdera, aidean zegoen; baina baietzkoa «gaizki» irizten zen giro hartan; eta Darwin deabrutat-edo josten zuen askok, nahiz «L'Origine des Espèces» liburua 1859-koa izan! Ez dugu ahaztu behar Canturen Kronologia, hanartean nagusi Biblia onarritzat harturik, sei bat mila urte zahartasun ezartzen ziola gizonari...

Hots, hogeit urte honetan elkar-gaita etorri dira aukerak; eta banako mamitsu horretan azaltzen denek azoko ere atzerago jarri behar da gizonaren jaiotza.

Ez hori bakarrik. Azkeneko urte-

etan «Australopiteko» deitzen zera tximu-aidea, gaur «Australantropo» bataiatu nahi du; batzuek; eta segurutzat jotzen da «Australopiteko» horren alde hasi: «ko joia (alegia: haren «gizatasun»-an aldekoa) azkartuz joango dela onduko urteetan. Izenaren aldatetarik Gizakuntza horren lekuko izan nahi du: «antropo» nahiago, «piteko» baino.

Tresnen prestatara eta gorputzaren zutieria elkarrekin loturik dau dela diote antropologiariek. Hots, segurutzat jotzen da gaur Pitekanthropoen gizatasuna (hau modernoa gizonari), «bi-aurregi-harriak horien ekintzaren fruitu direlako. Pitekanthropo (-6600.000)tik (-100.000) ra bizi izan zen, Neandertal-go Gizonarekin lotura eginez.

Gizakuntzaren hasera, hortaz, azoko ere atzerago eraman behar da. Urrun gelditu da (-100.000) urte!

Itzul gaitzen, ordea, Australantropo-arengana. Zer diote gaurko jakintsuak? Oldoway-ko ikerketa-oruetarako (-1.750.000) urte antzinatean ematen da; eta Omo-koe-tarako (-3.300.000). Bi hauetako bitartean eta langilea Australantropo da eskierki. Eta segurutzat ere josten da «pebble culture» (harri moldatuak) dagokiela. Eskuak baliatzen zituen, beraz, harriak PRESTATZKO (ez erabiltzeko) bakarrik, beren horretan; eta bi oinika ibiltzen zen. Leakey jaunak ikertu duen Australantropo-tresna kankalua arkalko bati, zahartasun hau erantsi dio zehazki: (-2.610.000) urte.

Areago. Turkana-ko iker-oruetan (Patterson) Australantropoen aztarnak aurkitu dira; eta estrato horri (-5.000.000) urte dagozkio. Hots, gaur arte, ez da harri moldatuen arrastorik aurkitu horietan. Eta, alderantziz, Melka-Kulture-ko iker-oruetan harriak tresnak bai, baina Australantropo-hezur aztarnarik ez. Horra hor, dirudienez, krisi-gurpe bat: ba dirudi Australantropoen kondairan barrena hasia dela harriaren LANKETA ETA TRESNAGINTZA. Gizakuntzaren hastapena (-5.000.000) urteraino eraman behar litzake horretara.

Baina gauza bat da harri bat tresna gisa erabiltzea; eta beste gauza bat da harri-mokor bat ikusi, eta horretatik, laneginez, tresna berezi bat ateratzea. Hau «bigarren mailako» tresna da (moldatua eta gero erabilia).

Hots, Yves Coppens-ek azaltzen duenez, Leakey jakintsuak «Rampiteko» deritza paleo-gizon bat aurkitu du Kenyan (eta Indian ere bai). Rampiteko horri (-15.000.000) urte-adina ezartzen zaio. Hots, Leakey-ek azaldu zuenez, basaltzoko harri txiki bat aurkitu zuen batera; eta harri puska txiki hark, lupa bikunaren bidez aztertuta, izkina bat erakutsi du luzera guzian hoberendua. Leakey-eren uestez (1967-XII) «ceci impliqueait un usage» alegia, harria ERABILIA izan zela erakusten zuen horrek. Rampiteko-ko, dirudienez, «lehenengo mailako» tresnak erabiltzen zituen; hau da, hartu eta moldatu gabe beren horretan erabiltzen.

Gaurko gorilek eta txinpantzeek

hori bera egiten dute: adarrak eta harriak tresna gisa, LANDU GA-BE, erabili. Eta hau erantzun zioten batzuek Leakey-ri kontrakarean. Baina honen errepikak ez du bueltarik: GAURKO gorilek hori egin ahal izateak ez du adierazten inundi ere Rampiteko Giza-kuntzaren urrats bat ez denik. Orain dela hamar edo hogeit miloi urteko gorila, eta txinpantzeak «atzeratago» zeuden. Denontzako dago eboluzioa: ez gizonaren leinuarentzako bakarrik. Rampitekoa, beraz, harriak ERABILITZTEK; eta orduko abere paraleloek (gorilen eta txinpantzeen as.bek) ez zuten egiten.

Zertan gara beraz?

Gizakuntza gero eta feromenu zahurrago dela ageri da. Australantropo gure asabari tarte lau utzi behar zaio: (-5.000.000)tik, (-700.000) ra. Pitekanthropoaren aurretik, beraz.

Rampitekoaren «tresna-mena» garbiago agertuko balitz, azoko atzerago eraman beharko lirake Gizakuntzaren mugarrak. Tartea ba da; ze «Consul» giza-tximu orain dela 30 edo 40 miloi urte bizi zen; eta honi bait dagokio gizatasunaren eta tximutasunaren arteko berezguna.

Gizakuntza fenomeno luzea da, ezin sinistuzko luzerakoa. Harri-Haroak giza-kondairaren %99,95 da!

Ez hori bakarrik; zeharo bukatuta ez da-ta.

Egun hauetantz aipatu da Filippinetako leinu arkaiko baten aurkikunde: gizadia ez da osoki irten, gizadi gisa, Harri-Haro luze horretatik.

Hau egiztatzeko atsegin paregabea izan zuten 1955-an Parana-ko «Xeta-leinua» aurkitu zutenak (Brasil-en). Bilatzaileak irixi zirenean, Xeta horiek, berrehun bat, Harri-Haro bategi bizi ziren. Ez zuten nekazitarra ezagutzen, eta ehizez eta bilketaz elikatzen ziren. Oraindik ere 1962-an bilatzailek hara itzultzean, «certains outils de pierre... étaient encore spontanément en usage». Eta urte horietan posible zen harriko tresna «jatorrizkoak» Xeta horiek antropologoen beren begien aurrean moldatzea!

Biologiaren aldetik gauzak begiratu gero, honek ezin onduko pisuzagoak dakazi. Beharbada nabarmena hau izaki: gorputsunaren aldetik, biologiaren aldetik, antropogeniaren aldetik, gizadiaren Kondaira (idatzia, eman dezagun) eta Zibilizazioa (tekniken aurrerapena) EZIN BERRIAGO DIRA. Gizonak bera buruan (eta ezin sinistuzko eta neurtzuko sakonean) daraman BIOLOGIA-ZAMA eskerra da gaitza. Rampiteko bera orain dela 15 miloi urte harriak erabiltzen hasi baldin bazen; eta Neandertal-go Gizonak (honek bederen) hilak lurperatzen, eta beharbada gurtzen, baldin bazituen orain dela ehun mila urte; orduan, gure barneki, gure nitasunaren aldetik, edo gure BIOLOGIAREN aldetik nahago bada, Iragan luze ikaragarri baten haurrei eta sorkari gara. Eta gure joerak, gure grinak, gure nahikunde izutuak, esaten zaigun baino AISA SUSTRAITUAGOAK dira. Freud-engan jo behar da erro-tik.

Australopitekoa gizatutxo beharrez, «Australantropo» bihurtu; eta era sinikaitzago zait niri benetan gizonaren izakerak eta nahikundeak funtsean «infrastruktura» ekonomiko baten ondorio direnik. Gizadiaren biziera luzean %99,95 baldin badagozkie Harri-Haroiari, ezin dut nik SINISTU («sinistu» diot, bai; fedea bait dabil hor gidari) gizon «BERRI» bat produzio-harremanen aldatuntzatik sor daitekean: gizon zoragarri bat, dena bertute eta desalienazio, Zaratustra-ren kuttun-gai.

Oso poliki horretara da gizona, miloika urtetan barrena; eta oso poliki aldatuko da bere horretatik (alda badadi!) Alferrik damitologia faltsuen erieitea. Zientziak ez digu horrelakorik sinisteko aukerarik uzten.

Gizona, bere horretan, anitz miloi urteren seme bait da.

Larresoro

PENTSATU EGIN BEHAR

Gizonaren doirik haundienetako adimena dela guztiok dakigu. Aheregandik zerbaitek bereizten bagaitu, adimena da hori. «Animal rationalis» bezala definitu izan zen aspaldian gizona. Gaur eguneko giza-jakintzalariek adimena—gizona bera—zenbaiteraino determinatua dagoen erakutsi digute: bai soziologoek, bai filosofoek, bai sikologoek, bai giza-jokabidearen ebereen jokabidearekin gonbaraturik azterten dutenek, guztiok dasaigute askatasun osoko ta zearo adimenezko gizonik ez dagoela, romantizismoak eta rrazionalismoak ueste zekaten bezala. Ba dirudi jakintza aldetik eta teoriari gutxienez gizona bere buruari neurria hartzen ari zaiola, bere burua tokatzen zaiola tokian jartzen ari dela, arrokeriak alde batera utzirik.

Halaz ere, ez da egia txikia gizona adimendun dela, pentsatzen duen abere bat (ez hori bakarrik, bainan hori ere bai). Gizona harritu egiten da, gizonak prolemak aurkitzen ditu bere aurrean, gizonak erabakiak hartu behar ditu, eta hortarako, beste gauzen artean, pentsatu egin behar du. Gizonak barkarka pentsatu dezake edo gizar-tean. Gizonaren prolema asko barkarkakoak dira, beste asko gizar-te zabalerokoak (Utzi dezagun gaurko lojika mailan bietan aurrena zein den erabakitzea). Garbi dagoena zera da, gizonak askotan barkarka pentsatu behar duela, erabakiak bakarrik hartu behar dituela, prolemak bakarrik konpondu. Gizonak pentsatu egin behar du.

Pentsatzea maila askotan bereizi ditek. Bi bakarrik hartuko ditut: konputadorak batek bezala pentsatzen duena, beti besteek emandako ideiekin dabilena. Eta bestea, agian hitz polit gutxiagok, teoria haundirik altxatu gabe, bainan pentsatzen duenean bere buruz pentsatzen duena, ez besteek emandako ideiekin, edo ez hoiekin bakarrik behintzat. Gizar-tean dabilzen ideiak bere egiten saiatzen da, ausnartzen, kritikio espirituariekin hoi en giza eztertzen, eta ez lorito batek egin lezakean bezala entzundako hitzak eta teoriak, ulertu edo ez, birresatzen.

Historiako ueste batzuetan krisisa larriago, nabarmenago azaltzen da beste batzu etan baino. Orduan errealtatearen mamia, munduaren mamia, gizona bera zer den uler-

tzea zailago da, egin atxikitzeak askotan ezinezko gauza dirudi. Egiaren bilaketan gizon banakoa, bere buruz pentsatzen duen gizona, galduta aurkitzen da, eta taldeak, gizar-teak eskeintzen dion egia, ideiak, teoriak eusten dio. Horrelako teoria batean bere buruz pentsa dezakeanak, bere egia alegia, ematen ez dion segurtasun bat aurkitzen du gizonak, garaieren ulertzean eta larraldian babesean aurkitzen da, eta horrela, bizitza errazago egiten zaio.

Gaur egunean teoriaren merkatua merkatu ugaria da. Zera esan nahi dut: bere buruz pentsatzen ez dakienarentzat, bere egiaz beldur dearenentzat ba dagoela publikoan, gizar-tean zenbait teoria salgai. Utz dezagun teoria hauek, ideologiak, merkeak ala aberatsak diren ala ez. Baina or daude, erosi nahi dituanarentzat; konsumoko gizar-te izan nahi lukean batek—eskeintzen duen ideologia, eskeintzen duen mundua, eta beste muturrean mundu honen ukazioa den ideologia, edo mundu bonen ukazioaren monopolioa bereratz nahi duen ideologia. Eta tarteko guztiak.

Guztiok obitu gera salgai dauden ideia hauek biziitzen, gure pentsamendua bizitza hoietaz mantentzen. Guziari zaigu errazago horrela bizitzea. Agian, ueste batean beharrezko genduen hori, nahitaezkoa. Lehengorekin hautsirik, gure buruak hutsik aurkitu ditugunean, gutako bakoitza filosofo bat ez izaki, besteak landutako pentsamenduaren beharrea aurkitu gera. Baina, baita ere, agian, heldu zaigu garaia gure pentsamenduaren atzerketa bat egiteko, jaso ditugun ideiak benetan gure egin ditugun, herpentsatu ditugun edo loritako bezala berresaten ditugun galdetzeko ordua. Baita ere gizar-teak, taldeak, modak eskeintzen dibikiguten ideia ta teoriak distantzia pixka bat hartuz atzertzeko ordua, espirituk kritikoz, gure buruaz baliatuz, gure buruz pentsatuz. Behar bada, honek segurtasunik eza ekarriko digu. Hortarako, horrela bizitzeko gai gerala demostratu beharko dugu. Eta hori egiten badugu, ideologiak kutsatutako, ideologiak uesteldutako haibat hitz, haibat ideia herpentsatu ta berri-rabazi ahal izango dugu, nola sozialismoa ta humanismoa eta bes-

te asko, mendebaleko kulturaren sustrai ta zutar sakonak dituztenak eta azken urte hauetan ideologien eskutan esanharik gabeko hitz uestel bihurtu direnak.

Bainan ez nuke ukatu nahi jokabide honek izan ditzaketen jarri arrisku—arrisku haundiak gainera—seinaltatu gabe:

—Atzera begira bizitzea, hau da, mendebaleko kultura izan denari begira jarri, kultura honek jarri-raturik etorkizunaren, geroaren ikusmira gaitzea, aldaketa sakonen beharra ahaztea, egia, itxaropena etorkizunaren, geroan, eta ez iraganen dagoela ahaztea.

—Masokismoaren arriskua, barkarkeriarena, individualkeriarena. Nor bere buruz pentsatzen hastean guzta prolema bihurtzea, nor bere baitan itxirik gelditzea, absurdua, etsipena.

—Antzuturik gelditzea, hau da, borrorakako kemena gaitzea, efizakia gaitzea, ekintzaren mundua ahaztea eta egia ta ideiak teori-ko bakarrik ez ezik, praktiko ere izan behar dutela, horrika bat aurrera eramateko balio behar dutela ahaztea.

Gizona, gaur egun, bere burua ulertu beharrea aurkitzen da. Baina gizonak bere burua ulertzeak ez ditu gizar-tearen prolema guztiak konponetzen. Gizar-tearen prolema ulertze hutsak berriz, ez dio gizonari bere buruaren ulertze arazoa zearo konponetzen. Ez bata ez bestea ezin ahaztu genitzazke. Ideologia batek gizona banakoa ere ba dela, individua alegia, ahazten badu, lehentxoago edo beranduxago bere zorra pagatu beharko du. Baina, era berean, pentsamendu batek gizar-te bat ba dela aldatu, zearo aldatu beharrezko ahazten badu, eta hortarako ekintza bat beharrezkoa dela eta ekintzarako gai izan behar dela, hau guziaz ahazten baldin badu, pentsamendu honenak egin du, ez dauka etorkizunik; gizar-tea aldatzeko metodo ta ideia batzuek saltzen dituen ideologiak irabaziko du merkatua. Eta orduan, goian aitatutako arriskuetatik irteteko gai izan ez denak ez dauka arraxikia hasteko esku-biderik, ixilik egon beharra dauka eta lehen lehenik bere buruaren kritika bat egin, bestein gezurra eta okerra azaltzen hasi baino lehenago.

Joseba Arregi

ARGIA

Zuzendarie:

MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratuko (Kale Nagusia, 50-1^o Bulearda-Pamplona).

Donostian: Okendo, 22
Tel. 42.66.66

ARPIDE SARIA:

Barruan	250 pezeta
Korreo batasunetako errietan	300 pezeta
Azterrietako beste errietan	320 pezeta
Aidez	Aurrez galdetu

Seimeten (ale bakotz) 6 pezeta

Non da gure Europa?

Nixon-en erabakiak, munduko erri gehienetako diru-arazoa kinka larrian jarri du.

Baita Europa beraren nortasuna ere. Europa batua egin haiean gabiltzanok ere, ha du gure zertaz kezkatzerik. Europa egite ori ez da gauza ez argia, ez erraza, baina dakarkian ondoren au bai dala latza: 200 mila pertsoneren lan-arazoa jokatzeko dala Europa batua orren gorabeheran.

Europako Elkartearen ordezkariak larri ibilli dira Bruselas-en. Ezin etsi badezagere ere, arazoa estua da. An, daude Ameriketako Estatu Batuek, etseko zorrak konpontzearen "Fondo Monetario Internacional" dalakoaren arauak zapalduak, eta G.A.T.T.-larri emandako itza jaten. Eta emen, Europa, batu ezifteen. Izan ere, Europa-ko larri bakoitzako bere bakoitzak bere kasa jokatu du diru kontuan; bakoitzak, berari bakarrik komenti zaiola ankeratu du. Eta egoera nahastu ontatik bi erakuspidet sortzen dira:

1. Nazio-arteko arazoetaz jakintsu diranek, gehienak behintzat, ala mintzatzen dira: "Zortzi egunetan izan dan aldaketa, etzan izandu orain arte, ezia zortzi urtetan ere". "Nazio-arteko salerosketak gutxiuz egingo dira, au da, bizitzaren mailak jeltxi egingo dira, okerrago biziko gero, lan-ekasdia etorriko da, eta jakina, gizate-kinka latza ere bai" (J. Boissonnat).

"1972 garrenako, errialdi aundia izango da ekonomian" (G. Mathieu).

"Nazio-arteko salerosketen errialdiak, Europa guztia txikituko dezake".

"Nekazarien Merkatu Batua autsi egingo da, batera ibiltzen ez bagara" (Cartier).

2. Europa guztia kezkatutik, arriturik dago. Izan ere, eztabaidarik gabe eta erriari galde egin gabe artu dira erriaren geroa erabat aldatuko diren erabakiak. Arazo ekonomikoak diralata, ahaizu egin behar eto dugu demokrazia zer dan? Sartaldeko Europaren demokrazia ori al da? Teknokrata batzuk bildu, gau eta egun jardun eztabaidan, erabakiak artu eta gero eman zaio erriari batzaretan ikusitako berri. Ez da giro europatzen artean. ORAINTXE JOKOAN DAGOENA AUXE DA: EUROPA-KO NEKAZARIAK PREZIO DEZENTE BATEAN SALDU AHAL IZANGO OTE DITUZTE BEREAN BARAZKIAK. Europako uritan lanik gabeko gizon asko izango eto diran kezka. Dendari askok euren dendak itxi egin behar izango eto dituzten kezka. Gizarte industrial au ederra da dana ondo dionean, lokarri guztiak loturik irauten dutenean, kurrupillak kurrupillari jarraitzen dionean. Baina zerbaiz gelditu egingen bada, danentzat kalte. Askatasun aundia behar izaten du, biziko badira, bai industriak, bai salerosketak. Eta orain artu diran erabakiak, askatasun onen aurkakoak dira. Bidezkoak litzake, beraz, kalteak jasango dituzten jendeefi beren iritzia eskatzea...

Baifian ez da ala egin. Demokrazia ez da iritxi ekonomi-arlora.

Eta guk, Europa demokratikoa nahi dugu. Ez dugu, beraz onartzen, Bruselas-koen jokoa. Non gelditzen da nekazarien, langileen, dendarien eta errien Europa?

Lehenengo mailako intelektual bat:

JOXE AZURMENDI

Egun hauetan Baionan argitara, eta salgai jarriko den liburu batek segurtarik dauka euskal letretan leku goren bat: Joxe Azurmendi-
ren "Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa" deritzanak. Baina eragin handia izan dezake, era berean, Euskal Herriko politikan eta ideia-mugimenduetan etorkizunean. Azurmendiaren liburuak, jakinduriar eta argitasunez, erderazkoen artean paraturik ere, liburu gutxiur zor lioke ezer. Sinistuta nau. Liburu mar-
tut trinko honen ondorioz, ben-
den, goreniko mailan jarri beharra dago gure zegasunak eskal idaz-
lezen artean. Baina, hau beraz asko izanagatik ere, ez da dena: zeren-
eta Euskal Literaturak berak egin-
ten baitu, Azurmendi esker, bai saioeraren, bai politikaren eta fi-
losofia-erren mailan, erraldoi-urrats bat.

Beste sailletan ere bazuen J. Azurmendi gure artean entzute eta aipu handirik. Haren "Mani-
festu Atzeratua" olerki-bildumak, puskaka ezaguturik ere, harrera be-
ra bildu du euskaltzaleen artean; eta "Anaitasuna" ko artikuluek gau-
za bere. Besteren olerki-kritikari dagokionez, bestalde, gutxi lortu-
ko bide luke gaur, kritikari gisa, Azurmendi-
k dezakean balio-aitorra.

Azurmendiaren etorrera delata, beraz, txapela denok erantsi behar dugula esanez, ez diot adiskideari mesede egiten, egari goratzarre baizik. Azurmendi ez da "beste idazle bat" euskal letretan. Azur-
mendi benetako intelektuala bat da, atzerrikoen mailan aisa parekatze-
koa. Eta gauza bat eska dakioke bakarrik: otoi, ekioi lanari!

Lanean ar da, egia esateko. Eta nolaj Joxe Azurmendi bertatik eza-
gutu dugunok, hain zuzen, harritur-
rik gaudzka haren langintza-mailak. Jakintza harriarri hori 32 urtean
nola bil daitkean ez dugu uler-
ten. Aste hauetan, besteak beste (eta alemaneraz ez dago geldirik!)
Kolakowsky-ren izkribuak prestatu-
zen ar da, euskerara itzultzen
eta azalpena hornitzen; eta filo-
sofo ezaguna euskeraz irakurtzeko

aukera izango dugu laister. Erderaz ere oza-ozta ezaguna delarik!

"Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa" liburu hitz gutxitara biltzerik ez dago. Aitor dut, eta egileak ere aitor luke, zenbait aldiz ideia ber-
bera leku diferentetan azaltzen de-
la; liburu ataka egina bait da "Zer-
tatuko euskaldun?" galdera famatu-
haren ondorioz. Liburu saiaer-
la-bilduma gisa hartu behar da.

Azurmendi bertatik jarraitzen di-
tute gure herriko eta munduko mar-
xismoaren gorabeherak. Arazoko-
gogotik hunkitzen du; eta, proble-
ma-
k hemen edo han agertu ala, az-
tertzen saiatzen da. Honek, eta az-
zeneko kapituluetan marxismo-
ren eta nazioaren gorabehera Eus-
kal Herrian, Txekoslovakian, Suo-
mi Finlandian, eta Viet-Nam-en xe-
heki eta konkretuki aztertuz, bizi-
tasun gaitza lortzen du liburuak; eta gauza zuzen dago eta eztabaida-
gogorrik piztuko dituela.

Zer puntu apatuko? Dudarik ez dago: liburu lodi mamitsu honetan nor-
k bere parte iraurriko du, eta ez denok berbera. Baina gauza bat iruditzen zait gutiz segurtatua: gaur Marx-en teoriak hunkitzen eta interesatzen dituenek (eta hainek ez dira gutxi!) eruz ikas dezake-
tela marxismoaz liburu jakintsu honetan.

Bere herria eragabeki eta sutsue-
gi uatu nahi zuen judu bat aurki-
tuko dute azterketarako sarrera gi-
sa: Karl Marx judua. Harrituta iku-
siko dute haren herria neurrigabea: Moises-engan "egiptotara" bat aur-
kituz, juduak apatzerakoan "jude-
guxka" edo "zakur" (Engels-ek irri-
kurriz, juduen araza-ezagugarritza-
t... "diru-grina" salatu, eta judu-
en izana eta naziotasuna Marx-ek er-
rabiatu ki ukatu. Eta geroko (eta gaur) marxismoaren anti-semitis-
moaren erroak argiako antzemango dituzte, eta joera horiek eta na-
zioaren kontrako beste batzuk sor-
kuzako gorroto horretan finkaturik daudela ulertuko.

Garaio girona zela pentsa lezake zenbait. Baina hau ere ez da egia: judutarren arazoari "nazio-
tasunaren malla" aitortzen batzioten bere kideak: Proudhon-ek, Fourier-
ek, Lafargue-k (suhaiak berak, be-
raz!), eta beste anitzek. Aitarren gubaidak nardaturik, hain zuzen, Eleanor Marx-ek (alabak, alegia) jid-
dish-era ikasi zuen ezkonduktakoan eta aitaren gehiegikeriak konpondu nahi izan baitu bezala, juduen de-
fendatzaile gartsu bihurtu zen.

Marx aleman bat bide zen aurre-
nik, familian lehenengoa (gurasoko juduak ziren, eta erlijioz judaista), chauvinista alemana ez gutxitan; eta des-nazioartu diren beste askok bezala (gogoraz ditzaun, gonba-
zorgo baterako, Vanbellingen, eta Deruyter deritzaten antilamenko amorratu eta ugarik) Marx-ek gorroto haundiago zion bere egiazko etorkiari, Zientziak edo zientzak berak idaroki lizaiokan baino. Eta bere judutasuna ukatu eta konpen-
tsatu nahiz, salduleriaraino eta absurduaraino joan zen. Honen azalpen teorikoak ez ziren derragoak izan.

Osoki txundigarriak dira, horretara, "Die Deutsche Sprache" (1839) deritzan izkribuan Marx-ek aleman hizkuntzaren alde idatzi zituenak (jiddish-eraren kontra, esan dudanez, gogorak esan ondoren). Txekiarren nazio-eskubideen kontra idatzitakoak, bene-benetan, gizon argi batengan sinistu ezinak dira. Baina, noski: orduko Pragan alemaneraz mintzo zen...

Marx gaztea, beraz, naziotasun-
arazoaren ukera osoan agertzen zaigu. Urteetan barrena, ordea, Azurmendi ezin argi-
gogor frogar-
tzen duenez, Marx-ek aldatu egin zuen bere iritzia; nahiz azkenen bukatu gabe utzi bazuen "Das Kapital" lan nagusian hizkuntzaren eta etniaren arazoa.

Azurmendi, halere, politika-joka-
bideak eta gutunak berak hausnar-
tuz, joera nabarmen bat aurkitu-
ste du Marx zaharrearengan; eta as-
ko nabarmenago, beranduago ar-
te bizi izan zen Engels-engan. Po-
loniarren kasoa, esate baterako, bertako abertzaleatasunaren herri-
kotasuna eta sakontasuna ikusirik, aurrenik nazio-arazoko garbitzeko es-
katu zion Engels-ek Poloniako mar-
xistak. Honek, eta Azurmendi xe-
heki aurkeztuz dituen beste ha-
maika etseñlur, gutiz harriarri

eta naziozale presentatzen dute Eng-
els zaharra; eta gauza horiek ir-
kurritu, irakurle asko, nik uste, zur-
tuta eta ahoz-bazalik geldituko da. Ez bait dira horiek gure artean za-
baldu diren leloak.

Ezagutu ohi ez den puntu asko dakar liburuak. Oso interesgarria da, esate baterako, Lenin-ek eta Manabendra Nath Roy-ek elkarre-
kin izan zuten eztabaida. Aste ho-
netarakoaxe gertatua dirudi.

Eta oso irakurgarri eta googo-
ngarriak ere Mosén Hess-en teoriak. Hau Marx-en adiskide mina izanik ere, sozialista amorratua, geroko joera batzuk piztu bide zituen, Kon-
dairaren eragine nagusia klase-bu-
rruka ez baina "nazio-burruka" dela esanez. Renan-ek, Fichte-k eta Nietzsche-k ez dute horrenbeste esan...

Gure egoeraz, eta beti dokumen-
tazio eta jakintza harriarriaz horni-
turik, Azurmendi egiten dituen az-
terketak ezin mamitsuago eta ar-
gitsuago dira; eta, nahiz honetan edo hartan ados ez izan, irakurleak ez du inoliz bere denbora galduko.

Jakinduria honek, halere, ez du Azurmendiaren irizkeria kamustu. Eta marxismoaren akatsen sustraia bi-
latzen duelarik, xuxen antzematen du kokoa, ene ustez. Badago ba-
tetik, dio, Marx-en "monismoa"; alegia, Kondairaren funtsuan, indar edo fenomenu nagusi BAKAR bat dagoen ustea. Eta badago, bigarre-
nekorik, Kondairaren sujetaoren (eta nazioaren) teoriaren hutsunea: Marx-ek, Kondairaren objektibida-
deaz arduratuz, sujetaotasunari, eta beraz pertsonari eta "haziorri, trin-
kotasun guztia kendu zien, egia gu-
xtiatsiz. Bi hutsune hauek, dudarik gabe, egin edo alpa daitzekan lar-
rietakoa dira.

Baina Marx-ek iluratu egin bide du Azurmendi gazarroan; eta liburu honetan nabarmen dago Marx-eki-
ko jaiera, hura, eta "hala ere" Marx salbatu beharra. Marx-en marxis-
moa eta geroko marxismoa behin eta berri-
z elkarretarik berezi nahiz, Azurmendi Marx-engan sozialista handia gorensten du, kapitalismo-
aren ikertzaile zorrotza goratzen, justizia-egari eta mitoen gorrotoa bizi zituen pentsatzaile aparta aint-
ztatzen; eta, hau batez ere, Marx GIZONA. Azurmendi, Marx salbatu nahirik, marxista "fededunen-
idol" naria kondentatzen du guidarik gabe, Jean Marie Benoist-ek egin-
goko lukean bezala; eta stalinismoari buruz bereziki distantzia handiak hartzen ditu.

Azurmendi horrela jokatu, nahiz bere burua "ez-marxista"tzat aitortu, neo-marxista edo marxista-
berrien hildotik abiatzen bide da. Ez da kasualidadea Markovic, Garaudy, Kolakowsky eta abar liburu-
an apatzea. Ez da txipira ere Schaff poloniarri buruz kapitulu mamitsu luze bat eskaintzea. Eta ez da harritzekoa neo-marxista hi-
rietaz gure Azurmendi lehendabiz-
korik hitzegina izatea. Azurmendi stalinistak gaitziritzen badie ere, begi onez ikusten dituen "neo-mar-
xista" horiek; eta oso gogoko luke, nik uste, Gajo Petrovic kroaziarrak Zagreb-en "Praxis" aldizkariaren bidez egiten duen lana: marxismoa desmitifikatuz, gizatarteko. Azur-
mendi aisa onhar lezake Petrovic-
en idela nagusia: "nous nous oppo-
sons à la vision stalinienne du marxisme, pour retrouver son ins-
piration authentique". Ez dute bes-
peratzen egia, egia esateko, Lucaks-ek, H. Lefèvre-k, Sartre-k eta beste ha-
maikak, ia beti ortodosiatik at ja-
kina denez.

Liburu aundia da, bukatzeko, hiz-
kuntzaren aldetik. Euskeraz ez du tradizioarik, ez irakurleko ohi-
turrak, gai horietaz arki izateko; eta Azurmendi, bestek bezala, ahal izan duen bezala garbitu ditu min-
tzairari buruzko buru-hausteko. Er-
abili duen euskerak, oso aberatsa eta jatorria izan arren, ba du tar-
teka gordin-kutsua. Eta norbaitek berehala gogoraziko digu. Sagardo-
teggiko kutsu "jator"ez, ordea, nola marxismoaz edo filosofiaz hitzegin-
go? Euskeraz gaitu eta gaurtuko be-
har bada, nekazari dor ditaeke berri-
kuntza hori... "berri" kutsurik gabe, eta Mari-Xukalderen euskeraz soil-
soilze...

ERDIPURDIZKO ETA EPELKE- RIA ZKO JOERARIK EZ!

Garai batzuetako euskal giro ja-
torria gure herrietan desegin zorlan
eto dugu pentsatzen hasita nago. Eta ez diot Euskal Herri guziri bu-
ruz, euskararen gordailu bezala ge-
ratzen diren herrietaz baizik.

Zer bultzadak eraginda abiada
gaizto hau? Ene ustez, geure por-
taera erdipurdizko eta zenbait epe-
lkeiazko jakobideri amore eman be-
harraz datorrigi ezbeharra. Histo-
ria batzuk, edozeinen oroimenean
egon litezkeenak, hemen auzteko
asmatan nauzue, erabili nahi dudun
arloan hizpide hartuz.

Adibidez, bazaude jaxteke bate-
ko atarian afari gisara mokautxo
egiteko asmatan. Mahain luzeak bi
ilaratan jarrita; koston aurkitzen
gara, kai gainean finkaturik; zerua
oskarbi eta esan beharrik ez, giroa
atsegin. Aulkiki jendez betez doaz
piskana eta hizkuntzak nahasten,
turismoaren bidez... Zure aldame-
nean hutsunea baina berehala osat-
uko dute hiru pareja gatzek. Poz-
garri izanen zaizu haven hurbilta-
suna, zeren euskararen abots go-
zoa dakarkizue gazte elai, sasoi-
tzu hauek. Baina hemen amaitzen da
zure poza, zeren eserita besterik
gabe gizasmeetako batek ekinen
dio gatzelania mintzatzeari eta ez
da gehiago hortatik itzuliko. Adis-
kie gizasmeak hala ere lehenago
oraindik, damak lagun erdaltzaleari
amore eman bitartean... geroxeago
denak eraldatzen.

Zerbaiz adierazten eto du hone-
lako pasadizoak? Ene ustez bai nos-
ki, zera geure hizkuntza jendaren
aurrean agiritzat edo ezaupiderako
txartel bezala soil erabiltzea zai-

gula interesgarri edo beste era ba-
tera esanda: geure jatorriz harro,
baina berarengandik hartutako do-
hain sakratuenak zapuzten barne-
ko kezka tipenik sentitzeke.

Edo ta beste hau, alegia dugu
mania purrukata, emakumezkoak
batipat baina gizonzkoak ere bai,
nahita ez eta beti ajeatutako min-
to nahastuan ihardun behar negar-
garria: bi hitz euskaraz eta hiruz
gatzelaniaz eta abar. Burugabekeri
honetan arras erorkorrak gara eta
txarrena ez konturatzea nolako pa-
regarri azaltzen gaan kampakoen
begietan.

Edo ta beste honoko hau: as-
tialdia duzuta, ibilaldia eratu du-
zute sendiko guziok eta bazoatze
bidean patxadan berriketa egin
baita ere hurbildu zaizkizuen adis-
kideekin. Tarteka ordea, jakina,
haurrei ere begiratu edo kontu pis-
kabat egin beharra egokitzen da,
eta hemen koska: alboko batek bai-
no gehiago, ikusirik zuk ipintzen
duzun arreta tipiei euskeraz ahal
bezain garbi -eta osoena eskainiz
mintzaterakoan, sinisgaitzez bete-
tako keizuz ezetzaten zaitue. Ge-
hiegioko edo allerrikako ote ardu-
ra hori? Hala dirudi egun, arunt
egiten dugun euskara narrats eta
gatzelaniaz hornitutako horren ja-
rialtzale direnentzat. Benetan leno-
men harrigarria derizkio honi.
Euskeraz zuzertu, batu edo aberas-
tu nahian direnak, nabarmen eta
agian zorrotz zenbait euskaldun
lasaien begietan.

Edo ta maiz gertatzen zaigun fe-
nomeno hau: alegia denbortan
ezagutzen ditugun pertsona askore-

kin gatzelaniaz mintzatzeko dugu
ohitura, bestelakorik berekin ez-
nekoan dan ustetan. Eta gure oker
tamala: noiz behin oharitzen gara
honenkin edo halakorekin ez duzula
inolazko eragozpen edo zailtasunik
euskaraz egiteko, zeren horretan zu
hainbat jakintsu baita berai! Geure
erru hutsak jaurtuzten gaituela zen-
tzugabeko egoera hauetara argi eta
garbi aitortu behar. Bestera litza-
ke, erabakitsugako izan da eza-
gun berriei hitza eskeintzerakoan,
hau da, lehenen geurean ekin eta
bietara egin derrigortzen bada.

Edo ta dendariak «euskaraz min-
tzatzen da» txartela ipini beharra
erosleek beldur edo kupida gabe
euskaraz egin dezaten. Gure hitz-
kuntza gaixua, bere sortierren, hitz-
untza arrotzen tankera, zabalkunde
premian...

Antzeko azalpen gehiago ere ba-
datorrik burua baina nahikoa du-
gu alde honetatik. Amaitu aurretik
esangura naiz zera: aipatu dudun
arazoen ez dala txantxetako, bakoit-
zaren kontzientziari ukitu behar
diona baizik. Goian esan dut eus-
kara geure jatorrizko ondasun eta
gozamen baliotsuena dugula. Zer
eragoza izan behar lukeen eus-
kaldunon erantzuna ez da konpreni
zail. Geregantzu hizkuntza maita-
garria, barnean sartu goza, gogoz
eutsi eta leinu berriei berpiztuta
eta aberastuta eskaini ahal izateko
lanean arri bakoitza eta denok. Ho-
rrela Euskal Herriari bere antz eta
nortasun bereziak bihurtuak izan
dakizkion behingoen.

SINODOA

Lalster dugu Sinodo deritzan batzarra Erroman. Apaizen arazoak aztertuko dituzte an biltzen direnak.

Izan ere ez da berriketa apaizari gertatu zaiona! Au bai gelditu dela ez zerurako eta ez hurrerako!

Zenbat galdera, zenbat kezka, zenbat zalantza, zentat aida-keta! Zer da apaiz izatea? Zertarako apaiz? Zer eginkizun du apaizak? Kristau-erriatik urrun ala bertan bizi behar du? Edezein kristauak bezala artu behar al ditu famili, lan eta politikako erantzukizunak?

Zer gertatzen da orrenbeste apaizek beren apaiz biziera uzteko? Zabarkeria? Sinismen eza? Etsipena? Ala kristau izatea familiko, laneko eta gizarteko lotura guzietan sakon bizi nahia?

Elizak daukan buruauterik aundienetakoa: apaiza. Bizi zena, beraz, arazo au bere luze-zabaleran aztertzea eta sakontzea. Orregatik eta ortarako da ain zuzen datorren Sinodoa.

Baia ez ben zideo goitik behera gauzak erabakitzea. Apaizen eta eliztar soillen iritziak beharrezkoak zira. Orregatik jaso behar zituzten elizkarruti bakoitzean gotzaiak beren apaiz eta eliztarren iritziak eta ustak.

Eta egokia zen Errialde bakoitzean eliz-barrutiak elkartueirik arazoak aztertzea eta sakontzea an-engo ordezkariek Sinodoan bildu aurretik.

Egiaña dute Españaiko gotzai eta apaizek ere beren batzarra. Izan dituzte beren gorabeheri eta eztabaidak bidezko denez. Ez dezakegu ango berri gehiegi eman, ordea. Ondo datozkigunak bakarrik zabaltzeko ohiura bai da gure artean. Eta zoritzarrez gauzak beren lekutik ateratzeko joera beldurgarria.

Eta orixe gertatu ditek batzar ontako berriekin ere. Eta orixe apaizen ezkongabatasuna aipatzearrekin eta eztabaidatzearekin ere. Ezin uka garrantzizko denik. Baia zenbaitek beste arazoak zokoratzeko erabiliki dezake onek sortu lezakean aztoramena.

Sakonetik eldu nahi izan diote apaiz arazoari Españaiko gotzai eta apaizek. Kristau erriaren eta munduaren serbitzuan jarri nahi lituzkete Eliza eta apaizgoa.

Garbia izan da Erriari egun dioten erregua. "Gehiegi uztartuak egon gera agintariekin gerra ezkerotik. Zuegandik urruti. Arren barkatu".

Behartsu izan nahia sortu zaio Elizari. Behartsuen alde jartzeko gosea.

Ez da bide txarra barkazioa eskatzeko. Jarrai dezala bere gogo ori biziaren mamitzen eta buruzten.

EUSKAL MITOLOGIA

HONDARTZA

Ene zango iletsu eta meharrak, ez dute aspaldian eguzkiaren argirik ikusi. Ez dakit zein konplejo ezku-tuak eraginda ez naizen auten-goan hondartzara joan. Agian hartatik, hasia naiz hondartzan pentsatzen, eta zenbaiterainoko jentel-deak harat doazen jabeturik, hondartzaren sekretu gordearen bila iharduki dut.

Hondartzarako gutzia alderdi askotatik ikuspegi daiteke. Soziologoak osagileak, sikologoak eta nazioetako jende prinzipalak ere hondartzak duan garrantziaz jabetu dira. Hartaraino larritu dira gauzak eta hain «egyezko» da hondartzara joatea, ze harat ez doazekan konplejo bortitz batez kutsatuak dautza.

Eguno saio honetan hondartzaren bi alderdi berezi aipatuko ditut: sua eta jendetza. Horretarako, eta nolabait ere, hondartzaren fenomenoa fosilizatutik bezala hartzen dut; gisa honetara gauzak argi-gio izanen direla pentsatuz.

—looo!

Gorputz bezuak, aurpegi gorriak, mila gisatako gorputzak kiskaltzen, erretzen. Larruei bapainua darie, eguzkiaren bapainua. Hondarria behean, eguzki bortitza goian,

eta tartean zango, zoin, bular nagiak. Hondartzan amets leku da; ameskeriaren toki. Oro da errea eta gutzi oa bero. Hondartzak aia-bera bat dirudi, eta han dautza gorputzak eguzkiari eskeiniak. Ofrenda handi bat da hondartzia.

Eguzkia sua da. Eguzkiak beroa ematen du. Berca eranstun du. Eta beroa biziarene seinale da. Erromanitokoek bihotzak ihardukitzean bero josten zuten bihotza. Maitasuna ere beroa da. Maitasunaren griña sua da.

Sukarrak garbitu egiten du. Burrenia, sukaretan altzairu trokatzen da. Hondartzako suak «garbitu» egiten du.

Lehen esan dut, hondartzia aldre bat dela; eta orain diot garbitzaile dela. Eta aise nabari daiteke hemene erlijio zentzu bat. Hondartzia erlijio eta kultura bihurtu dugu. Hondartzak ba du ritorik, ba du liturjiarik. Hondartzako eratzak edo biluzteak, berek ere, rito bat osatzen dute.

Bizia eta beroaren arteko lotura klara da eta oso maiz aipatua, mendebaleko alkimia eta medizinen historia zehar. Sua eta biziarene arteko ekuazioa Peracelso-ren sistimaren oinarri eta zutabe da. Peracelso-ren baitan suak bizia dekar eta bizia su da. Pentsaera hau oso errotua dakusagu Erdi Haro eta gerozko gizaldietan. Europako mitologiaren sorreran elkarturik aurkitzen ditugu sua eta bizia. Grekoen mitologiaren berriz antiz aldiz agertzen zaiku sua eta biziarene arteko lotura (gegora dezagun Prometeo-ren mito). Egun eta geure artean asko da eguzkiaren bizurte osasungarrian sinesten duenik. Sarri entzuna dut, eguzkiak azala gortu egiten duela eta gero neguan hortz tikiagoa izaten dela.

Norbaitek farre eginen du, hondartzia «sakramento» toki dela esaten ba dut. Baina hala diot, eta ez zait neri hain farregarri iruditzen. Jakina da oloak erlijioan liturjiatan duan garrantzi apartekoa. Dela baitaio dela apaizgintza edo dela «Azken igurtzia» oloak birtute osagile eta aldatzaile bat du.

Begien bistan datza hondartzako olio eta olozko kremen igurtziak, ekite eta fina konkretuak dituela. Baina ez genezake ahatz Kulturaren historian zehar oloak duen sinbolismoa eta esanahi gordea. Bestalde, oloak zerikusit handia du gastronomia eta Levi-Strauss-i jarraituz hemendik ere ikuspegi daiteke ondartzaren mitologia. Baina beste-tzek beste, olio eta sua altxatuaz cero, hondartzak erlijio tankera bat hartzen du; eta beraz, zentzuna osarile eta aldatzaile bat ba du. Hondartzara doana, sendatzen doa. Eraz aldatzen. Eta eraz aldatze eta beritze horri politiko eta sozial deritzat. Ean dugunez hondartzaren beste alderdi nabarmen eta bereizgarri «jendetza» da, eta hemendik datorriko hondartzari bere esangura politiko.

Jendetza biltzen da hondartzan. Hondartzan hortzez gora datzanek, ez du agian aldameneko ezezagunaz hitz eginen, baina ezezagun eta jentestrano hoik lakat zaizkio, bere pasibo egotearen gordailu baiti.

sonak, Freud, Lacan, Hesnard, Coener, eta abar aztertut ondoren, beste hau idatzi du: «C'est en ce sens que l'on peut dire, sous forme d'un apparent paradoxe, que tout homme est «névrosé»; gizonak oro dira le neurotikoko. Gizonaren desegokitasuna, Freud-ek frogatu duenez, sortzezkoa da benetan, arras berezkoa eta oldezkoa. Eta Orainokoen galdeztan: «Zergatik berezkoa?».

Gizonaren muinaren muina, egiazki odolaren odola, sofrikarioa da, pairua, oinaiza. Eta, alderantziz, gizadiaren mitorik indartsuena eta iraunkorra, «beste mundu bat» sinistea: trazendentzia (= zeruan hil ondoren, hindutar nirvanan galduz); edo imantentzia (= geroan erreboluzio guzizko baten bidez, «Urre-Haro»-ko antzinate garbi ederrean, drogaran ametsetan). Denok ginake gauza bat airtortzeko gertu: mundu hau, bere horretan, ia-ia jasan-ezina iruditzen zaigula oinazte-kopuruz, doliorkeriaz eta absurdutasunez. Hots —dio Orainok— hori airtortu beharra «eskan-dalo hutsa» da; eta Biologiaren maila guziaz gaintzen ditu. Eskandalo hau ez du inoiz molekula bizidunen jakintzak argituko.

Gizonaren «pulsio»-rik sakonena —Freud-ek aurkitu— «berritatze-ko pulsioa» da. Alegia: gertaldi atsegina tema bihurtzea helburu gisa, eta behin eta berriz eta hil arte berritatu beharra. Berritatu-behar horren giltzarria, ordea, denboraren isuri etengabeak eta heriotzarantz goazen ikaspen izutu inkontzientziak sortua da: «Heriotzaren zorbio, heriotzaren ukera... Bizia isuriz joango ez balitz bezala bizitzeko eta izateko beharra. Hitzak kontuz neurtuz, hau esan ditek zehazki: denbora geldiarazteko beharrik eragiten gaitula; geldiarazpen hori, noski, berez kontradi-tzio huts eta ooki ezinezko izanagatik». Gizonaren larridura eta ezine-gona, hortaz, ORKURAZKOAK dira, IZATEZKOAK; ez inolaz ere politikoa.

Zer da, beraz, «zori» hitza (hasard, azar)? Ez tote da sustraian, galdeztan du Orainok, Jainkoari ematen zaion izen berria? Zeren-eta ulertzen ez duguna, misterio osoak eta sakonak, zientziatik aluzten dugun guziaz, «zori» ilun horren lepora botatzen baitugu, eta segidan eskusk garbitzen.

Eta galdera hauek, eta beste antiz, aidean utziz bukatzen da liburu. Eta, harra beti ari, Monod-en aitor hau entuzten bide dugu ge-re barruan gailen: «La vie est appa-re sur la terre: quelle était avant l'événement la probabilité qu'il en fût ainsi...? (Elle était quasi nulle...».

Mirari hutsean gaude, beraz; ez dago zalantzarik.

Baina, honetaz gero, irakurleak berak bi liburu horiek irakurtzea luke onena. Ez litzalioke damutuko, nik uste.

LARRESORO

Oraison eta Monod elkarriketan

Z. ARGIA honetanxe aipatu nuen Monod-en liburu orain dela zen-bait hilabete («Le Hasard et la Nécessité» delakoa). Trinkoago da-izian Nobel-Sariakide duen Jacob jakintsuaren «La Logique du Vivant» liburu. Baina, ageri denez, Monod-enak ekarri du arrabostik haundi-ena, eta mila saltzen ari da oraindik ere.

Marc Orainon psikiatra ezagunak liburuak bat atera du aste hau-tan: «Le Hasard et la Vie». Izen-puruz berak nabarmenkiro idarotitzen duenez, Monod-i errepikatu nahi izan dio Orainon-ek. Apalik egin du, umiltasun txologarrian, eta honek berak irakurgarriago egiten du liburu eta mailtagarriago idaz-lea; apalik idatziagatik ere. Orain-on-er arazoaz ez bait dira ber-tan-behera «rtekoak.

Monod-en tesi nagusia —irakur-lea oroitzen datekean— hau da: zoriak (zori = hasard, azar) sortu duela dena; eta gauzen agerera azaltzeko ez dagoela bestelako hipotesirik onhartu beharrik. Biologiako eboluzioari dagokionez be-reziki, hau dio frantses biologiarri apartak, mutazioa ZORIAK dakarre-la; ea, ekarri ondoren, finkatu e-giten dela betirako estruktura «muta-tua». Eta, hurrengo mutazio bat zo-riok berritoe eman arte, bere hor-retan emendatuko dela, eta ugala-duko, zelula edo bizidun berritua, belaunez belau beti ere bere bu-rua ugaltzeko BEHARRAK eraginda. Eboluzioa ez da, Monod-en ustez, belaunez belau ZEHAZKI KOPIA-ZTEKO gaitasunaren, mutatzailerak sartu duen etendura eta eskasia-ren ondorioa baizik. Den-dena, eta gizona horretara, ZORIAK ETA BEHARRAK sortu dukete itsu-itsuan.

Orain-on uestez gizonaren ka-koa ez da molekula bizidunen az-terketak erakutsi dezakeanik deus. Azterketa horretzen balio gaitza saritzeko eman zitzaion Nobel-Sa-ria Monodi; eta Orainon-ek ba da-ki, eta bihotzez mistrezen du ha-ren jakinduria. Orainon ez da bio-logiaren mailan mintzo. Dudarik ga-be —dio— gizonaren ezagugarri bat da buru-muinaren kirio-sistema-ren korapilotasun neurrigabea: bi-oi-ka (miloika miloitan, beraz) zen-batu behar bait dira gizonaren bu-ruko zelulak.

Hau gutziz harrigarri izanik ere (eta zori hutsaren frutu gisa, oso-ki mirakulu da) ez du Orainon-ek ueste gizonaren kafoa horretan ba-karrik datzenik; edo, bestela esa-tek, guri buruz eta aztertzaileari buruz psikologiaren materialko oin-harria zelula-ugaritasun horren bi-

dez agerturik ere, gizonaren kaka eta benetako misterioa at daude: «gizonak, bizidun denez, biologiatik at dagoen galdera bat dakar». Zertan? Oraison-ek ez du zalantza-rik egiten: zientziako antropologia, gizonaren benazko ezagura, Freud-ek zabaldu du. Gizona zer den eta gizonak funtsean zer nahi duen, Freud-en psikanalisiak erakatsi di-gu, eta Freud gabe ez dago gizona zite konprentzerik.

Hots —dio Orainok— Freudengandik ikasi ditugun gauzetatik bat hauxe da: tratamendu psikologiko huts batek, alegia, elkarriketa huts batek, psikanalisiaren harreman so-lak inolako pastilarik edo kimika-laguntzarik gabe, egiazko LEHER-TZAPEN bat sortzen duela erierean-gan «transfert» aren mementoan. Bene-benete: eriak leher egiten du barne-erlakitzen minbera, bere egia inkontzientea ulertzen. Nola azal ditek lehertzapen hori? Bildurra ere pasa ohi dute psikia-trak... «Comment du non-chimique —galdeztan du Orainok— provo-que les indiscutables réactions mi-crochimiques intracellulaires qui vont inscrire... les expériences vé-cues et leur résultat? Nola azal, alegia, kimikatik at jarraitzen eta obratzen den sendaketa batek, ki-mika-ondorio molekular horiek ze-lulen artera obratzea? Honek be-rak, eta beste zio batzuek, bultza-zen dituzte gaur zientzia-gizonak ENERGIATZ eta MATERIATZ gain ere, et ahortiera ezin bildua, beste hi-rugarren osakin funtsezko bat on-hartzera: «INFORMAZIOA». Alegia: taxupide eta antolakera hutsa den zerbit. Hein batez, etsenplu bat ematekotan, eraikituntza-obra bati buruz, ijeneruaren eta arkitetoea-ren proiektioa eta planoak direna.

Hau ez da dena, halere, Orain-on-uestez; ezta funtsezkoena ere. Orainon-ek gizona barnetik be-giratzeko nahi du, nitasunaren alder-ditik; eta, beriz ere, Freud-en era-kaskintzaz baliaturik egiten du. Gi-zonaren barne-kontrazio batzuk ai-patzen ditu, psikanalisia zertsu den dakitenezko ezagunak.

Eta, esate baterako, Lacan hitzez hitz kopiatuz, gizonaren nahikun-deekin gertatzen dena gogoratzen du: «gizonaren desira edo nahikun-dea beti egoten dela desiratzzen, lortzen eta obratzen duen guziaz bestalderra eta kanpo». Ez dugu inoiz asmatzen. Beti zen «besterik» biltzen genduen; beti esan deza-kegu: «ez da hau nik biltzen nue-na». Eta Unamuno-k beste bideta-tik abiatuturik esan bazuen: «el hom-bre es un animal enfermo»; Orai-

ra. Ondartzan pertsona, multzo tro-gaketa da. Inor ez da nobera, jen-detza baizik. Bata langile izanen da, merkataria besteak eta beste hura burgos. Baina denak nabasturik, be-reen larru aruntaz jantziarik «jende-tza» dira, masa bat osatzen dute.

Oporaldiak direla eta hondartzara doan gizon edo emakume, be-re lantokioa menpetasuna ahazturik, jendetza anonimo batetan margil-jenda da. Burgesa eta langilea ez dira nabarmetzen. Ugazaba eta proletaria batera dautza, honde-r berdinaren etzanik. Eguzkiaren suak eta hondarriaren epelak labe bat osatzen dute. Eta burri-olako labean bezala, hondartzan ere, oro berdin trokatzen da, gutzia zehetu, leun-du eta nabestu. Beraz, hondartzia klaseen uztatu du. Ez da hon-dartzan sozial gisako «mesberdinta-sunik nabari. Han suma daitezkeen berezkuendek biclovia edo fisico-giaren mailakoak dira. Bata argia, besteak itsusi eta liraina hurrengo-ga.

Hondartzan, gorputza da negusi. Gizartea eta bere desberdintasunak hondartzaren atarian gelditzen dira, jantzi eta poltsen gisara. Hondar-tza, gizartearen kontraesaneetatik at-ano. Hondartzia, zenbait erlijioetan dakusagun «toki sagaratu» antze-ko dugu. Hondartzia, eguneroko bi-zimoldeen ukazioa dugu.

Beraz, hondartzia geure gizarte aldrebes honen «sakramento» osagileto bat dugu. Eta sakramento gizonan hausnar daitezkean xeheta-sun berak aurki daitezke hondartzan ere: Garbiketa, sendatzea eta lehe-naren ukazioa. Horra egungo erlijio laikoaren azternetarik bat.

Hondartzia, moda soil bat dela esateari, oker deritzat. Noski, eta danok dakigu nolatan erromatarren atsoak larru zuria preziatzen zuten, eta etxetik irteazten, eguzki bola-raz, beren aurpegiak ohiak batez es-taltzen zituzten. Lehen azal zuria, orain berriz beztua. Modak ba du hor zerikusirik, baina moda ez ezik ba da beste zenbait kondizionamen-du egungo hondarretarako gutzia argitzen duenik. Hain zuzen ere, egun, eta gizarte desegoki honen aurrez pertsona bakarra zurtz eta biluzik gertatzen da. Gizona, bes-tene itzalean gorde beharrean da, jendetzaren pean biltzen da. Eta hau, gizona eta gizartearen arteko kontraesanaren ondorio dugu. Konsumozko gizarte honok nolabaitko «sozializazio» bat ekarri digu. Pertsona talde eta estadistika soil bi-hurtua dakusagu. Baina lehen ikus-mira batetan, sozializazio honek ja-torra badirudi ere, funtsean zinezko sozialismoaren ukazio dugu. Zeren gizonen elkargoa une, toki eta mo-da konkretu batzuri lotua agertzen zaiku konsumozko gizartea honetan. Baina funtsean eta nor beraren bar-ne muinean azalezko sozializazio hori, benetakoaren itxura arlotea baizik ez da. «Jendetzaren» bar-nean gorderik norberaren baldintzak ukatzen ditugu.

Agian, hondartzako sozialismoa, balizko amets baten inurria dugu. Eta jakina, uza sasoiari, hondartzan lortzen den gizarte leuna eta epela, klaserik gabekoa, nequak zapuzten du. Izan ere, opor aldi eta bakant-zatuko egun ezitien ugari dira amodioak eta ondorioak urri.

Orain artekoa irakurri ondoren norbaitek pentsa dezake, hondartzia begitan hartu dudala. Ala fede! ez zezakean norbait horrek okerrago pentsa. Jatorra, bidezkoa, zuzena, ongaria... hori gutzia eta gehiago deritzat hondartzari. Eta gainera nori ukatuko du, gizon nekaturren-tzat neskatza baten gorputz liraina eta haren bitxi gogoangarrien bila bezalako botikarik ez dela? Bagan bakarrik, eta ualditzaizaren mugan, hauxe esan nahi nion irakurleari hasera haseratik: «Agian, udako eguzkiaren argitan itxura alaiago ikusi duzu Euskal Herria. Behar ba-da pentsatua duzu Euskal Herria hondartzia bat dela, osatua eta pe-narik gabea. Baina aski duzu hon-dartzatik bi pausoz aldatzea, Eus-kal Herriaren aurpegi gaizto eta egoera tristeaz jabetzeko. Agian errealtatea litzalean datza. Han... eguzkirik ez den tokian. Nahiz eus-kaldunok bakantzak har, Euskal He-riak ez du oporrik.»

LUIS HARANBURU-ALTUNA



Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoi-ko Kaputinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1. Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42.66.66

ARPE SARIA:
Berruan 250 pezeta
Korreo batasun-tako errietan 300 pezeta
Atzerrietako bes-tu errietan 320 pezeta
Aldeaz Aurrez gal-detu

Salmetan (ale bakoitza) 6 pezeta

JOSE DE ARTECHE

Gaur, editorialtxo onen gainean jartzen dugu izen ezagun au. Lehen, artikuluko asanaren agertu izan zen gure Zeruko Argian; baiña, Jainkoak ala nahita, ofitean gehiago agertuko ez denez gero, orra guk gainean jarri. Eta bego, badagokio-ta Jexezanari eskual-letren goina.

Aren buru nekatuaren azken-agurra jaso duen maiak izketan baleki, esango luke zenbat ordu luze pasa zituen gure gizonak lan ixillean; baiña maia, Joxe zanaren lana bezin ixil geldituko da. Zertan itzegingo du, gainera? Gure idazleak ez du inoren itzen beharrik. Ez al daude or bere lanak etengabeko dehadarean, beren gurasoaren alde izketan?

Egun edo biar, Artetxeren lanak biltzen direnean, ikusiko du jendeak zenbat zor dion eskual-letren serbitzari aundi oni. Ta jendea arrituko du, ez lanaren aundiak bakarrik Arrituko du ere lanaren ederrak. Bai, arkaitetik arria ateratzea lana da noski, ta asko ateratzea lan aundia; baiña atera den arria lantze, ez da lan txikiagoa ta asko lantzea, lan aundia aundirik bada. Ta Joxe zanak biak egin zituen: Arria atera eta asko atera, arria landu eta asko landu eta ondo landu.

Ala ere, Joxeren lanak, arginairena baino gehiago, jardine-roarena iduri du, eskual-loreak eta landareak zaindu dituanarena; baiña eskual-loreetat arduratzean, ez du egin ezagunak direnekin bakarrik. Aiek ere zaindu ditu bai. Ta inoiz berri ere iduri zuten, Joxek eman zien eskual-musuz. Ori ere egia da. Baiña gure azpitarrak badu beste meritu bat: Txikiak aintzakotzat artea. Aren gerriak makurtu ez balira makurtu ziran bezala, gure errian etziran agertuko, gaur ikusten ditugun ainbat lore, beren txikiaren aundiz aundi.

Olakoxe gizona galdu du Euskalerrriak, 1971-garren iraillaren 23-an.

Artetxeren idazkiak agertu dira asko ta falta diranak ere agertuko dira, noski; baiña olako gizonen idazkiak ez-ezik, esanek ere gelditu behar lukete. Eta Zeruko Argiak badu bat askotan Joxeri entzuna: "Responsabilidade aundia daukate". Beude or, gure aldizkariarentzat ainbat aldiz esan zituen itz oiek ere.

Gogoan izango ditugu, Joxe.

Eta bukatzeko, olako gizon bat galtzen dugunean gure barnean sortzen den nahia: Lenbailen sortu bitez gure errian Joxe zana bezalako gizonen ordainak. Beharra badago.

Lantegitik

Langileak lantegitik

Dakusagunez, gure asterokoa, Zeruko Argia, bid' zabaletik dabilkigu, ez dago gai alderdi batzuri lotua. Herriaren izanik, herri-langileria dagozkion gaiak erabiltzeko ere prest gaukazute.

Langilearen biziaren gehienbat lantegian igarotzen dela esan genazek ezpahirik gabe. Sarritan ordu luzeetan lanean, zortzi orduko lan aldian ametsa hutsa da gehienentzat, joan etorriak, nekeak, kezak, atse-den girorik eta, jolas komertzializatuak, eta abar gure bizi eta izate osoa aidean dabilkite, kontrolik gabe, haize eragilearen esanetara dilindan...

Horregatik, ezerean eragozpenik ez bada, gure lantegi barruan sortzen zaizkigun kinka, haizi eta korapiloak erabiltzea gogozkoa izango zaigulakoan gaude. Lantegi barruko harremanak, kontratxoak, produktibitate sistema, arazoak erabiltzeko era, elkartasunik eza, tekniko eta ofizialista zenbaiten langile sailetik alden du nahia, orduz kanpoko lanak, erabakiak direla eta langileen egitekoa, promozio bideak, eta abar, ba dago gairik aztertu eta aurkezteko.

Hemen esandakoak ez dira lantegi konkretu batekoak izango, han eta hemen jasotakoaren agerpen bizi baina. Denon artean osatu behar dugun ataltxoa duzu hau. Handia da benetan gai honetan

zuen eginbidea: informazioa eskaini, gogozko zaizkizuen gaiak aipatu, lanak aztertu, kritika egin, lehen esan dugun legez eskual langileen ataltxoa izan dedila opa dugu.

Era berean, lantegiko zenbait gauza legez konkretua lotu beharra konkretuki sortzen den arazoa sistemaren fruitua dela ere gogoan hartuko dugu, izan ere zuhaitzaren ezaugarria dugu bere fruitua eta.

Lanak erraz, argi eta labor erabiltzen saiatuko gera, nahiz eta askotan gauzak bere luze-zabalean erabiltzerik ez izan. Ez dugu lan luze eta ulergaitzik egiteko asmorik, txoko hau ez dedila lantegia bezain aspergarria izan.

Hona hemen bada, langileak lantegitik mintzatuz osatuko duguna. Eragozpenak ez dira faltako, bertan esandakoak ez dira guztientzat gustagarri izanen, baina asmo onez, askatasunez eta egia-er esanetara jarriaz ekingo diogu.

Oraingoz, galdera bat baino ez dugu egingo: Zein dira lantegi barruan langile bezala osatzeko baduzkuzun eragozpenak? Zein problema nagusienak?

Ondorenean, bide zuzenetik ibil gaitzen zuten erantzuna beharrezko zaigu.

Mikel Ugaldé

KALEIDOSKOPIO

Gasze nintzelarik, neronek gerta-tu nuen behin kaleidoskopio kas-ku bat; eta ene eskolalide gu-ziek gasza bera egin zuten. Eta minutu asko pasa genduen bolara batez jostailua jiratu eta liluratu-rik, margoki aldakorrei begira. rain, neure haurrengan ikusten du-danez, teknokraziaren haroa da, eta saldu egiten dira kaleidoskopioak. Eta gaurko hauek dotoreago izan-nagatik ere, ez dakit esku egin-dako hain parekoak eto diren xar-mari dagokionez. Pinaoa jotzen, edo margotzen, duenak aisa uler-tuko nau: sortzearen atsegina es-kas.

Nork esango zidakean orduan ar-tikulu bat egingo nuela inoiz ka-leidoskopioen alde!

Baina, hala da. Gai honek, hain zuzen, artikulatu bat ez-baina sa-i-keru maridul bat ere mereziko lu-ke; eta agian egingo du.

Iruiditzen zaizanez, kaleidosko-pioa da giza-asamameneren irudirik egokiena. Etnologiaren aldetik hel-du den Levi Strauss-ek «la raison, cette bricoleuse» idatzia du: aleg-ia, euskeraz nolapait esateko, arazoimena, adimena, xintxuketari eta pitziarik, konpontzaile eta zah-har-berritzaile hori. Eta Henri La-borit-ek, neurofisiologiatik irixita, «le mélangeur» bataiatu du asma-menarik datxekon «cortex» buru-muin partea; hau da, nahaslea, nahasgua, zadoratzailea Lakoizketak esango lukean bezala esateko.

Gauza segurutzat ematen da, ikusten denez, gizonaren ahalmen nagusia ASAMAMENA dela: alegia, bizeran barrena bildutako esperien-tziak eta oroitzapenak librokoi elkar-tuz, antolatuz eta uztertuz, ideia BERRIAK sortzeko ahalmena. Sen-tiduz honetan, beraz, Artea da gi-zonaren ekitzarrik gizararen; eta gainerakoak, sortze-lana diren hein-ean dira gizarat. Ematen ditugun atseginarean aldetik ere gauza bera esan beharko genduke: sortze-lana ez besterik egiten dugula gogo-z.

Tresna zibernetikoez eta ordina-doreek gaur egiten ez dutena—eta itxura denez behin ere egingo ez dutena—hauxe da hain zuzen: pro-blema berriak ASMATZEA. Asma-tzea gizonari dagokio.

H. Laborit-ek azaltzen duenez, ideia berriak asmatzeko dohain bi-kain horrek, ocrtez delakoaren za-baltasunean («soberatasun»-ean edo «gehiegitasun»-ean hobeki litzake) datza. Geure muintetako parte bat ez dugu fisiologia-betebeharretan erabiltzen; ideia-apurrez eta oroi-tzapen-fitsez antolamendu eta uz-tarketa berriak asmatzeko balzik. Kaitasun hau ametsatzen ageri bide da agerierik. Kaleidoskopioa jira-tuz, kristal-pikoi koloretuaren anto-lamendu berritan, iduri berriak sor-tzen genduten bezalatsu. Alegia: «librokoi».

Gizonaren askatasunaren ideia zaharra («el hombre nace libre») gaur oso xahartuta dago. Ez po-litika-askatasuna ukatu nahi du-te-nen alderditi bakarrik. Beste as-katasun-mota ere (gizonak gizon gisa lukean barne-askatasunarena) oso jorratua eta desiluraturata dago. Kritika-lan hauetan batera joan di-ra funtsean Nietzsche-ren irui-zioak, Marx-en azterketak, Freud-eko erakaspak eta gaurko biolo-gio zibernetikoenak.

Denon ustez, beraz, gizonak oso mugatuta dauka bere aukararena. Gizona ez da libre, ez da bere buruaren jabe, ez da bere esku. Gizona oso baldintzatua sortzen eta mamitzen da.

Ba dago, alde batetik, gizar-te-baldintza edo soziedadearren mu-gaketa. Ez dago gaur dudarik ino-ntzako gizona bere gizar-te-giro-aren seme dela ia osoki. Hizkun-tzak ematen dio, batetik, giza-tasunarekin batera ia gututz baztertu ezinezko izango duen mundu-taxu-keru bat. «Batera» diogu, beraz, gizatasauna eta alienazioa. Zere-n-eta haur bas-ek edo «haur-otso»-ek erakutsi dutenez, aski baitu gizo-nak bere lehenengo zortzi urteak gizar-te-rik at pasatzea, gero ez min-tzarena ez gizatasauna bera inoiz lortzeko. Haur basak, giza-giro-rik ezean, haurtzaroko giza-inguramendu-rik ezean, gaidua duke betiariko bere gizatasauna bera. Angiro erak-utsi du gertaera ezagun honek haurtzaroko gizar-te-giroak gure bi-zierari buruz quen inportantzia ha-rrigarria; eta, bidenabar, gizar-te-diferentzietatik eta klase-banaketari dagokien hoben ezin astunagoa.

Gure herriko kultura osoak, bes-tetik, materiazkoa eta izpirituazkoa, maila berez batetan tinkatzen gau-tu, oro har, bai tresneriaz bai ideia-logiaz: Zeilan-en budista dir gah-ieniak, katoliko Euskal Herrian, bai-na «librokoi» omen... Erants gero horri giza-izpirituaren estruktura-lege hertsia: oposiziotaun pentsa-tzeko beharra, esate baterako.

Ez hori bakarrik ordea, ezen gi-zona eta gizar-te elkarren ukaera bait dira Freud-ek erakutsi duenez; eta zibilizazioa eta errepresioa, gi-zarte-biziera eta barne-itoketa berez baitoaz elkarrekin. Ba dago, hitz-batez, GIZARTEARI datxekon gi-zate-palpetak bat. Gizona ez da gizon bakaragoan; baina gizar-tea, gizo-naren ildetako joeren ukaizale edo mugatzaile den aldetik, alienazio-iturri ere ba da, eta berez da-iz-an. Gizona kateaturik sortzen da, eta kateaturik suntsituko da men-deen buruan.

Gizar-te-mugaketa larri hori ez da halere dena. BIOLOGIAREN ALDE-TIK datorrigun mugaketa edo bal-dinkera ez da gizar-te-bizierari da-gokiona baino makalagoa. Aski du irakurle jakinminak, esate batera-ko, H. Laborit-en «L'Aggressivité détournée» liburu miresgarria irak-urtzea; eta gizonarengan dauden hiru muin-motaren arteko loturek eta gorabeherek txundituta utziko dute eta Freud-en apartasunean inoiz baino sinistugatu utziko. Bi-ologiarean aldetik, geure gorputzaren fisiologia-baldintzen mendeko gara; eta, hein batez, mundua eta bizi-rea senditzeko eta hartzeko modua ez dira-izango guretzako librago edo geure eskuago, abere arkaikoek ber-reen senei segitzeko baino. Sauroi-garun bat daramagu denok bar-ruan; baina honen hizkera iluna hitzez eta argudioz jaxten dugu abilk.

«Il est difficile de croire que sous le voile de cette inconscience, UN SEUL ACTE LIBRE, une seule image librement construite, puissent prendre naissance», dio Laborit-ek. «Zer gelditzen zaigu hortaz?», galdetzen diogu ikaratirik geure buruari.

Bi gauza, nik uste laburki bu-katzeko; eta eskubide bat erakas-pen berri horiei ohore egiteko.

Lehenengoa, ideia guziekioko errepertuaren beharra. Ezen guga-n gehiena baldin badago mugaturik, inkontzientek eraginik, eta tokatu zaigun gizar-te-giroak kutsaturik, dena da errelatiboa, inor ez da «ob-jetibo», eta inork ez du beraz EGIA, lau letra nagusirekin. Gizonaren ideia «libroak» errelatiboa eta jopuago jo, eta beharrezkoago eta bidezkoago iruditzen zait ideien mailako askatasuna. Eta hau ez da ondorio txikia. Askatasun politikoa zientziatzako oinarritan eraiki dai-teke.

Eta bigarrena beste hau: kalei-doskopioa erabiltzeko eskubidea. Bai Freud-ek, bai Marcuse-k Freud-en bidetik, bai Laborit-ek, giza-asma-menean ikusi uste dute LOTUTA EZ DAGOEN GIZA-AHALMEN BA-KARRA. Berriz ere, beraz, ideia-askatasuna eskatu beharra dugu. Zientziaren izenean idatz dezakegu Laborit biologoaren hitzak kopiatuz: «Toute planification autoritaire, tout concept imposé par la force, ou par la création plus camoufflé des au-tomatismes, sont une atteinte portée aux possibilités ouvertes au progrès humain... LA DIVER-SITE est un besoin biologique fon-

LANALDI ERDIBITUAREN ERORKERA

Herruko kondentatuak bezala bizi baitziren, industriaren jaiotzetik langilleen eskaera larriena lanaldia denetara izan da. Ehun urte aspaldi iraro dira burruka latza asi zutela iru zortziak lortzeko: zortzi ordu lan, zortzi ordu lo, zortzi ordu asti, edo berregel eta zortzi orduko as-tea. Menae onen asieran erri guz-tiez onartu zuten lan-aste ori.

Legeak lege, azpilana azpiljan. Zortzi orduko lanaldia baino gehia-gorik eta luzeagorik egiten da ain-bat lekutan. Otarako aitzaiki apu-ko, sasi-arrazoi, inespilue eta ko-menientziak ez dira falta: presako pedidoak, ustegabeko esturak, lan-gilleen premiak. Nunahitika orau bereziak. Dudarik ez. Zortzi oru-ko beraz ez da errespetazen lan-tegi guztietan, ere gutxiago nazio denetan. Baiña aldi berriagun, au ere aundirik gabe, langillegoaren as-moak lan-orduen gutxitzeaz aurre-ra oaz, ekonomiarri behartuz zu-zentasun osoagoren billa. Lanmun-duan, erabat aituta, lanaldia labur-tzen ar da, lasi eta segur.

Amar urtealdi ontan Lanaren El-karte Internazionala (O.I.T.) arauak eta legeak emana da berregel orduko asteari begira. Estadu baz-kideei eskatu die abia ditezela zentzu ontan, eta nolabai dela ere lanaldia laburketak, koskak egite-ko lanaren emankortasuna jasot-zen den neurri berean.

Berregelita lau orduetako astea gero eta zabalduagoa dago erri orotan. Berregelkoaren otsak ere aditzen dira mail. Baita motzagoak ere, bakari bererik.

Ongi aztertzen bada, lanaldia-aren aldaketa klase bikoja da Lehenen-goa, ikusi duguna. Historian zahar, lanaldiak laburtzera jotzen du. Ama-sei, amalau, amabi, amar ordu. Zor-tzi, geroago, legez behinik behin. Eboluzio nabaria da. Bigarrena, u-rrekoak dakar. Lehen, ainbeste or-du sartu beharrekin, derrigorrez-koa gertatzen zen lanaldi erdibitu-a, alegia pusketa bitan burutua: erdia goizean eta beste erdia bazkalon-duan. Zortzi orduetik behar-koa de-nean, beriz, beste lanaldi moidea egin daiteke ta egiten da: Lanaldi jarraikia (edo jarraitua), asi eta bu-ka lantegitik irten gabe osatzen dena, goizean asiaz, erdi inguruan janadan-atse-den piska bat artu eta segi lanean denora konplutu arte. Lan-orduen urritzeak lanaldi erdi-bituaren erorkera eta lanaldi jarrai-kiaren etorkera ekarri ditu.

Neke da itzi gutxitan adierazten munduan nagusi den lanaldia Ala-baiña jar liteke U.S.A., U.R.S.S. eta Europa-ko Estadu lantegitsuenetan, batez beste, eta gehienbat, langi-leak zortziak aldean sartzen dire-la, eguerdian ordu erdiko atseдена egin eta lauterako-edo kanpao di-rela beren buruen jabe, nahien du-tena egiteko libre.

Duela urte batzuk arazo onek zuzperraldia izan zuten Madrid-eko egunkarietan. Asko itezgin zen. Za-reta batean ibilli zen jendea. Ge-hienak, alde. Gutxi, kontra. Lais-ter nekatu zirela ezik. Orduan isi-llak estali zuten dena. Azkenik, gauza lehenean, edo aldatuntza aundirik gabe, utzi zuten. «Statu gu-ko» berriro txapeldu. Gure ar-tean banketxe, aurrezki kutxa, ase-guro eta lantegi ofizialeen egiten da lanaldi jarraikia. Burdin eta me-tal-olatan, udalzik bakarrik.

Lanaldi gaitan gorabeherak izan-gu dira noski. Baiña bidea bistan dago.

Aurrerapenaren gupilla ez da orrenbestez geldituko.

I. Bujanda

damental. Il est donc nécessaire de laisser s'exprimer la diversité. Bestetasuna, multzotasuna, diferen-tzia mintzatzen utzi behar da.

Kaleidoskopioa jiratzeko eskubi-dea dugu, beraz, denetan sakratue-na. Eta lanez bestalderan agian ar-gi egiten lagun gaitzakean bakarra. Geure artean bederen errespeta-zen ikas dezagun.

Larresoro

ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoi-ko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1. Buri-lade-Pamplona).

Donostian: Okendo, 22
Tel. 42.66.66

ARPIDE SARIA:
BARRUAN 250 pezeta
Korreo batasun-eko errietan 300 pezeta
Atzerrietako bes-te errietan 320 pezeta
Aldez Aurrez gal-detu

Salmotan (ala bakortza) 6 pezeta

SINODOA

Ezin uka sinodoa dela munduko gaurko berrietan aipatuenetakoa bat. Aurretik Errialde eta eliz-barruti guztietan aztertutako gaiek ikusten eta sakontzen ari dira etengabe.

Lehenik munduaren egoerari gainbegiratu bat ematen ari dira. Munduaren aldatzea, munduan dauden bidegabekeria eta desberdintasunak, Munduak baztertuak dazkuzten jendetza. Batzuen jauntxokeria, Gehienak dadukaten morrontza lotsagarria. Ekonomi, kultura eta politika alderdietatik dauden zapalketak...

Mundu orren aurrean Elizak duen zereginia. Artu behar duen erabaki eta erantzukizuna. Aundizki, jauntxo eta dirudunen daduzkan loturak autsi-beharra. Premidunen aldeko jarrera. Gaurkotu beharrean sugarra...

Eta Elizaren eginkizun eta joera ortan apaizaren izaera, zereginia, bizitza...

Zerbaite gertatzen da apaiz-artean. Izan ere munduaren egoerak erasan dio apaizaren izaerari. Ba du munduaren egoerak apaizaren egoerarekin ikerkisia.

Mundua maiztazeak, mundu ori salbatu nahiak, mundu ori ezagutzera, mundu ortan sartuta bizitzera eragiten dio apaizari.

Apaizkeriak, apaiz-bizierak, apaiz-jantziak urrundu egin dute, berriaz, apaiza bizi behar lukean mundu ortatik.

Ortik beste edozein gizonetako bezala bizitzeko joera, jantzi, bizieraz eta loturaz, laneko, familiariko eta politikako eginkizunei ihes egin gabe.

Azpikoz gein jiratzten dio apaizen jokabide guzira pentsaera onak. Eta berealaxe datozki ondorioak bere bizitzera.

Noiz arte gure gortziak kortesetako aukilietan? Noiz arte militar izanaz soldatu arteko kapellauak? Noiz arte bete zedin dute konsejularitza izparringi eta sindikatuetako apaizak? Noiz arte istilik gizonen eta errien eskubideak zapalzen dituan Estatuaren aurrean? Galdetzen zuten Madriliko batzarrean gortzi-apaizak.

Noiz Elizaren ondasunak behartsuen eskuetan? Erriaren serbitzuan? Elizaren pitxi eder-baliotsuak, arrikio elizak, apaiz-etxeak, eliz-aretoak, ondasun guziki erriaren serbitzuan.

Au guzira esaten erraza da. Batetzen da zailla. Baiña or dago Elizaren oraingo joera. Or dago apaizen gogo bizia. Or dago kristuaren egarria.

Ez dira gortzietatik gaurera aldatzea auzkizko ikusiko. Politi-poliki egindako iban aldaketak ditugu. Baiña abiatu da eta ez du inori geldituko.

ZALANTZATAN DAGOEN APAIZ HORRI

Agur:

Elizak mundutar agertu nahi duen momentuan, apezagitegiak eta komentuak hustutzen ari dira. Horra hor dato bat. Igandearen mezataria joatea, baita herri txikietan ere, modaz pasatzen ari da; Garizman lehenago haragi-utzea modaz pasa den bezala. Gurasoekiko errespetu eta amodioa gainbehera doa; eta Europar zehar zaharrak ez dira etxan hiltzen, agure-etxeetan baizik. Mendetan zehar sexu-arazoetan gizarite-tabu izan diren erregelak, zaharrak izan eta erortzen ari dira; eta «bete hala izan dela» esateak ez du gaur egia bilzten, eta hitz eroso bat besterik ez da: arazo honetan benetako «débâcle» bat dago. Hamabi urtetako neska-mutirik argi-eta-garbi esaten dute Jainkorik ez dagoela; eta hamaize-hemezortzirekin (kasu bai geronon artean ere!) drogaran beharra nabatzen hasiko da laister, Ameriketako eta Europar bezala (Polonia barne!). Ez da ia inor aurkitzen bizitza honetan «bidenabar» gaudela zinki sinisten denik; eta inoiz Jainkori bakardadean oitotz egiten diotnik aurkitzeko, kandela bat ez litzake aski.

Kristau fedea atxikitzen duten fraileek eta sorrek ez dute abitua ikusi ere nahi; eta komentua utzi, ezkondu, eta kalean eta kaletan gizona eraman nahi dute Jesukristoren mezua. Dena omen dago gainditua, «superatua»; eta zutik ez bide da deusik ere geldituko. Zuk zerorrek ere dena utzi, eta mundutar saltsan abiatzeko asmoa izan duzu behin baino gehiagotan; eta libberoa ere aurki, itxura denez. «Apaiz berri» izan nahi duzu. Nork ez zintzuke ulertuko?

Maiia honetako krisirik inoiz ezagutu badu, ez du Elizak ezagutu aspaldi honetan horrelako gain-beharrak; eta agnostiko garenok errepata dezakegu hau Elizabarneko inork baino hobek, nik uste. Ez dago aitortzen honetan hiletatik jonteko gogorik batere. Krisia ez bait da instituzio-krisi huts bat, sinistun baikor batzuek sinistazari nahi lukeenaren kontra; Fede-krisi oso bat baizik. Ez da egia predikatze «modua» aldatu beharra dagoela, edo ebanjelio «gaurko» problema erabera azaldu behar dela, edo Eliza beste modu batera «antolatu» behar dela; eta, BERTERIK GABE, gauzak normal jarriko direla.

Krisia sakonago delako, bai instituzioak, bai moralak, bai dena, koloka daude gure begien aurrean. Eta zu zeu ere bildur zara oso; eta ez zinate gaur inolaz ere aurtuko, esate baterako, kalean zehar, are gutxiago gaitze-batzeratara, Asis-ko Frantses edo Arseko Apaizari buruzko liburu bat besapean daukazularik agertzera. Herabe zara kristau fedea, edo gelditzen zaizun azken apur hori, erakusteko. Defentsiban zaude osoki.

Soluzioa politikaren mailan aurkitu uste duzu. Egia esateko: joera hau konprenitzen dut. Ukatu ezina bait da Elizarekiko urrunera politikak-mailan sortua dela askotan. Mendi-gaineko sermoia gidarizatzen omen duen Eliza, indartsuen morroin agertu da eskuarki; eta indargabeen aldeko nahia, Elizaren kontrako iraultza bihurtzen da errazki. Zuk hau duzu gogoa, sentidu horretako taxa-pilo eskerra garbitzen lagundu nahi duzu, eta aisa ulertzen zait. Baina krisiaren soluzioa, sinistuta egon, ez da politika hutsaren mailako, «politikak»-mailan ondorioak izango baditu ere!

Kamaleoia bezala egitea erabaki bide duzu. Alegia: mundutarrak bezala jantzi, mundutarren kezak ez beste onhurtu, eta mundutarren nahiak, esperantzak eta helburu nagusiak (denak mundu honetarako) gisa denez) zeure egin. Hitz batez: «modan» jarri nahi duzu, edo jartzeko beheraz zaude. Asmo horretan abiatu, ez zara aurrerako beste munduaz mintzatu, mundu honetaz baizik; eta ez duzu gizonentzako zeruko loria bilatuko, lurreko zoriona baizik. Zure erlijio horretara politika iraultzaile bihurtuko da; eta zure predikua, mitin ezkerta. Indartsuen laudoriotan oratutako politika lotsagarria egin beharrean, beste muturrerara joango zara, baina politikaren mailan bat. Pilatos-en etxean enagenero bapo ataldu beharrean, Pilatos-en kontrako iraultza muntatu duzu. Eta ez da dudarik aldatunka horretan Kristo-gandik

bertago zaudela. Zeure kontzientziaren arabera jokatu duzu.

Nik neuk, era berean, neure barneak esaten didana esango dizut. Federik ez baduzu, Jesukristo gaxaren egilea dela eta hitz ondoren piztu dela sinisten ez baduzu, ongi egingo duzu molde hori hartuz; nahiz hobeki litzakean aurrerakoan Jesukristoren lekuko gisa ez gertzea. Kristau fedea baldin baduzu, berriz, mundutar moda horietara egokitu zaizki egingo duzu.

Laister Ameriketara joango den emakume gazte bat ezagutu dut berriki Segurantzia haundiaz eta txit sutsu mintzatu zait kontsumo-gizarte nazkagarri honen kontra; baita 1968-ko Maiatzean izan zuten itxaropen liluragarria. Ondoko gertakari hitsek, ordea, ilundu egin zuten, etsiarazi, eta betirako maratu. Partidu «guziek» saldu zuten iraultza orain dela hiruro urteko aste gogoangarri haietan, eta denak zaku berean sartu beharra dago. Gutziz gogaituta, ameriketar talde iraultzaile batetara biltzea erabaki du senararekin eta haurrearekin; iraultza USA-n gertatuko bait da aurrenik.

Zein iraultza mintzo da? Bi puntu nagusitara bil daiteke, ene ustez, emakume honen helburua: 1) gaurko gizartearen ez dago «matasunik», zion ermuiki; 2) gaurko gizartearen dena da «zikoizkeria» eta «txatxukeria». Mundu berri bat behar da, EGIAK argitua eta MAITASUNAK oratua. Helburu honi inisitu «guziek» egin diote uko. Gizarte osoa dago ustelduta, eta organizazioak «oro», baita ezker-tar izenekoak ere, zeharo ondortuta-zion. Ihes egin behar da Frantziatik, ihes Europa osotik, ihes kontsumo-gizartetik, ihes orain arteko sasi-profeta guzietan Nora ihes?

Aspaldian hau zitzakean erantzuna: «basamortura». Gaur ez: «Ameriketara», esan zuten ene lagunak. Nahikunde metafisiko bati, erantzun politikoa bat eman dio, erantzun alienatu bat beraz. Ameriketara-zion; Erresuma Elkartuetara hain zion; euskaldun zaharrek bezala esateko, «araina burutik uestelzen hasten delako», eta kontsumo-gizarte honen burua USA delako.

Emakume horren desirerata eta etsipenetan ez dakusat sendimendu nahasirik edo funsgaririk. Begian somatu dudana iraultza-garra fina da; USA-ko arrazakeria eta beltzen zoritxarra kondenatzeko erabilien dituen hitzak, bidezko zaitkit oso; G. Jackson-en gartzelaldetik ezin lotsagarriago eta heriotza bitxia gaitzesteko, edozein gizon prestuk erabiliko litzukean hitzak eta arrazoinak aurkitu zituz; gidari harturik dituenak (Sartre, Angela Davis, Che Guevara, Jackson berea) gizon bikainak dira. Emakume hau, zinez, justizia-egarririk itota dago; egiazki dio kontsumo-gizarte delako hau uzkaliti eta ankar gora bota behar dela.

Jende askoren atzerpidea, irudizten zaidanez, eta gazte prestu fin askorena bereziki, horixe litzake gutxi gora-behera; eta gure artean molde honetako pentsakera gaur lehen baino zabalago izatea, oso, seriotan hartu behar da, altxor bikain bat delako gure gerorako.

Kontsumo-gizartearen GORAGALEA, eta berean nagusi eta jabe diren zapaltzaileekiko GORROTOA, ez dira sendimendu berri bat; eta zuk, apaiza izanik, ba dakizu Jesukristok MADARIKATU egin zituelako bai aberatsak bai farre-egiten dutenak. Baina horiek gaur, nik uste, sendimendu zabalago, egiazkoago eta hedatuago dira. Etsipen etsiaren zabalakunde bildurgarriak ez du, erroan, besterik erakusten; ego hitu egin bide gara lohago kirats honetan, baina gure begien aurrean mamitzen ari den mundu-mota bizi ezina da bere horretan.

Araego ere bai: ezagutu dudana emakume horrengan; eta politikaz etsi, beren ezintasunaz jabetu, eta drogatzen hasten direnengan, akulura berbera bide da eragile: kontsumo-gizarte honi ihes egin nahi, baina ezin egitea. Hippy delakoek eta USA-ko ezker berriak elkarrekin lotura izatea, normala irudizten zait; hauek eta haiek mundu hau gaititu nahi duten gizakumeak dira, eta sentidu horretan ezkerta. Besteak, mundua bere horretan baliatu eta uxtiatu nahi dutenak, eskuindarrak, pozik bizi dira kontsumo-gizartearen; eta ihes egin beharrik ez dute senditzen.

Hots, zein da gaurko gizaideren ihesi-nahieren kaka? Hemen, iru-

ditzen zaidanez, batera letozke psikologoak eta soziologoak, literatura-joeren aztertzailak eta zu zerrori ere; ez datza kaka mekani-zazio edo automatizazio bertan, ez teknikaren aurrerapenetan, ez baserria eta mendia utzi-beharrean, ez gizartearen hirunkiztan, ez klase-banaketan eta ekonomid-berdintasun lotsagarrietan beretan. Kaka hizierari SENTIDURIK EZIN AURKITZEAN DATZA.

Max Weber-ek bezala esateko, mundua «desliliturata» gelditu zaigu, «désenchante», «desencantado». Kritikamena zait egia du mundua erantzit, kamustu, itsutsu, liluragabetu. Eta haragia zeharo larritu ondoren, zehar iharrak azaldu zaizkigu gorri-gorri; eta kosmon arrotzak garea ulertu dugu. Ikaspen honek areago uxatu gaitu naturalizatit, dirudienez, lehenagoko hoineko eta estalki koloretako eta gurtzutatutako haiek baino... Bizieraren sentidu emateko balio ez duen egia, Egia ez bait litzan...

Sexotasunari buruz gertatu den irudizten zait gizarte-eboluzioaren eredu on bat: sexu-gorabeheren misterioa eta izkutuak kendu ala (eta erantzuta fenomenoaren neurria da) egoera «kartu egin da; eta sexoiari buruzko liberazioak ugaldu egin du neurotikoen armada, antibiotikoen minbizidunen ostea ugaltu duen bezalaxe. Giza-sexotasuna, bestalde, kontsumo-gai bihurtuz, glandula-mekanika axaleko bilakatu da; eta urrats honi daxeon deslilitura, barne-hutsunea jarraitu zaio Sexo-liberazioa deritzanak, horretara, agertu egin du gize-egariaren bestetasun funtsezkoa, eta ez ematu. Tabuaren zapalkerari, taburik ezaren desepeserantz nagusitu zaio; eta lilura debekatu urrurari, deslilitura gogaikarri ezin hurbilago. Sexotasunean funtsetan zen guzira, eta arimaren elikatzaila ziren iturri freskoak, idortu egin dira.

Arrabotsa eta zalaparta gero eta beharago zaizkio horrela gizon modernuari.

Ba dirudi, hitz batez, gaurko deslilitura oso horrek bi arpegi duela: bata misterioaren suitsiera, bestea hizieraren sentidurik eza.

Hots, batetik misterioaren funtsaturiki eman behar da munduaren azalpena, gauza nabarmena bait da mundua OSOKI dela misterio hutsa. Iritzi hau batzutan inkontzientzia izanagaitik ere, muinetan beretan litzaririk darama gizonak: astrologiaren eta «Planeta»-ren arrakastak lekuko.

Eta, bestetik, misterio horretan oraturik, gizonak helburu edar zabal bat behar du gidari, Absolutu bat, eta honen arabera bizierari sentidu bat eman.

Itzul gaitzen, beraz, orain gure asmorara.

Zuk, adiskide ezezagun horrek, mezu bat dakaruz; eta mezu horretan misterioa eta bizieraren sentidua diragoinharri. Gaiari dagokionez, beraz, seguru egon zait: gizonak behar duen HIZKUNTZAZ mintzo zara misterio eta sentidu horietaz mintzo zaren guztietan. Eta alderantziz, misterioa eta bizieraren azken azalpena alde batera utziko dituzun neurrian, gizonak behar duen hizkuntzatik urrunduko zara.

Pilatos-en alde jokatzek ez du baztoririk. Hau garbi da. Baina Pilatos-en kontra, eta Pilatos-en mailan kontra, jokatzek ez da aski besterik gabe, trazendentzia-mezu orokor berezi baten ondorio ez bada. Pilatos ez da ebanjelioaren arazo; eta Pilatos-en defentsa, noski, are gutxiago. Beste modu batera esateko: mundutar moldera aldatu ala, zure mezuaren balioa galduko da; eta «ulergarriago» edo «baliagarriago» egin ala, ezabatu egingo da trazendentzia-mezu gisa.

Ez da egia zure mezu funtsean moral-mezu huts baten mezu denik: estoikoen moralak ez dio zorrik kristaueneri gogorrez, ez zortzez. Zure mezuaren indarra honetan datza nik uste: gizonak berne-muinetan ENTZUN NAHI duen hizkuntza dela.

«Apezgaitegiak eta komentuak hustutzen ari dira» esanez hasi dut artikulua. Baina hau erants liteke ene ustez: apaizak mundutarrago, eta elizak hutsago. Horretan kausa ondorio bikotea ikusi uste dut.

Mintza zaitetz zeure mintzairan, eta entzuleak ez zaizkizu faltako; Absolutu-egarria ez bait da gaur inoiz baino apalagoa.

Izan zazu, hitz batez, mundutar hizkuntzetatik entzurgarri egiteko kura. Izan zaitetz ulertu-ezina.

Ala konkordismo utz, eta uztauz dena.

Bihotzez agur t'erd. Larresoro

ZELAN OSPE IZAN UNAMUNO'REN ANTZEKO

Estyll T. Lawrence, galestarrek. «Cuadernos para el Diálogo» deritxon aldizkaria. XXVI Aparteko zenbakian, oso lan interesari bat idatzi dau.

Gaia, Unamunoren «euskaltzaletasuna».

Bertan, aren euskal Kontrakeri gorrotodunen sustraia aztertzen dauz. Luze izan arren zati batzuk aipatuko doguz:

«...batzuk, urre ingelestauetan (galestarra dala esan dogu) euren umetan galesera ez eben ezagutuko. Eta zaartzaroen, euren indarren gain egonik, premiña asko diran aalegiñak larregi dira eurentzako —oztopo eta eragozpen ainebestekin batez be— galesera, euskeria bezala, izkuntzarik gaxxenarikoa da ba ikasteko (olan diño...). Emendik etorri leike azken ondorio au: euren asaben izkuntzaganako minberatasun bizi eta aitortu bakoa, eta bear bada, ezkutuko gorroto bat; guzti au, sendimendu gogor batez, zalantzaz eta beldurrez, edo eruz eta konfusioz beteta, naaturik. Gogo oker nek min emoten deutse. Izkuntzaganako obligazioña ta buruaste danak utzirik, maite ezin dabn —edo maite gura izan ez dabn— izkuntzaren eriotz-arte eldu gurako leukie sarritan».

«Euren asaben izketeren zintzotasun ukatua, ezerezen uzten dabn benetako guraso ilketa batek, sortzen da benetan, alde batetik barruko erriren sendimendu astuna, eta bestaldetik anibalantzi zalantzatu bat».

«Erri txikietako izkuntzaren idazlariak, euren literatura aundi-nai ta euren ospetsua, sarritan aloratu dabn erriaren onagaitik; euren izatearen alde erri txikiak darabilen burruka gorrak, eskatzen dabn oan bearrak, laburtu egin dabn idazlari onena, askotan erriaren onagaitik: orrenbeste egiteko gura ez zan Unamuno».

«...Bere kondairan zoritzarrezko dan eta etorkizun illunen dabn aberri bateko gizona, bere erriaganako zintzotasun burukoapentsu ta ekinzaillea, albo batera utzea, eta zapaltzaile dan aberriaren izkuntza oso-ospirik beretzat onartu ezkeru, joan lei xinpikeri gurari batera, berak ezetsitzen dabn izkuntzaren ilketa gurari agirik edo ixilpekora: olako gizonaren urteara, eta

jokabideak, era askotakoak izan leiz ba».

Azterketa onen ondorio inportante bat, Unamunoren jokabidea aditzera emotea da. Peninsulako izkuntz guztiak zapaltzea, portugalesa berer bai, ta espainiera, jakina, ez ezik; gizon «orokor», «unibersalista» onen jokabidea dala ikusten doguz.

Eta gelago ondiño: Gizartero artu-emon guztiak, «euren izatearen alde erri txikiak darabilen burruka gorrer» azalpenak dira, nai ta nai ez, eta albo guztietan Unamunoren antzeko jokoak aurkitzen doguz.

Benetan, onelakoxe jokabide ain argi ta garbier, Euskal Erriaren kontzientziak ta aren nortasun irauntzeko naiak, atek itxi deutseiz. Beraz, batzuekan, Euskal Erriaren alde interes faltso baten mendeen, joko berbera ikusten dogu. Olan, erria konfusioz bete dabe, gure indar makalak sakabanatzen dabez, eta itz batean azpilan doillor eta kaltegarria egiten deutseku. Gure izkuntzaganako idatzi anarkia, ikastolekako erlejiño arazo, gure arlo edo prolema aundienak izango bai lirakean legez onartuz, abibide bat da. Eta ortaz, gure benetako arloak ezagutu barik eta erantzubide barik doguzala, leendabiziko ondorioak dira. Esate baterako, egiazko Euskal Erriaren eta euskal-langilleen zapalketa, uts andi, euskeraren atzerakuntza geldi-arazotea, ikastolekako diru-larriak eta zabalpena erabakitzea, tab., bat.

Jokabide onekin, bakar-bakarrik lortu nai dabe «ezetsitzen dabnaren... ilketa» —nai ta nai ez— esatera zaarrak diñon legez:

«Nor nor dan Mariñasi ezautuko dona: emonetatik zugatza, egiñetatik gizona».

Edo beste era batera esateko: daukagun burruka gogorra Euskal Erriaren alde utzi.

Jokabide onari esker, Unamuno ospetsua egin zan, eta esan degun jokabidea, berbera da. Ospetsua bai, aren aberria gaitzetsi eban arren.

Eliz - elkarteen eriotza

Eriotzaren illunabarrean arkitzen dira eliz-elkarteak, non eta lehendik il eta oibiritatu ez dauden. Non dira gure Luistar eta Mariaren alabak? Non gazte betetako goizeko meza aiek?

Ez lehendakari, ez diruzain, ez idazkari, ez apaiz, ez araudi eta ez jende gelditu dira.

Zorionez edo zoritzarrez illak ditugu. Requiescant in pace. Iltzera doa lurraldi, erriaren mugei, loturik dagoen parroki-erakundearekin. Erri barruan, lur jakin batzuen itxituran, egin ohi zan lehen bitzita. Lur oien erdian elizak, Jainko erri orren etxea, zutik, aldi beran erriar eta elizari ziran bizilagunak zaintzen.

Guzien buru, gidari, maixu eta artzai apaiza...

Il ez badira ere azkenetan daude era ontako elkarte eta erakundeak. Ez gaitzen, beraz, biziazen erio eriotzaren bizi illa alferrik lutzaten jardun. Jo dezagun bide berrietara.

Batzuen eriotzak beste batzuen jaitzak dakar. Elkarteen eriotzak "oinarriko taldeen" jaitzak.

Atera gaitzen behingoz legetatik. Sar gaitzen bizi betearen askatasunean. Ortarako Ebanjelioa benetan bizi duten taldeak sortzen eta ugartzen lan egin behar dugu. Komunitate txikien garaia eldu da berriro.

Talde oien iraupenak ez du legearen indarrak izan behar. Ez dute kanpoko babesa eta eusgarria billatu behar.

Talde oiek bizi egin behar dute. Biziak irauarazi, biziak elkararazi, biziak mugiarazi, biziak idartu...

Eta parrokiak ere ez du lurraun mugei lotua egon behar. Talde oien biziari eta elkarren arteko artumanei baizik. Talde oien lokarri, talde oien xurpertzaille...

Jakina talde oietako bakoitzak gizogintzan eta errigintzan sartua egon behar luke bakoitzari dagokion maillan, neurrian, giroan, eran... Besteren arazoetara zabaliki, kezkatuak...

Ez lirake elizkizun utserako bilduko, ototzerako bakarrik soilki. Ori guzia mundugintza jator baterako indar eta bide izango lukete. Ori bai, mundugintza ortan ez daudela bakarrik, Jainkoa ere tartean ari dela sinesteko dute.

Gizonen eta errien askatzaile den Jainkoa ere beroiekin batera lanean ari dela aitortuko eta usteko dute. Eta ain zuzen kristau-talde oietan siniesmen eta itzaropen oiek bazkatu eta xurpertzuko dituzte.

Gaur gaurkoz bide ortatik sumatu beharoko ditugu Eliz berria eta kristaukera berria. Bestela il behar duen zerbaiti bizirik eutsi nahian nekazten, erneatzen eta erretzen ari gera.

Oñez ez dakian aurtxo bat jaitzen ari da Elizan "oinarriko kristau taldeak". Zaitu dezagun, kozkortu, indartu...

Lehengoa badijoala, negarrez, jardunarekin ez dugu ezer egin. Asi gaitzen gaurko munduari eta gaurko giroari erantzongo dion zerbait billatzen.

Bide berriak urratzeko argi-billa dabilen Sinodoa ez dedilla bertan behera itzali. Azpitik, oinarririk lanean ez bagera ari Sinodoko jardunak atariko aize burruna besterik ez dira gertatuko. Euskalerriko Elizak ilda edo geldirik dagoela beintzat dirudi. Irteerik gabeko zuloan sartuta.

LIBURU BAT GALES-I BURUZ

Inglesez dakiten euskaltzaleei liburu bat gomendatu nahi nieke bihotzez: Ned Thomas-ek argitaratu berri duen «The Welsh Extremist» deritzana (Ed. Victor Gollancz, London, 1971). «Euskeromano» on kontraintzateko gorrotoaren ledearen ezkerkoiz batzuek, liburu hau irakurrita ezin garrakiziago sufrituko lukete; argi-eta-garbi agertzen bait zaio irakurleari guk «euskero-mano» ok ditugun «setak», «temak» eta «racismoak»; eta berek duten sasi abstrazioa eta urrundu nahia, ez direla gaurko Europan... eguneroko oia besterik! Irain dela 50 urtekoan eguneroko oia izan ziren bezalaxe!

Galestar sozialista guztiak bat da Ned Thomas: 35 urte. URSS-en bizi izana, berriki Gales-a bihurtua, bere herriko pizkundearen orain dela oso gutxi abiatu da: hiru urtez gerotzik ez besterik.

Galestarrak (Kymri-tarrak esanez atseginaingo izango gatzakie, «Wales» hitza, inglesa denez, arrotz bait zaie) bi miloi eta erdi lagun dira; eta Bretaña Nagusiko Mendebalean bizi dira, Irlandarekiko aurrez aurre. Bi miloi t'erdii horietatik, 650.000 dakite gaur kymri-eraz. Orain dela 50 urteko estatistiketan ageri zenez, 1921ean 930.000 lagun mintza zitezkeen kymri-eraz. Hizkuntza, beraz, atzera ari da aspaldidanik: 50 urtetan % 30 galdu. Inglesa da lege-hizkuntza bakarra 1536 ez gerotzik. Hiriak ditu galduenik; Cardiff, esate baterako, ikatzaren kaia 275.000 biztanle, osoki dago ingletzarrekin; eta Swansea-n, 160.000 biztanle, 25.000 inguru kymri-dun aurki daitekeala dio Thomas-ek: hau da, seirentsu bat. Herri txikietan eta nekazarien barrutietan proportzioa haundiagoa da. Kondairan lehenengo aldiz, Gales-ko abertzaleek ba dute gaur deputatu bat Londres-en (bakarra, dena dela, beste 35 galestar deputaturen aurrean).

Emigrazio-herrialde bat da Gales, ikatz-eskualdeetatik at batez ere. Ned Thomas-ek dionez, urtero 10.000 lan-postu galtzen dira.

Galestar sendimenduaren azkartzea, eta Londresen kontrako joera, biak batera jakina, XIX mendean sortu ziren. Ehun urte haietan, 8.425 liburu argitaratu ziren kymri-eraz (alegia, 84 liburu urteal, batez beste); eta gaur 150 liburu agertzen dira urtero. Euskal Herrian baino aisa gehiago, beraz.

Hizkuntzaren gainbehera ez da gelditu, halere.

Eskoletako paretetan hau irakurri izan da «eskuarki»: «Welsh Not» (alegia: kymri-erarik ez). Eta gure arteko eratzunaren zigorra, zurezko kolarearena bihurtu zen Gales-en: zurezko kutunaren kolareara zeukan haurrak, kymri-eraz hitz egiten entzuten zuten beste haur bati pasa zizalokean eta honek berebat beste bati, eta abar; eta horretara, azkenekoz kolare hura zerman haurra, makilatu egiten zuten eskolako maisuak. Jokabide «demokratikoa» omen. Gertakari hauek «fazismoa» ren bidez azaldu uste dituzten ezkerko erderomano horiek zer dioten jakin nahi nuke; Londresen, nik dakidenez, ez bait da inoiz «fazismo» rik izan; Ezta kapitalismo haundirik ere 1536-an.

Baina izokiak errekan eta uxolean gora bezala, galestar pizkundera ere kontrakarrean ari da, baina gora;

eta Kymri-erarekiko gogoia poliki-poliki zabaltzen hasi da Gales-en. Ez berri xehean oraindik, hau eskolaren, ustekerian eta mass-media mota guien jzopua delako. Baina bai ikasleen artean eta galestar ikasien artean. Ingles sozialistak, galestar mugimenduan ezar funtsezkorik ezin atxemanik, atzera doaz gaur baita ikatzaren eskualdeetan ere; eta hauetan bereantzen, aldiz, galestar abertzaleak aurrer. Gales-ko Labour Party-koek «fazismoa» eta «atzerakeria» salatzeko dute abertzaleengan. Galestarrak, ordea, ez dira gaur eskuindarrak. Dinamika dakarren gazteriak, horretara, hautakizun bakar bat dauka begien aurrean: abertzale eta sozialista-berri izan; ala ingles imperialista eta paleo-sozialista. Eskuindar kilikaldirik ez dator-eta gaur. Gales-ko abertzale gazteak, hortaz, askoz hobeki moldatzen dira «New Left» delakoarekin (Ezker Berria-rekin), Labour Party-ko «aparatchiki» ekin baino. Hauek getu daude (eta ez beti!) Naga-tarren edo Uzbek-tarren alde mintzatzeko, urrungo aferak direlako hain zuzen; baina bertako galestarren kontra mintzatzekoan, ez dute aski hitz gogorrik eta bortizirik aurkitzen hiztegiari!

Hizkuntzaren garrantzia jabetzen hasiak dira gazteak; eta hauen izenean lerro hauek idatzi ditu Ned Thomas-ek: «It is a revolutionary act to revive the Welsh language in Wales».

Zein hizkelgi edo dialektoz mintza, ordea? Ezen han ere Kymri-erari anitz hizkeratan zatiturik baitago: «mila pasadizu entzun daiteke han eta hemen —dio Thomas-ek— Iparraldeko eta Hegoaldeko galestarrek, ezin elkar ulerturik, inglesera jotzera behartuak». Eta abar. Teknikari buruz, eta tresna eta ideia berriei buruz ere berean, kymri-dunak ez daki askotan nola ekan esateko. Eta, alderantziz, hizkuntzak bide seguru bat eman lizalokean puntuetan, eskolarik ea dela-ta, alantzen egon ohi da hiztuna den herri xehea, ideiak ingleseraz taituzten, prestatzen eta azaltzen irakatsi zaiolako.

Denen kontra jokatuz, beraz, kymri-erari oraindik bizirik dagoen herrialdeetan, zenbait ikastola sortu da kymri-eraz. Bigarren erakintza-mailan, berriz, lau lizeo daude gaur: bi Glamorganshire-n, eta beste bi Flintshire-n; eta hauetan kymri-erari mintzabide eta ikas-tresna izan dedin saiatzen ari dira «ahalik eta gehienik» («children are taught mainly through the medium of Welsh» dio Thomas-ek).

Hizkuntza galduago dago Hegoaldeko ikatz-mien lurraldeetan, barrieretan baino, jakina. Baina abertzale pizkunderak, hastapenean hizkuntza bizirik dirauen herri txikietan ez besteetan hoziturik, gaur itsatsi egin du Gales gudan; eta Hegoaldean ere Iparraldean hainbatsu abertzale aurki daiteke, Thomas-ek dionez eta hizkuntzaren ikasleen artean «kymri-dun-berri» rik ez gutxi.

Ned Thomas-ek dionez, Bretaña Nagusiko sistemaren barruan Gales-entzako irtenbiderik ez dagoela uste du gaur gazte askok; eta «Piajd Cymru» alderdi zaharra (alegia adinetako abertzaleen partidua) gero eta ausarkiago maiseatzen dute. Gazteen artean, beti Thomasen ustez, bi joera daude gaur: batalk, dio, Gales-ko Armada izkutuaren

inguruak bereziki, indarka eta bortxaz nahi du jokatuz; eta besteak (eta Ned Thomas-ek berak ere bai itxura denez) Gandhi-ren bide-tiki jokatzea nahiago luke. Baina batalk eta besteak Londresko Parlamentotik at, eta legetasunaren jokitik at, ikusten dute bidea; eta, honengatik, Plaid Cymru-ren aurka daude; eta honen legetasun nahia eta sistema-barne-nahia kondengarri eta denbora galtze hutsa iruditzen zaie. Eta Thomas-ek berak azaltzen: «Egia esan, Gales-ek berak zaizkion lege laguntzak, bai Konstituzioaz bai hizkuntzari dagokionez, ugariago lortu dira bonbak eta istilua gertatu direnean, inoiz baino».

Alderantziz, Piajd Cymru-koek «Free Welsh Army» delakoak osoki kondentatzen ditu, eta erotzat hartzen. Gales-ko abertzale gogorrenak, horretara, kontra dituzte bai Plaid Cymru-ko legezaleak bai Londresko aparatoa. Biak ados dira gazteen jokabideak zapuzteko.

Bortxaren aldekoak hasiak dira organizatzen; eta bortxa giroa 1969 an sortu zen lehenengo aldiz. Urte hartan, Londresko gobernuaren batimenduan (Abergele herrikoan, Iparraldean) jari behar zuten bonba eskuetan lehorturik, bi abertzale gazte hil ziren, martirien lerroak hitsaren «bi lehenengo izenak» idatzi, Thomas-en hitzez esateko. 1969-ko udara hartzen berean, Gales-ko Armada izkutuaren kontrako hauzia izan zen Swansea. Hauziaren erdian etadura bat gertatu zen, entzule zegoen jendea zutitu egin zen bapatean, eta hauzitara eramandakoekin batera kantatu zuten berotasun harriarrian Gales Askatuaren himnoa. Londresek garbiki ulertu zuten (nahiz aitortu ez badu ere) FWA-ren ekintza gogorra ez dutela galestar guzietz gaitzesten.

Gwenallt idazlearen biziera eta gorabeherak ikusita, ezinezko izan izan zait Rikardo Arregiz ez oroliteza.

Beste mila xehetasunetan gogoeta-iturri bilkan aurkitu dut neurtzako; eta irakurleak ere aurkitu egingo luke, ene ustez.

Oso jakingarriak, beraz, Ned Thomas-ek Gales-ko «neurosis» ezagunaz (hitz hau berean erabiltzen ez da herabe Thomas, eta lasai erabiltzen du), ematen dituen berriak. Batzutan guretzako propio idatzita dirudite.

LARRESORO

MALTHUS

Luzaroen malthusianismo itza jaitzari buruz bakarrak erabili ohi zuten. Orain zentzu zabalagoa aritu du, eta berdin aipatzen da beste arazo askotarako: janarigintzako malthusianismoa, lantegietako malthusianismoa, kultura-malthusianismoa. Norbaitetik edo zerbaitetik egin, emsan, sor lezakeena, ala nahi-ta urritzeari, gutxitzeari malthusianismo esaten diogu.

XVIII garien mendeko azken aldean Malthus-ek aztertu zituen orduko lan-gabetasuna, asarre-giroa ta ongi-eza izugarria. Eta bere azterketaren fruitua liburu bat izan zen, «Giza-jendeketari buruzko saloa». Artan Malthus-ek zion lurreko bizilagunak geometria-eraz ugartzen direla: 1, 2, 4, 8, 16, 32, aldi bakoitzean aurrekoaren doblesa egiteaz. Janariak edo ogibideak, berriz, aritmetika-eraz ugaltzen direla: 1, 2, 3, 4, 5, 6, aldi bakoitzean bateko bat erantsiaz. Au da bere lege famatua. Ola noski, gosea, miseria eta eriotza zuzen-zuzen zetozen mundu ontara. Beraz, jaitzoi-etsiak jarri behar zitzaizkien. Jaitzak urritu, au zen legeak agintzen zuena.

Liburu orri esker bazter guztietako aundietiki kontzientziako pisua biziki arindu zitzaizen. Berak ez zuten ezeren kulparik. Gosea lege bat zen, lege naturala, ekonomia-ren lege mardulena, ezin atzizkoa. Lege sermoigillia, gaingera. Sermoigillia behetoez. Erru osca lan-gilliena zen alegia, orri argi zegoen. «Familia ugariako guraso oiek —zion Malthus-ek— ez dute laguntzerik merezi. Aho gehiegirik ekarri dute mundura ta. Parrokiak ez die lagundu behar». Stuart Mill ere Malthus-en alde jarri zen, zioia: «Mozkorri ar nazka begiratzen zaien gisan begiratu behar zaie familia ugaria izan eta mantentzeko gauza ez direnei. Pobreak ez luteke ez-kondu behar, aurrak janaritzeko dirurik ez dutelako».

Malthus-ek ongi samar kalkulatu

zuen gizakien ugartzeko ahalmena. Baiña benetan oso gaizki janarigintzako, sendakintzako ta transpor-teetako aurrerapenak, aldakuntzak eta teknika berriak. Ontan oso fiakaitza gertatu zen.

Malthus-ek bere liburu lehenengo 1798an argitaratu zuen. Munduko biztanleak orduan 900 miloi ziren. 1850-ean, 1.200 miloi. 1900-ean, 1.600 miloi. 1959-ean, 2.500 miloi. 1960-an, 3.000 miloi. Eta uste denez, 1980-an, 4.500 miloi izango dira. 1900-ean, 5.000 miloi. 2000-n 6.000 miloi.

Orain urte batzuk 6.000 miloi persona bizitzeko aibat janari sor ditekela erizten zuten jakintsuek. Gaurko pentsamendua da 15.000 miloi inguru bizi ditekela lurralde itasoaok, ongi aprobetxatuz.

Ikusten da, ondorenez, problema ez datorrela ekonomia-aren aldetik, politikaren aldetik baiñi. Ortarako Estaduen eta ONUren erakundeak berritu behar dira, egungo kosmo-ekonomiari eta errien premiai egokitzeko, desafio gogor au jasotzeko.

Baiña Malthus-ena gauza nabaria da. Aren bildurrak ez dira egiaz-tatu.

Gizona, gizakia, ez da uzten ala edo olako «lege jakin, ezinbesteko, itsuen» morroi saldua bihurtzen.

Alaberraren kaitolan ez du sartu nahi. Askatasuna du maite. Derri-gorrezko jotzen zena borondateko egiten du, pasa-eziña aisa menderatzen ba daki, eta proleta beltzak parregarri agerazaten ere.

Igaro denboretan ola gertatu izan da, behin, eta berriz, eta mila aldiz. Gerokotetan ere or nunbait gertatuko da.

Batzuetan zuten, besteetan zeharka, gizonak beti erakusten du mundu ontako nagusi dela, eta larribatzen jauna.

I. BUJANDA

ELDUAK EZKOLATU BEHARRA

Bi zatitan banatua zegoela zirudien gizonaren bizitzak: ikas-kego garaia lehenengoa, lanerakoa bigarrena.

Bizitzaren aurrengo urteak eskola urteak zirela uste genduen. Urte oietan ikasi egin behar zen, ohitura onak artu, bide zuzenaren sartu, bakoitzaren burua ezi eta zaildu...

Lanari, ekintzari... ekin behar zitzaion ari iragarotakoa. Umetan eta gaztetan ikasi zen, ikasi behar zen guziaz. Gero ez zegoen zer ikasirik.

Uste ori, ordea, zeifen oker eta galgarria den ez dago pentsatu ere egiterik. Urte guziaz dira onak ikasteko eta norbere burua ezitzeko. Garai guzietan daukagu berriutu eta gaurkotu beharra gizaritari laguntzeko.

Ahaztu ez dezakegun egia borobilla dugu au. Eta gaur gutxiago. Adalketa azkar eta aundien aldiak bizi gara. Aurreko berrogeita hamar urtetan baino adalketa aundiaok izan ditugu azkeneko hamar urte auetan. Azkeneko bi mende ego gizaletan baino gehiago, berrogeita hamar urte auetan.

Besterik gabe gaurkotu beharra, oraingo erara jarri beharra dakarkigu onak. Nor ipiñiko litzake karrera amaitu ezkerotik liburu bat ere irakurri ez den sendagillerean eskuetan?

Aurrerapenak, asmakizunak, adalaketak batetik; arazoak, buruasteak, galdera berriak bestetik.

Izugarria da gaurko gizon-emakumeon erantzunkizuna. Alde batetik oso trebe eta indartsu eta bestetik arrunt ahul eta indargabe izango den gizon berri baten sorreran gaude.

Gizonaren izaera eta nortasuna aldatu dezake gizonak drogaen bidez edo baita sikologoen bidez ere. Agian denbora asko baino lehen gizona, sortetik, bizitza guzirikoa esitua, zuzendua eta tajatua geldi ditzake guraoen azialanduz.

Ona, ordea, gure poz eta arrobide dana gure kezka larri bihurturik. Jakinduri au guziaz eta asmakizun aukerak danak gizonaren onerako ala ondamedirako gertatuko ote?

Bildurgarria da erri-gizon bezala ere gure erantzunkizuna. Arma egiteari uko egin pakeagatik ala berriak sortu gerrarako? Erri behartsuentzat dirua eman ala illargirako joan-etorrietan txautu? Erri eta langille burruka egin ala erri burruka edo langille burruka bakarrik?

Eta gurao eginkizuna? Guraoen esku dago eta guraoen gain joango da, azi eta ezi ditezake seme-alabak bakarrik sortzea. Lehengoek ez zezatekeen erabaki, ez bai zegoen aien esku. Lehengoek ez zuten erantzunkizuna dadukate, beraz, gaurkoek.

Nola ezi, berriz, gaurregun seme-alabak? Bai al dakigu zer esan ere?

Aundia da erlijio arloan ere daraman egon-ezina. Ementxe berenik arki baleza patxara eta lasaitasuna! Baiña bai zera! Kolokatu dirua emengo abe lodi eta sendoak ere.

Orregatik idatzi du Enric Fromm'ek "bildur dio askatasunari gaurko gizonak". Guziaz erabakita ematen zizaitzen garai aiek igarotako damuz bezala bizi da. Aske izan, erantzunkizuna artu, erabaki, aukeratu... lan zaila askatasuneari eta askatasunerako azi eta ezi ez danarentzat.

Gur behin ere baino premissioagoa da elduen eziera eta eskolatzea. Gurao, maixu, apaiz, ezizaille, agintari, danok irristaka gabiltz, alderoka, zalantzan... Eta ez da aski, "guk ez genduen egokierarik izan, zuek berenik ikas zazute" aitortzea.

Elduon esku dago gaurko galdera askoren erantzuna. Eta mingarria da gazteen ahotik entzutea "guraoak daude eskolatu beharrean".

Behin ere ez da amaitzen gizonaren eziera eta ikasi beharra. Ez du gizonak sekulan agortzen jakinduriaren iturria. Ez da inoiz ere osoro eltzen.

Orregatik elduok atera behar dugu ikasteko beta. Jakin behar dugu gazteekin elkar-izketan. Billerak egin, itzaldietara joan, irakurri... Badaukagu zertan saiata.

HERANEGUN MALRAUX, ATZO KENNEDY

Orain dela aste pare bat, jakina oenez, arrabots haundia egin zuen Andre Malraux frantses ministro-ohiaren delibero agiriak: «Bengalari joatea erabaki dut; eta neure burua eskeini diet bengalatar aberztaletari Bangla-Desh-en helburuak lortzen laguntzeko». 70 urteetan, Andre Malraux idazle famatua (aspaldian Goncourt-en irabazle, Nobel-ere biduko omen du aurtan), gaullista porrokatuak, gaztetango bere sua piztua bide dauka berriro. Eta, gero jakin denez, tanke batetan nahi luke burruka egin Bengalan bertan. Datorren Hazaroaren erdialdean ba doa harantz.

Eta atzo, Urriaren 20an, arrabots haundia egingo duen beste aitor bat entzun dugu irratian: Edward Kennedy senadorea (Lehendakari izan zenaren anaia gazteena, beraz) Irlandaren arazoak mintzatu da. Ipar aldeko Irlandatik britaindar armadak aldegitoko eskatu du ermoiki; eta argi eta garbi deklaratu du (behinola De Gaulle egin zuen bezalatsu) irlandatarren eskubidea erresuma bakar bat eratzeko, bitan zatiturik daukan mugak kentzeko eta, hitz batez, beren buruak irlandatarrek nahi duten eran gobernatzeko. Txipren, Bengalari eta Palestinari gertatzen ari diren burrukekin alderatu du Ulster-koa; eta esaldi hau izan du: «C'est la lutte des hommes partout, pour la liberté fondamentale et pour l'autodétermination».

Malraux ez da bengalatarra; ezta Kennedy irlandatarra, nahiz bigarren hau jatorriz eta hein batetan irlandatar etorkikoa bada ere. Biak dira politika mailan puntuzkoak, oso goian ibiliak. Pozgarri da, dudarik gabe, lotsarik eza eta karkulkeriarik zitalena gidari diren mailan, horrelako jaun haundien-gandik justizi egarria oinarri duten aitor horiek entzutea.

Baina politikaren bideak inoiz konprenituko baditugu, beharrezkoa da laguntza-dei bikain horiek noiz gertatu diren hausnartzea. Azterketa hau egin gabe, oso ondorio eta iritziz funsgabeak izan ditzakegu, eta irteerarik gabeko jokabideak proposa (borondaterik onenarekin, jakina!).

Lerro hauek idazten ditudan mementoan, 28 britaindar soldadu hilak dituzte irlandatarrek Ulster-en. Azaldu denez, hauetxek dira I.R.A. abertzaleak onhartuak dituen helburuak: «A good british soldier is a dead one» (britaindar soldadu ona, hildakoa da); eta paretak betetzen dituen beste hori: «Inglesa, hiltzaile». «Sunday Times»ek salatu duenez, tortura erabiltzen da Komisarrietan; eta abertzale-entzutea duten «katoliko»-ak ehunka, milaka, dira gartzelatan usteltzen ari. Aski da berebil baten ihes-hodi batek eztanda egitea, okupazioko armada gogoz mitrailatari eragin dizaitza. Edward Kennedy, beraz, giro hori dagoenean mintzatu da irlandatarren alde.

Bengalari buruz, noski, gauza bera esan behar da; baina aisa gogorkiago. Memento honetan, 11.000.000 bengalatarrek egin dute ihes beren sorreretik ikarak eraginda; eta Indiako Bengalari geriatu (lau aldiz Euskal Herri osoa ihesit!). Honek adierazten duenez,

zapi bengalatarretatik batek utzia du bere etxea eta dena, kontzentrazio-ko landatan pilaturik irauteko. Kolerak: milaka hil ditu desherritu gizajo horiek. Orrialde hauetan beretan beste batetan azaldu nuenez, Mujibur-en Awami-Elkarteak (Bengalaren askatasunaren aldekoa) gehiengo osoa lortu zuen igaz Dacca-ko Parlamentuan (%98). Orain gerilak agertu dira arrazagatan, eta egunero hiltzen dira pakistandar soldaduak abertzaleek mintzanduz dituzten inkontruetan. Zenbat gerilero dago? India aldean esaten denez, etorritako hamaika miloi horietatik 150.000 daude gertu iski-luak hartu eta aberria liberatzeko; eta aste hauek ari dira militar entrenamendua hartzen. Bengalaren baruan bertan, eta izkutuan beraz, 7.000 bat gerilero dago gaur, «terrorismo»-an abiatutik. Horra hor, beraz, egia osoa esateko, Andre Malraux bultzatu duen egoera izugarria (Biafrakoa bera baino askoz izugarriagoa, ahobatez esaten denez).

Munduko kontzientziaren lekuko dira Malraux eta Kennedy gaur. Noiz mintzatu dira? Noiz konturatu dira (edo noiz konturatu gara gu geu ere) Bengalari eta Ipar-Irlandan zapalduak dauden eskubideez? Irakurleak gogoetu egin, eta esan beza.

Ez hau bakarrik.

Noiz «mugitu» dira gauzak bertan soluzio bati buruz? Noiz elkar-tan dira Londres, Belfast eta Dubrin mahain baten inguruan, «soluzio» bat aurkitzeko? Edo, beste modu batetara esateko: noiz arte ez dira elkartu?

«Presiopean ez dugu amor-emango», diote amor-eman ez zutenek. Baina amor-emate hori aipatze hutsa ere amor-ematearen lehenengo seinalea da; presioa sortu arte («dena hondatuko» omen duen presioa, alegia) ukatu bait da problemaren izatea bera.

«Ez dugu orain amor-emango». Nahi-ta-etz amor-emateko bezperan, zapaltzaileen ahotan entzun ohiko den leloa: «Oraintxe ez! Orain indarka ez! Mehatxu-pean inola ere ez!». Baina orduantxera arte, isilik egoten da kontzientzia unibertsal famatu hori, eta barruko eta atzerrikko osteak hotz; eta, gero, «mehatxu-pean» eman ezin diren eraberritzapenak, bakean eta onez-onetara... ja!

Aspaldian azaldu zuen egia triste hau Laspiur-ek orrialde hauetan.

Eta ez esan gero zapalduak beti indarrera jotzen duenik, egia ez delako. Irlandatar gizaurren artean ospatsuen beharbada, Cork-eko alkatea da, gose-opor batetan... goseak hila! Eta Awami-Elkarteko burua den Mujibur-ek agiri-agirian esana du indarbidetaz baturtu nahi izan duela, eta Gandhi daukala gidari. Zer esango, bestalde, Txekoslovakiaz 1969-z geroztik? Nork nahi izan du indarka jokatu? Ahulena ala azkarrenak?

Egun hauetan oso aipatua izan den beste buruzagi batek, Habib Burgiba-k, berdin: ahal izan duen

guzietan, zokoratu egin du borta-ubidea; eta bere erremediorik ez ikusita bakarrik jo du indarra.

Eta gauza bera idatzi berri dut Gales-ko aldakuntzak azaltzean: Plaid Cymru legezairearen itxaroaldi luze eta alferrik nazkatu dituela gazteak, eta W.F.A. sortu. Diodan «presioa», beraz, ez da beti izaten bortxakoa, indarkakoa; eta Ulster-ko eta Bengalako burruka osoa, «I.R.A.»-ren eta «Mukti Bachini»-ren taldeetan ez bestetan ikusteak, eskualde horietako herria «ikusle» axolakabe gisa aurkeztutzea litza-ke: alegia, zapaltzaileen ikuskerari onhartzea. Heath-ek, esate baterako, beti aipatzen du «I.R.A.»-ren terrorismoaren kontrako bake-beharrak», eta behin ere ez ipar-irlandatarren erresistentzia, %99tan iskilu gabea.


Egia osoa esateko, beraz, I.R.A.-ren ondoan eta zeharo alde, Ulster-ko herria ikusi behar da oportetan eta plantotan, «arraina eta ura» elkarrekiko egon ohi diren bezala. Eta gauza bera Muti Bachini-aren omandoak eta Bangla-ko herri xehea.

Baina gehienetan lan honek guziaz desordenu nabarmenaren maila iritsi artean, ez da izaten laguntza-girorik, ez elkar-hizketa eskaintzarik batere. Hau ere egia. Egia trastea, baina egia: bai estruktural-aldakuntzak bai kanpoaldeko oihartzunak eta lakuntzak (ba daude-nean, ezen «Le Monde»-k honela baitaiztu bait du bere editoriala atzo: «La solitude des Bengalis» beranduegi etorri ohi direla; eta, ia beti, bai Gandhi-ren «satyagraha» bortitza bai Guevararen jarrapide garratza gutzit abiatutik dauden mementoan.

Behin ere ez horrelakorik, dena dela, egonean egonda.

Arazo hau aztertzea dauk irakurleak; eta hemen ateratako ondorioak aterako ditu bere aldetik ezin-beste.

Larresoro



Gasteizko Euskalduntzea

Azken denbora hauetan euskaltzaleen artean asko hitzegiten da Arabako euskal berjabetzeari buruz eta gure kulturaren gaietan dabilzanak Gasteizko azken gertaeraz biziki mintzatzen dira. Eta bitartean berjabetze honen erroetan gutxienez gelditzen dira eta baitipat, hemengo ikonoklastek ahaztu nahi dituzte erro hoiek.

Bainan, nundik datorriku berjabetze hori? Orain direla sei urte-edo arabar batzuen artean «Araba Euskalduna» lema bezala jaso eta lan-egiten hasi zen. Honela taldeka lasterkada batean legez testigua hartzen, geure eginkizuna jo genduen.

Guretzat, euskal kultura, euskeraz egiten dena da soilik eta horregatik geure kulturalezko lana geure errealdetatik abiatutik planteatu behar genduen. Eta gure errealdetara oso iluna zela bistan genuekan; horik planifikazio baten beharra. Eta urte batzuen ondoren planifikazio honen barruan eraman ditugun urratsek gaurko berjabetzea dakarkigute.

Halaz ere, ez pentsa guztia lortu dela, oinarri batzuk eraiki ditugula baizik eta jakina estrukturalerik gabe ezina da lan-egitea. Lanaren zimentu hauek ezartzea ikonoklasten begien aurrean denbora galtzea da. Haienazko abstrakzioetan bizitzeko garrantzitsuenak da, nahiz egiazko orduan estruktura hauek aprobexatu nahi dituzten beste xedekin.

Araba euskalduntzea hauze izan

da eta izan behar du gure egiazko lana. Puntu honetan frogatu da beti benetakoa euskaltzaleasuna, eta puntu honetan ezin dezakegu amor eman. Gure kulturak ez du defentsarik onena atakatzeko baizik. Euskal kulturak atera behar du kalera eta ez lurpean eta klandestinitadetan bizi.

Urte hauetan eta askotan salatu izan behar ditugu alde batetik espontaneismoa eta beste aldetik kulturalismoa. Hauek, ez dugu uste, euskal kulturaren bide aiposean direnik, batez ere euskal kultura herriarentzat nahi ba dugu.

Gaur, eta orain dala aste batzuek «Zeruko Argia»-ren editorialekin batera salatu nahi dut gure kulturaren beste gaitza, alegia, batzuen gaurko joera. Joera honek, eta denon dakigu nundik datorren, euskal kultura, baitapat euskera, aitzaki bezala hartzen du eta gure kulturaren bidez azpiko lan konkretu bat eramatean saiatzen da. Joera honek, gure kanpoko baldintzetan, luzarora euskal kultura heriotzara darama. Beste aldetik zaharra da haien jokabide hori eta haien morroi ez begara, beti atzerakoi bihurtuko gara.

Bitartean guk euskal nortasuna indartu eta zabaldu nahi dugu geure Araban eta behin eta berriz geure lanari jarraituko diogu. Eta hori ongi jakina daukate gure etsaiek. Lehen espontaneismoa eta kulturalismoa; orain euskal kultura aitzaki bezala; geroago... Eta beti euskal nortasunaren kontra jotatuz.

EKIBEL

ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoko Kaputxinoek argitaratua (Kale Nagusia, 50-1. Bulearda-Pamplona).

Donostia: Okendo, 22
Tel. 42.86.66

ARPIDE SARIA:

Berruan	250 pezeta
Korrore batasunetarako errietan	300 pezeta
Atzerrietako berrietan	320 pezeta
Aldez	Aurrez gaidetu

Salmetan (lele bakoitzak) 6 pezeta

IKASTETXE IREKIAK

Zilipurdika dabiltz gaur erakunde guziak edo gehienak beintzat. Ez da bat bakarrik ere zutik gelditzen. Zantalzan edo eztabaidan jarria dago gehien premia eta balioa.

Ez zitekean erasorik gabe geldi eskola-erakundeak ere. Jakiña, behin ere ez da izan eskola bera bakarrik gizonak osatzen dituenak. Ez, ez dira maixu txarrak izan etxea eta kalea. Gizona ez da bakardadean bizi. Eta lagunartean jaso ditu bizi-modurako behar dituen iritziz eta jokabide asko, bai giza-maillan, bai politika gaietan, bai erlijio baitetan.

Zer izan zitekean eskolako eziera soilla lagunarteko osagarri-rik gabe? Ori lehen. Gaur, berriz? Oiniez dabillen liburutegi bat gerta ditekera eskola eskola utsarekin. Non eta zertarako dagoen ez dakien ameslaria. Gauza batzuk dakizkian txoriburua.

Orregatik beste erakundeak egiten zaien galdera berbera egiten zaio eskolari ere. Balio al du? Zertarako da? Zer eginkizun dauka? Zaharkiturik al dago irakasleekin, irakas-gai jakiekin eta, denbora eta leku jakiekin ematen den eziera au?

Eskola ez ditekera esiz itxitako kabi bat izan. Behin ere ez. Gaur gutxiago. Or daude edonorri erasaten dioten etxeko giro, kaleko zurrubillo, irakurgaien indar eta telebistaren distirak. Umeei eta gaztetxoiei areago. Eta or dago oien jakin-miña ona eta txarra, guzia jateko eta irentseko.

Ezinezko eta kaltegarriko, beraz, umea munduko gorabehera guzietatik babestea. Umeari gauzak isildu eta gordetzea. Korapillo asko sortzen dizkio umeari, barruan, atariko aizeak.

Egun auetako batetan gertatu da: Gerra zillegi al da? Galdetu diote amar urteko mutiloek beren maixuari bat-batetan. Eta maixuak eztabaidan eta elkar-izketan ifiñi ditu bere ikasleak galdera zorrotz ori dela-ta. Batzuk, ifolaz ere ez ditekera onartu. Besteak, egin ditekera nobre Erria salbatzeko, omen zioten. Eta gai orri jorratu bat eman bezain azkar beste galdera bat egin zioten: Zergatik Txina batek ONU'tik atera behar izandu du, beste Txina sartzeko?

Ara or gai sakon eta interesgarriak umea esnatzeko, ezitzeko eta gizontzeko. Makillaren bidez, edo nahi duzunaren bidez, liburu batzuk buruan sartueraziz ez dugu ezer aurreratu.

Eskolak ikasleari sortzen zaizkion galderak erantzun behar dio. Ikusten, entzuten eta jasotzen dituen gauzaetatik, ona eta txarra bereizten irakatsi behar zaio.

Bakotzari bere burua eta bere ingurua aztertzen eta maxiatzen lagundu behar zaio. Bai, maxiatzen. Ez marmarreen. Ez bestean akatsak zabaltzen. Au da, zer dagoen ondo eta zer gaizki ikustarazi. Gero ona onduta eta txarra kentzen saiatu dedin. Onaren eta txarren sena zorrotz behar zaizkio.

Mitook ankar gora botatzeko garaietan bizi gera. Baiña zaharrak kendu ainean, berriak sortzen ari gera. Eta guztiak dute zauritzen gizonaren askatasuna, lehengoak eta oraingok.

Zail da gaur garbi ikustea. Zail bereiztea. Tresna zahar batzuk bezala erabiltzen gaituzte. Gezurra dirudi baiña mihor erailtzaille eta sortzaille bihurtu gera. Eta sortzarazten dizkiguten berrien atzaparretan galdurrik arkitzen gera. Zaharrak desegiten bakarrik ari gerala siniferazi digute.

Eskolak bere atak, leioak eta ormak zabaldu behar ditu eta kalean sartu. Kaleko giroarekin batera eskolatu behar ditu bere umeak. Bestela aizeak astintzen duen orbelaren antzera astinduak izango dira zuloren batean betirako galdurrik gelditzeko.

C. G. T. eta C. F. D. T. eztabaidan

CGT eta CFDT dira Fraitziako bi sindikato nagusiak. CGT delakoa komunisten eskuetan dago; eta CFDT-a, berriz, komunista diren gehienak biltzen ditu, eta ez du partidu berezirekin loturirik (F.O. sindikatoa, lehen SFIO sozialistaren adar izana, gero eta txikiagoa da).

Hots, gaitz «Sozialismorako Bide» hartuz, argitara berriak dituzte bi sindikatoek beren oinarriko araudiak eta pentsa-moldeak. Eta, hori de la bide, eztabaida maitusua sortu da Fraitziaren bion artean. Euskal Herrian eta munduko leku guzietan bezala, zimendutzat dituzten bi politika-joerak agertu dira gailen: marxismo-leninismoa batetik, CGT-aren politikabideen sustraian; eta sozialismo pluralista edo gizatarra bestetik, CFDT-aren proposamenduen funtsean. Bi sindikatoon arteko eztabaida hori, horregatik, argi-iturri izan daiteke guretzako; batez ere batzuek eztabaida horiek gaindituta edo «superatuta» daudela sinistazari nahi liguketelarik. Eztabaida horietzek dira, hain zuzen, gurean eta mundu guzian ezkerria zatitzen duten eztabaidak: marxista-leninistak daude batetik, eta gainerako sozialistak bestetik.

CGT-aren helburuak, Komunista

Erresumetan ezagutzen direnak dira, eta puntu hauetara bil daitezke: 1) produzio-bideak naziotartzea; alegia, produzio-bideak Erresumaren eskuetan jartzea. Hots, Erresuma edo Estadoa gobernuaren apartoaren eskuetan dago. Beraz, azkenean produzio-bideak gobernuaren eskuetan jartzen dira. 2) Erresuma horren eginkizunak zuzentzeko, langile-klasearen interesak hartuko dira gidari. Hots, langile-klasearen defendatzaile bakarra eta argitua Komunista Alderdia beste-rik ez da. Marxismo-leninismoak argiturik, Partidu bakarra ba dator: marxista-leninistena, noski. 3) Ekonomiarren zuzenketa «zientziakiro» egin behar da, eta langileria osoaren onetan. Denon interesok orokorki eta argio ikusteko, Erresuma osoarentzako buru bat behar da, marxismo-leninismoan ongi jantzia. Horretarako dago K.A.-ren burukrazia. Eta plangintza goitiki behar izango da. Komunista Alderdiak erabakitzen du dena. Eskema hau, zenbait puntutan eta «pour les besoins de la cause» liberal itxuraz leundu da. Baina erroak betikoak dira; eta eztabaida sortu da. CFDT-ak ez du horrelako sozialismorik nahi.

CFDT-ak hiru puntu nagusi proposatu ditu gidari: 1) Produzio-bideak, erabiltzen dituzten langileen eskuetan jartzea, eta ez Erresumarenetan. 2) Burokraziaren zapaketa egiazkoak jabeturik, aparatokien kontra jokatzea, honetarako maila eta arazo guzietan autojestioa ezarri. Autojestioak, jakina, federalismoa dakar Erresumaren barruan eta zentralismoaren akabera; baita soldaten azkena ere.

3) Ekonomiaren plangintza demokratiko bat egitea, ahal den guzian behetik gorakoa. Gizonaren zapaketa —dio CFDT-ak— ez dator ekonomia-arazoetatik soilki. Sozialisten pluralismoa onhartu beharra dago, eta pluralismo horri dagozkion askatasun-eskubideak ere bai: «Le pluralisme d'expression politique, économique, sociale, traduisant les diversités de conception au niveau de la construction du socia-

lisme, concrétisant ainsi une TENSION PERMANENTE entre la masse des travailleurs et les différents échelons du pouvoir, demeure une CONDITION ESSENTIELLE du caractère démocratique du socialisme». Hau dela-ta, CFDT-ak huelga edo opor-eskubidea segurtatuko dituen legeak eskatzen ditu. Eta kezka hau ez da harritzekoa; ezen Polonia-ko gobernuak langileak kalean ametrailatu bukarazi bait ditu aurtengo oporrak!

CFDT-aren iritziz, beraz, langilearen egoera URSS-eko lantegietan ez da funtsean atdatu; eta Partidu bakarraren aparatoari buruz eta burgesiaren aparatoari buruz duen ezintasuna, berdintsuak dira.

Eztabaida honek argitzen duenez, geure artean ditugun eztabaidak eta haserreak ez dira, uste izaten denez, Ulriaren izakera zailaren ondorio, edo Berendiaren norberriaren frutu. Marxista-leninistek partidu bakarra nahi dute jaun-eta-jabe; eta filosofia bakar bat, erlijio bihurtuta. Ez gureak, ordea, edo besterenak... berenak baiziki! Harrockeria haundiegia behar genuke besteok, benetan, horren laurdena eskatzeko. Ez nuke nik aupregirik izango, benetan, argi-eta-garbi proposatzeko denak isiltzea eta guturrak ez beste mintzatzea! Denok dakigu ongi, hain zuzen, nor izan duen ausardia hori.

Ez. Euskaldun ezkertarron artean nagusi diren liferentziak, mundu GUZIKO sozialisten artean nagusi dauden liferentziak dira. Larri-larrian azaltzeko, alde batean marxista-leninistak daude; eta bestean gainerako sozialistak. Eta gutxi gora-behera, CGT eta CFDT-ak dauden hein beretan egon ohi dira. Gizonak bere iritzia librok azaltzeko eta defenditzeko eskubidea duen lekuetan, bi partidu nagusi daude, eta bi sindikato nagusi, eta bi pentsakera edo joera nagusi: marxismo-leninismoaren diktaturaren aldekoa, eta sozialismo gizatarrarena.

Kapitalismoa ankar gora bota ondoren ere politika-problema ez dira bukatu. Eta sozialismo «bakar» (???) horren ipuinak gugandik zeharo baztertzeko garaia da.

ESKRIBIKERA ERRAZTEN

Oraindik-orain ikusi dut gazte-lerro idazlan bat; eta berak ematen dit bide gaurko au zirriborro-tzeko. Bere mulña? Idazkera edo eskribikera erraztu bear aundia dago, alegia.

Eduardo Maria Galvez erdal-idazlea konturutzen da —eta ez da aritzeko!— benetan lan gaitza izango dala gaztel-idazleak ortara jartzea. Baiñan bearraren bearrak eragiten dio itza ateratzera.

Eskribikera edo «ortografia» erraztearen aldeko zio edo arrazoirik? Batetik, denbora asko galzten dala eskribikera zail eta neketsu ori ikastekoan:

«Ortografia ikasten galtzen dugun denborak, aste beteko lan-oporketa edo uelga orokorrak baiño galera geiago dakar berekin. Ikasita edo erdi-ikasit ondoren, eskribikera zail ori zuzen erabilili bearrak, berriz, are geiagoko galera du».

Ba dio aundiagorik ere: «Aurtzartotik oitu-erazi gaituzte buruzpiderik gabeko eskribikera erabiltzen, guziz «irracional» dana; eta ortan jarraitzen dugu, gizadiarentzat zenbait mendetako atzerapena danik oartzeko. Izkuntza guziaz daude, egon ere, onelatsuko bitxikeri zentzugabekoak josiak».

—oOo—

Lau mailla izendatzen ditu Galvez jaunak gaztelara gaurkotu eta errazteko, burubide oneko eta zentzuzko eskribikera garbian ipintzeko. Lau mailla, bakotzari bere epea emanaz:

a.—JA, JO, JU bezala era gogor-reen oguztekoan beti JE ta JI erabiltzea, GE ta GI' ren ordez. (Euskeraz egin izan dugun bezala, noski).

b.—C izkiaren ordez, beti Z erabiltzea oguzkera biguñetarako: ZA, ZE, ZI, ZO, ZU, alegia. Eta oguzkera gogorretarako, berriz, beste au: K. Orrela, gaztelarazko CA, QUE, QUI, CO, CU kentzea eskatzen du. (Onton ere euskeraz bezala).

d.—H eta V guzi-guziak kentzeko eskatzen du. Eta V'ren ordez beti B erabiltzea jotzen du egokien. Alde oneko erraztua, gaztelaraz idazten ikasteko!

e.—GA, GO, GU erabiltzen diran gisa berean idazteko GE ta GI ere, tarteko U betiko kenduaz. Eta, jakina baita güe, güi, bien arteko ü ori ere uxatzeko.

—oOo—

Jende ikasien aldetik datozkela eragozpenik aundienak, ikusten du Galvez jaunak. Eta zorrozki maxiatzen du aietako askoren jakituria:

«Ortografia errazten baldin bada eta «korbata» jatzeko oitura ken-

zten, zertan bereiz ditezke ta nola nabarmendu gure jende ikasiak? Ardezatela, astein kein bederen, izkizukua edo letrazko zopa».

Bein ontara ezkeru esan dezagun, ez duala ezinezko ikusten aldaketa ori:

«Oraintsu erraztu eta gaurkotu dute beren izkuntzaren eskribikera bai Italiarrek eta bai Japondarrek, zati aundi batean beintzat, osorik lepadara ere. Burubidez antolatutako eskribikera edo «ortografia racional» deritzaion ori osoro loturik daukate EUSKALDUNEK, ERRUSIARREK eta TURKIARREK».

Idazlearen itzez esanda: «...se ha hecho con éxito, ya en parte, como en italiano y en japonés, ya totalmente como en VASCUENCE, en RUSO y en TURCO».

—oOo—

Ez dakizki asko Galvez jaunak, euskaldunon artean gaur bertan darrabizkigun... Ez dakizki ez. Galvez jaunak, agian, guda-aurreko berrien eta gloarren argira... araura mintzo da.

Ez daki oraindik Galvez jaunak, euskaldunon «ortografia» ikasten edo ikasi-ezinean ari geran bitartean, beste batzuek izkuntzak sakonki ikasten dituztela, jakintzaz aurreratsun edo jakinduriz jartzen dirala; eta batzuk illargira dijoazela. Bitartean gu...

Zertarako jardurio luzeagorik? Gauza bera mintzo da naiko garbi.

Gaztafiaga'k

Zeruko ARGIA

Zuzendaria: **MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA**

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1. Burielada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42.66.66

ARPEDE SARIA:

Berruan	250 pezeta
Korroko batasunetako errietan	300 pezeta
Atzerrietako beste errietan	320 pezeta
Aidez	Aurrez galduta

Salmetan (aie bakotzta) 6 pezeta



LARRESORO

EUSKAL - INDUSTRIALIZATZEAREN ETORKIZUN ILLUNA

Iru mailla edo aldi ikusi ohi dituzte jakintsuek industrializatzearen bidean. Ba dira, bai laugarren bat, irudimenean behintzat, sumatu dutenak ere.

Lehenengo: Esku-lan gutxi espezializatutakoa, indar-lan asketako, aurrerapen urrikoa, lan-tresna eskas eta merkekoa duzu. Oihala eta oinetakogintzan diardutenak eta josteko makinak eta txirringak egiten dituzten lantegiak, esate baterako.

Bigarrena: Industri pixua azaltzen asten da, Siderurgi lantoki aundiak sortzen. Ehunka eta milaka langillerentzat lana dute. Esku-lan alderitik espezializazio apur bat eskatzen dute... aurrelapan gutxiokoa industria... burni-urturak eta galtzairu-lanak, albidiez, Langilleek, berriz, sindikatu aundietan elkartzen asten dira beren eskubideak babestearren.

Irugarrena: Lan-eraketa oso aurreratu eskatzen duena. Elektronika eta petrokimia-lantegi berriak sortzen dira. Jende arka, jakintsua, ikasia eskatzen du. Goi-maillako ikasketak, ikastetxe nagusiak, sumatze eta billakatzeko lanak behar ditu.

Laugarrena: Oraindik jaio gabea. Amets utsal. Baiña gizona osatzeko eta bere atsedan-aldiak gehitzeko eta obagotzeko bakarrik egingo litzake lan. Gizonaren beharrei erantzuteko bakarrik.

Iru pauso oiek eman dituzte erri aurreratuek beren industrializatze-bidan. Eta gu ere pozik egon gindezkan beti toki guzietan aurrera emango balira. Orixe gertatu zaio Euskalerriri ere zoritxarrez.

Ain ondo, egoki eta indartsu lehenengotik bigarrenean iragan zen Eukalria eta gelditu da. Eta bigarrenean gelditzeak eriotza dakar nahi ta nahi ez.

Zer gertatu da? Gure industriak ez du Erri aurreratuetako industriarekin burrukarik izan. Ez dute Erri oiek beren jenerako emen sartzeko egokierik izan. Ez dute, beraz, muga buruetako azoketan norke merkeago eta norke oheak saltzeko lehiarik izan. Eta kanpora jo dutenean ere ez dira Erri aurreratuetako azoketara joan, Erri atzeratuetara baizik.

Orregatik ez dute aurreratu beharrenean, ikasi eta yoyotu beharrenean premiari sumatu. Irabazpide onak, errazak eta erosak eduki dituzte. Esku-lanerako jendea billatu ezkerio ia gutxia egin zuten. Eta zoritxarrez lanik gabeko jende asko eduki inguruan.

Eta onela lo-zorroan, nagiturik eta zaharturik zegoen garaian industri sortze bati ekin dio Estaduko emendik kanpora. Eta jakina oientzat gordetzen ditu diru laguntzarik aundienak. Oietara doaz emengo Aurrezki Kutxetako etekinak ere. Urritzen, soilzten eta bakantzen doaz, beraz, emengo ondasunak. Gure industria emendik kanpora oin morrontzan jarri da. Oientzat egiten du lan.

Diru-iturririk nahiko agorturik eta goi-maillako ikasketak egiteko bide aundirik gabe arkituraren salba ditek oraindik gure ekonomia, salba ditek gure industrializazioa.

Ez du euskalduna oraindik ikaratu ez lanak eta ez nekeak. Eta ba daki etorkizun ohearen itxaropenen guzia arriskatzan. Esna gaitzen, bada, eta elkar.

KOSMOARI BURUZKO AZKEN BERRIAK

Irakurleak aisa uler dezakean beala jakintsuek ez bestek ezagu dituzkete gaur zehetasunetan (eta berek ere, dakiten neurrian eta sailean bakarrik) Zientziaren azken pausak. Artikulu honetan, beraz (gainerakoetan bezala, bestalde) irakurle amorratu batek zenbait kaseta eta liburur irakurri, ikusi edo sumatu uste dituen problemak azalduko ditu gaingiroi. Ene asma ez bait da asteen behin soluzio berezi bana ematea, problema bana irakurleei apalik presentatzea baizik. Egia buruz, hitz batez, gehiegitan argitzea ezin izanik, eragile eta akulitzaile nahi uke izan bederen.

Hau helburu, azkeneko asteotan irakurri ditudan berri batzuek hunkiturik, azaldu egingo ditut.

Joan den Irailaren 20an, lehen-dabizkorik, berri jakingari hau eman zuten kasetek: NASAKo jakintsuek sei azido aminatu desberdin aurkitu dituztela meteoritoetan. Meteorito hauek, argitu dute, asteoroideetako puskar dira; alegia, Marte-ren eta Jupiter-en jirabide edo orbiten artean higitzen diren planeta-hondakinak harri-puskak. Eguzkiaren sisteman, hortaz, geroen sisteman alegia, baina Lurbitratik at zeharo (gugandik gertuenean 270 milioi kilometro) azido aminatuak ba daude. Hots, jakina denez, azido aminatu hauek dira proteinen osagai nagusia; eta proteinek, nabegat, «biziazen oihala», bizigai nagusia.

Ez da idorokunde hau bakarrik etorri. 1960-z gerotik, zitosina aurkitu izan da ikatzezko «xondritan» (alegia, «xondrita» deritzen meteorito mota batetan); eta zitosina hori, ADN-azidoaren parte izanik, gurtz dago biziarri lotuta.

Eguzki-ondoko gure sisteman, beraz, gero eta segurago da Zientziaren aldetik, kimikari dagokionez, Biziazen «oihala» edo oinarria diren gaiak nun-nahi sortzen direla. Artizarra-ren eta Marte-ren misilozko ikustamen ukarora egin izan ondoren, ba dirudi bizidun gaur Lurbiran ez bestetan dagoena. Baina besteetan kimika-oinarria ez da falta; eta giro-oinarria Lurrean gertatu den bezala gertatu gero, bizidunen sorrerak normala dirudi. Aspalidiko denboretan Marte-n bizia izan zela defenditzen dutenak ez dira gaur urri; eta Phobos-en bitxi-

keriak... antzina jaurtitako teknika-satelite bat delakoa azaldu nahi luketenen ere ez...

Nolanahi ere, gauza bat da segurua: Eguzki-ondoko sisteman, bizia sor dedin behar diren kimika-oinarriak ez direla falta. Beste modu batetara esateko: Lurbitratik at ere, Bizia sor daiteke: giroaren eta ingurumarien arabera, atzo, gaur eta bihar ager daiteke; eta beroien arabera ere, suntsi.

Gure sistematik irtenez gero, berri (hau da: Eguzki ondoko planeta-sistematik urrutzean), baina beti ere gure Galaxiaren barruan, bide beretik dago idorokundeak. 1968-z gerotik, molekula desberdin asko aurkitu da izar-arteko hodeietan. Amoniakoa aurkitu da, esate baterako (lau atomo), formalehidoa, ziano-azetilenoa, eta beste. Aurten siliziozko oxido bat aurkitu da. Eta, hitz batez, baita zapi atomo dituzten molekula atxeman dira dagoeneko izar-arteko hodei eskerga horietan.

Gure Galaxiaren barruan, beraz, baina Eguzkiaren sistematik kanpo, aurrera dago Zientziaren ekarriak Biziazen oinarri diren molekula agertzearen aldetik, eta Stanley Miller-ek laboratoriko frogabidez erakatsi zuenaren arabera.

Beste galaxietan, hirugarrenekorik, joera berberetik doaz idorokundeak. Aurtengo Uztailen kasete-tan irakurri dugunez, Welliachev astronomiarik OH molekula aurkitu du bi galaxiatan: N 82 delakoa eta NGC-253 delakoa. Gugandik hamar miloi argi-urtetara, beraz, frogatuta dago gaur gure arteko molekula ezagun hori ba dagoena (ehun trilo kilometrotara). Ba zegoena, beraz, hobeki esateko, orain dela hamar miloi urtez gerotik, argia handik irten zenean, Lurrean oraindik ez gizona ez gizon-aurrekoak zirelarik.

Kosmosa, hortaz, bat da izaeraz kimikaren aldetik. Eta, hau dela bide Bizia nun-nahi agertu dela ukatzezko arrazoin sendorik ez da agiri. Lehenago ere esandakoa berri-tuz: «ez gaurde Kosmoso bakarrik». Kosmoaren batasun furtsezko gero eta zindoago agertzen bait da.

Gero eta segurago da, beraz, era berean, Lurrean gainaldean obratu den eboluzioa, beste lekutan eta mendetan gertatu duteka. Gero eta segurago eboluzio

hau bai atzeratuago bai aurreratuago dagoen munduak ba diratekeala. Ez gaude bakarrik.

Ez gara beraz Kosmoaren erdia ez ardatza. Antropo-zentrismoak erazteko garaia da, gure Lurbira eta gure mendea baita denek gurtzarri diren uste harroputza baztertzeko. Freud-en hitzez esateko, gizaian luza nagusi izan den erlijioak «une déformation délirante de la réalité» izan du zimenterri. Izan gaitzen apal eta egiazi batera. Gizona ez da Kosmoaren zilborra; eta gure gizadiari dagozkion urteak edo mendeak ez dira ezer berezirik Kosmo eskergaren kondaira lizean. Utz ditzagun alde batera ptolomeismoak oro.

Astronomiarri famatu batek ematen duen irudia, neure egingo dut. Eman dezagun billarretako bola bat dela Eguzkia: 7 cm. diametrokoa. Gure Lurbira jostortaz edo iskillin-ba buru bat izango litzake (0,5 mm.) eta 7,60 metrotara jiratuko gertuena, beste billar-bola bat izango litzake... 2.000 kilometrotara jarri beharrezko: Kopenhaguen-en eman dezagun! Tartean hutsa. Beste bola bat (beste izar bat) hamar kilometrotara jarri beharko litzake, eta abar; eta horrela ehun-mila milioi bola «plater» bat osatu. Plater honen diametroak 600.000 kilometro izango litzake! Horra hor gure Galaxiaren mini-maketa txiki-txiki bat. Honetatik milioika kilometrotara, ehunka milioika kilometrotara, beste galaxiak, billarretako bola-mordo espiralak edo borobilak aldizka, ehunka, milaka, hutsunean sakabaturik eta galdurik...

Are gehiago. Asma dezagun orain hori guzira, aski huts ez balitz bezala, areago hustutzen ari, dena nun-nahi hedatzen eta bakantzen ari, galaxiak galaxiatetik urrutzen ari (ihes-nahiak harrapaturik itxuraz), dena aspaldian lehertu izan balitz bezala zabaltzen ari, mundu osoa lurritzeko eta espazioan gelsaltzeko eta funditzeko abiadan abiatuak bait legoan... Eta hori genduke gu segundu batez besteten dugun zoru isilaren irudia.

Hor ginate gu, jostortaz-buru batetan burrukan eta, Epiktetok bezala esateko, «geure gorpu astuna arima ahulak ezin arrastaturik» («Tu n'est qu'une âme chétive qui souffève un cadavre» zion jopu argitsu gogor harek). Nork ez du sendituko Ezerezen zorabioa? Nork ukatuko du, bestalde, zorabio horren ikutua, funtsa eta egia? Ukutzen dute halere horiek; eta kezka haueri farre egin uste diet!

Baina etsipen batean gautzalarik, Freud-en esakuntza garratza liltzu zaigularik, eta Ezerezen zorabioak arras harturik gauzalarik, beste burutazio bat datorkigu burura. Bizia ez da-izan batere «probalea». Alegia gaurko Biologiak erakusten duenez, molekula organikoez «informazio» handia dute; eta gertatu behar ez ziren izakiak gertatu direla hain zuzen. Guk gototik saiaturik ere ez dugu duze haundirik sortzen; baina Zoriak eta Halabehar hutsak izakirik zailenak sortzen dituzte. Mirari hutsa da molekula erraldioak agertzea; eta mirakulu hutsa ere bizidunak batere sortzea.

Hots, aipatutako berriak erakusten dutenez, probable eta gertagarri edo gertakizun ez zen HURAXE da... normala eta gertatu! Eta hau nun-nahi gainera.

Ez dezagun ahantz, bestalde, Carbono-atomoaren lau elektroifamatu horiek direla materia organikoaren kaka: Carbono-rik gabe ez da garbi ulertzen Bizia nola sor zitekan. Hots, Carbonoa ez da-izan ezer apartarik Mendeleiev-en lauki ezagunera: hamabigarrenen soliki. Berriz ere: «beste bat».

Bitartean galaxiak elkargandik eta guandik urrutzen ari eginaldean. 3 C 147 delakoa, gaur gaurko txapeluna, 165.000 kilometro/segundu-tako abiaila darama. Zeram, hobe, orain dela bost mila miloi urte jaurti bait zuen gaur ikusten dugun argi-errainu hori. Urrunsko!

Txiripa-lara oso eta ezin luzeago batez dakigu hau guzia. Kosmosa itsua izan bait zitekan osoki, eta kontzientzia-gabetasun guzizkoan lehel, eta gero ilunbeetan gesal eta hil bait zitekan. Aski zitekan, eman dezagun, Carbono atomoak dituen gaitasunak ez izatea...

Zer da hau guzia? Zein da zorakeria haundiago? Gizonaren beraren arazoa eta patua zeharo alde batetara utzirik ere, zeln da erogo: gertatu den guzia Zori hutsaren ondorio dela sinesten duena, ala Zori huts hori sinesten ez duena?

LARRESORO

LANTEGITIK

LANGILE BATZORDEAK FRANTZIAN

Lanen bat idazterakoan irakurlearen gogoan, gairen garrantzia eta gaurkotasuna gogoan hartu behar du idazleak. Langileentzat garrantzidun gairik bada enpresa barruan dadukan pausobide mintzatzeko dagokigu, zuzendaritzan parte zenbaiteraino har dezakeen aztertea, ondorenean pausok ongi zuzentzea... Askok idatzi da gai honetaz, eta, orainoz, iturria agortuko denik ez dugu uste.

Europar zehar oso era ezberdinean jokatu izan da, langileriak Frantzia eta Yugoslavian ez du era berdinean erantzun, ez du bide berdinek aukeratu. Horregatik han eta hemen, sozialista eta kapitalista sistemapean langileriak zelan lan egin duen ikusi gero, gure lana hobeto mugatu ahal izango dugu. Frantziar langileria jarraituko diogu gaurko saio honetan.

Frantziar aspaldian ekin zioten lantegi barruko eskuartzearen aldeko burrukarri. Amiene-gu Agirian, 1906 garrenean, sindikatoaren egiteko burrukabide ezetik, lanbide ere gertatuko dela, aitortzen du. Gerotik, eztabaidarik sortu da frantziar langilerien artean. Xede eta jomuga berdina izan da, lantegi barruan zeregin garrantzirik ba dagoela oharatu dira. Hori eskuartze-

ko bidea aukeratzeak ematen die buruko mina eta kezka, elkar ezina.

Bigarren Gerrate Nagusian, Frantzia askatasun bidetik abiatu den garaian, Abenduan 1944 garrenean, langile batzordeak sortarazteko eta prestatzeko lege bereziaren egitama gertutzerakoan hara zer dioten: «Lantegi giro eta antolaketa frantziar langileriak beregain hartzea nahi dugu, egunetik egunera eskuartze haundiagoa izatea».

De Gaulle militarren agintean, 1945 garren urtean, lantegi barruan langile batzordeak osatzeko ontzat ematen da. Frantziak gerratean lortu duen askatasuna, gizarte giroan ere bereganatu nahi duela dirudi...

Legepean batzordeak osatzen dira, langileen ordezkariak osatua, nagusiaren bitarteko batek bertan parte hartzen duelarik. Baina, delako batzorde hauek ez dute indarrik, ez agintirik ezta erabakiak hartzeko kemenik ere. Diru arazotan ez dute ezeren eskuartzerik.

Langile batzordeak, bada, zertarako? Frantziar kapitalismoa nagusi denez gero, ez du ezeren aldaketa sakonik onartuko, jomali, diru,

lantegi antolaketa, produzio arazotik nehorik eskuartzeak ez du onik eginen.

Lantegi batzordeak bere iritzia eman lezake, baina garrantzidunetaz ez zaio iritzirik eskatzen. Irabazien kontu garbirik ez du jakiten, jomali konturik aipatzeko egokierarik ez du izango. Gehienez, paternalismoz, biterik, seguridade, sendagile, aseguero, mutualismo, bakantzetako etxean antolaketa eta abar bakarrik zuzentzen ditu. Lana, dakusunez, ugarria, neketsua, burrozkariari itsatsia egoera aldaerazko ez duena. Izan ere, joko garbi dago, kristau izeneko sindikatoak 1950 garrenean izen bezala: «Batzordeak, beste zeregintzan lanpeturik, ez du egiazko egitekorik betetzen...». Gerotik gauzak lehenean daudela esan ditek. 1967 garrengo Abuztuan emandako legeak ez du ezertxoere aldatzen.

Kapitala da nagusien, eta nahiz eta direkzio mailan noiz behinka bilerak egin, ez da bertan aparteko gairik erabiltzen. Benetan interesgarri diren arazoak beste era batera konpontzen dira, langileak erabat baztertuz alegia.

Zuzentasunak eskuartze gehiago-

rik eskatzen duela ez dago dudarik. Langilerien gorabide eta osabidean, horrelako batzordeetan parte hartzea onuragarri den ala ez, biterik da. Erantzuna zerorrek eman zenezake.

Mikel Ugalde



ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZUNEA
ARISTEGUIA

Nafarroa-Kantabri eta Aragoiko Kapariduen argitaratzailea (Kale Nagusia, 56-1.º Buleade-Pamplona).

Donostia: Okendo, 22
Tel. 42.95.86

ARPIDE SARIA:

Barruan	250 pezeta
Korreo batasunetako errietan	300 pezeta
Atzerrietako beste errietan	320 pezeta
Aldiz	Aurrez galdetu

Selmetan (ale bakoitza) 6 pezeta

LANGILLEEN EGOERA AZTORATUA

Ez gera azken aldiaren diran opor-deietaz mintzatzen. Susmo txar baten eragifenez uzkur eta entzungogor egin bai zaie toki askotan.

Lantokietako egoeraz eta langilleen ezin biziari ari gera.

Gero eta gehiago estuazten zaio langilleari gerrikoa. Gauzak gora. Soldatak lehenean. Ordu-sarteko lanik gabe. Diru-aurreratuari erantzun beharrak. Kalera saltatzeko zorian...

Sei ilabeterako kendutako lege-eskubideak itzultzen zaizkio Erriari Ekainaren 14'an, "azpi-laneko talde eta elkarte gehienak deseginak bai dira".

Alaz guziz ere andik iru ilabetera lan-oporketei ekiten zaie Peninsulako errialde batzuetan. Etxegintzako larogei milla langille lehenik. Asturias'ko HUNOSA'koek goroxeago. SEAT'koek oraindik-orain.

Ezagunak dira Nafarroa zaharreko gorabehera larriak ere. Agirian daudenak Bizkaia eta Gipuzkoakoen ondoezak.

Usterik gutxienean lertu ditekian langille egoeran bizi bera, beraz. "Itola gaude. Baiña nere etxeok goseak ikisi baiñe lehenago egingo dut zirt edo zart. Tristeza litzake odol-ixurtze bat berriro, baiña ezinik ez du kupidarik", zion bere andaluz doñuz langille batek lehengo batean.

Eta langille soil-soil bat zen. Iñongo talde batek tajutu eta adoretu gabea. Azkenengo puntako langille eskubideak eskatzen ez zituen. Langille otzana, paketsua...

Zail zaio langilleari kalera ertetea, atak itxirik arki bai dezake ostera barrua sartu nahi duenean. Edo gutxiarik soldatarik gabe, segurorik gabe, iñongo babesik gabe opor-aldi guzian.

Onela gure langillea elgartzeko, kalera ateratzeko eta bere iritziak eta jokabideak agertzeko egokierarik gabe gertatzen da.

Lantokiko arazoak, berriz, konpondu gabe. Azala itxirik, itxuraz sendaturik. Barrua ustelduta, zauria, azal gezurtiaren azpian, zornetuta. Gaitza luzatzen eta gaitzotzen. Orixe besterik ez da langillearen barruko min eta garraixak isilaraztea.

Baiña onek azkenean nora-ara lertzea dakar. Orduan ez gaitzen asi aitarena. Gaitzak garaz eta ondo sendatu behar dira. Gaitzak zuzartarretik, zaiñetatik kendu behar dira.

Agian lantokietako ondoeza onek beste nonean dauzka sustraia. Gizarte osorearen aldaketa bat eskatzen du. Langilleen eskaerei, arazoari eta indarrei bideak irekitzea asteko. Langilleek eskuartzea gizarteko eraketan.

Ai indarrean datorren urari bideak isten bazaizkio! Aurreen artzen duen guzia eramaten du. Ai ibaiak gañezkatzen direnean!

Oraindik ere Einstein harrigarri

Lehenago egunean «ANATASUNA» gure lankidea neure eskuetan hartu nuenean, eguzki-sistemaren irudi bat aurkitu nuen lehenengo orrialdean; eta horren oinean irakurgai hau: «Errelatibitatearen Teoria» (X-15). J.R. Etxebarriak poliki eman du, oso hitz gutxitan, Einstein-en ideia-iraultzaren berri.

Etxebarria-ren artikulua, irakurrita ikusi dudanez, ez da azkeneko egiztapenen ondorio gisa ekarria, bere buruz sortua baizik. Alegia, Einstein-ekiko jakin-mina bizirik dagoelako.

Orain dela 66 urte judu famatuak hasi zuen ideia-iraultza ez da agortu. Einstein-en ideiak ezin harrigarriago gertatzen zaizkigu gaur bertan ere, 1971-on. Eta puntu batetan esan behar du horrengatik ez datorrela Etxebarria-rekin bat: ez zait iruditzen Einstein-ek «garai-ko zentzu komuna» soilik astindu eta dardaratut zuenik, gaurko ere astintzen eta dardaratzen bait du. Etxebarria bera lekuko.

Munduaren ideia aldarazi du Einstein-ek goitik behera. Baina harek erakutsi zigunaz zeharo jabetzen, txit zaigu zail; baita matematika-alderdika kontutan ez harturik ere. Eta, ene ustez, denborari buruzko teoria du Einstein-ek denetan harrigarriena.

Hots, Urrian bertan munduko prentsak jakinarazi duenez, berriz ere beste egiztapen bat egin dute aste hauetan bi fisikaririk: Joseph Hafele-k eta Richard Keating-ek. Biak amerikatarrik. Hiru orloju atomikoz baliatuz, eta hegazkin arruntetan Lurrari bira osoa emanez, hiru orlojuen arteko ordu-liferentziak kontrolatu nahi zituzten (orloju bat Washington-en utzi dute geldirik, eta beste biak berekin eraman dituzte ibiltari). Karkulua hertsieratsiki egin nahi dutenez gero, ez dakigu oraindik xuxenki eta xehe-xeheki zer aterako duten. Baina, larri-larrian, lehenengo axaleko karkulu bat egin dute iritsia berehala; eta Einstein-en formulak eskatzen zituen «desorduek» atxeman dituzte beren hiru orloju atomikoen artean (0,0000004 segundu, oro har). Berriz ere, beraz, prasiak zuzenetsi du zientzia-teoria; eta Nobel-ari bikoitza izandakoaren zientzia-zehaztasuna eta ideia-egokitasun apartak berriz agertu dira gailen.

Lau hamar-miloiaren segundu... Zer axola? Ezer ez da!... pentsatu dukezu agian.

Hots, axola handia du denbora ezin apurrago horrek, axola ezin haundiagoa. Denbora (eta espazioa) ez bait dira (Einstein-ek gero dakigu) abstrazio bat; ez bait da denboraren joana uesteko fenomeno huts bat, Bergson filosofoarenkin izan zuen eztabaida famatuaren Einstein-ek argiro erakutsi zuenez; ulkerera edo barne-egitimu edo «kategoria» huts bat ez delako.

Denbora eta espazioa elkarri iratxerikik daude, elkarrekin zeharo trabatutik, txanpon baten diametroa eta lodiera berez-ezinez diren bezalatsu. Lilura eta ez-jakintasun hutsa da denbora espaziotik at pentsatu nahi izatea. Nahi bainbat geometria asma dezakete matematikaririk (Euklides-ena eta honen intuizioak barne); baina bakar bat da egia-iradokioa: Einstein-ek erakutsi duena.

Denboraren isuria, horrela, referentzi-sistemaren arabera; eta denbora-isuri horren abiada edo habaila, neurtzen duen erlojuaren mugimenduak baldindua da, eta al-dakorra funtsez.

B. Russell-ek orain dela 50 urte argiro azaldu zuenez, habaila haunditan, bi misilotan joango bagina geure lagun bat eta gu geroni, nor berean; eta biok espazioan elkar gurutzatuko bagenu, optika-iturkeriak oro eta karkulu guziak ederki gaitzitu ondoren, bestea ere zigarrora geurea baino polikiago erretzen dela ikusiko genuke, beste misilokontzako denbora guretzako baino geldiago bait litzan. Eta, alderantziz, beste misiloen letorkeanak, gauza bera pentsatuko luke gure zigarrorik. Elkarreko bekaizkerian haiek eta gu, diu Russell-ek. Eta bidezkoa litzake: ezen geure biziera laburrago bait zaigu guri, geure erlojuetan eta bihotz-taupadetan, bidari denaren biziera baino. Ez da hau itxura-arazo bat: hala da mundua. Ez dago denbora-neurri absoluturik. Eta hauxe egiztatu dute berriz bi fisikariok aste hauetan, Einstein-en teoria bitxiak berriro funtsez.

Baina errelatibotasun hori, Etxebarriak egokiro gogoratzen duenez, inertzia-sistema ez diren kasoetan (alegia, habaila aldagabeen mugitzen ez direnetan) aldatu egiten da izanaz, eta absolutu bihurtzen. Misilo baten astinaldiek, abiadurek, geldialdiek, eta, hitz batez, inertzia-sistema ez izateari dagozkion zakarreriek, absolutu egiten dute denbora aldakorraren fenomeno. 1916-an Einstein-ek bere Errelatibitate Zabalduea presentatu zuenean, beste azalpen sakonago bat eman zion 1905-ek geroztik salatutako fenomenoiari.

Gehien-gehienik denboraren habailaren errelatibotasuna onhartzeko gertu baldin bageaude ere, nekezago zaigu denbora liferente horien sustraia onhartzea. Baina denbora azkarrago joaten zaio geldirik dagoenari, abiaduratan eta geldikidatan astindua dagoenari baino. Isiltasun baketsuan azkarrago doa denboraren jarria, nahaspila orrotasun baino! Eta honetan ez dago ene aldetik olerki-mahirik, egia-behar eta fisika-lege huts eta hotza baizik.

Horretatik Langevin fisikari famatuak asmatu zuen bidari bitxi hura. Eman dezagun, esan zuen Langevin-ek, bidari batek Lurbitatik ihes egin duela misilo batetan, eta ia-argiaren habailan egiten duela Kosmos zehar bidala luze bat (habaila hori, xuxenki, 15 km/seg. txikiago izango da argiarena baino). Misilo azkar horren bidala, joan-etorrian, ez da inertzia-koa. Eman dazi horrek lurra berriz ikutzen degarun orain, zion Langevin-ek, bidala, eta bi urte pasarik markatzen diotela misilo-barneko erlojuak (denbora-tarte berbera atxe-

wango luke bere taupadak neurtuz, eman dezagun). Lurrean ez luke halere bidari harek inor ez ezer ezagutuko, gure Lurbiran (inertzia-sistema) 200 urte igarok bait lirake. Bidariaren anaia, eta llobak berak oro, aspaldianik lirake hilak eta ahaztuko!

Illargiraino iritsia den Amstrong ospatsua, honengatik, gazteago da gaur (galileotar edo inertzia-sistema ez den Apolo zakar eta azkar batetan gora eta behera luzaz ibili delako) Lurrean mogitu gabe gelditu izan balitz baino. Honek ez du gaur dudarik.

Zenbateraz gazteago? Ez da gaztetasun-doi hori urtetan neurtu behar, jakina; segundu-militeretan baizik. Zer da-izan misilo baten habaila, argiarenen ondoan? Zer dira Apolo-oren 11 km/seg., argia-iradokio 300.000 km/seg. ondoan? Ezer gutxi. Abiada txiki haurentzako, horrengatik, Einstein-ek erakutsi dituen liferentziak, arrunt txikiak dira; eta «intuizioa» eta zentzua, xuxenak iruditzen zaizkigu: «Zer axola, zahartzerari buruz, hegazkin bat hartzea ala ez hartzea? Zer axola illargian bizitzea ala Lurrean? Denbora bat da denontzat».

Ideia hauek, ordea, oso zentzudunak izanagatik ere, faltsuak dira osuki. Denbora ez da miraren ideia bat, fisikazko neurri material bat baizik. Apolo batetan ibili direnak gazteago daude gaur, joan ez direnak baino. Eta illargian bizi izanez gero, orduak azkarrago joango lirake Lurrean baino. Grabitazioaren joppa da denbora, aldera haur batek pustarri bat botatzen duenean bezalaxe.

Baina utz dezadan puntu hau beste baterako; eta mintza bekiagun orduan astronomiarik.

LARRESORO



Nafarroan Bakerik ez...

Nafarroaren egoerak zer esana franko sortarazi du azken hilabete hauetan. Azken urte honetan zehar sortutako huelga, istilu eta burrukak egoeraren larria erakutsi digute, etorkizunaren iluna, bakerik ezaren garratza... Eaton Iberica, Potasas de Navarra, Imenasa, El Pamplonica, S.A., eta abar ez dira guretzat hain ezezagunak, bertan gertatua dala merio...

Nagusiek diotenez, hamar dira huelgapean egon diran lantegiak, 172 egun bertan galduak, handia huelgen lege leporatu zitaien kaltea. Baina, zerk sortarazi du gauzregungo egoera? Ez ahal dira bidezkoak langileen eskariak? Zergatik elkarriketatari ez zaio behar hainbaterako jarraipenik eman?

«MAS» erdal aldizkariak agertarazten digunez, Nafarroaren ekonomia egoera ahula eta indargabea dugu benetan. Lanik ez nabarmentzen da han eta hemen. Uztaren 23 an, adibidez, 2.679 langile euskal lurralde honetan. Abuztuan, langabeak ez dira gutxituko, gehitu baizik, %eko 3,4 izatera etorriaz.

karen bidez nehor asperitu nahi, sarritan zenbakietara ere ohitu egiten gerta eta. Hona hemen esku-lan ugaria, esku-lan merkea, oraindik ere azokaren diru lege ordaintzen baita lana. Salgai ugari, prezioa larri... Baldin bada langile aukera, jorنالak behera...

Interesgarriak guretzat, Iruñeko aldizkariak, Tomas Cabarreren ahoz, jasotzen dizkigun hitzak: «Alderdi-keriak alde batera utzirik gure egitekoa muga dezagun, langileari zer zaiguna eman dezaguten ahaletan du gaitzen, gizarte barruan gaitzotzeko pareko izan gaitzen. Hau lortzeko era ere gure esku behar luke, geure sindikatoa, geure gidari eta zuzendariak...».

Imenasan gertatuaren berri bada-rikutez, noski. Prezioak goruntz jotzen dutela ohariturik igazko kontuen eraberritzea erabakitzen dute. Ofizialistek ez beste langilek bururakari ekiten diote. Lantegiko arazoak konpontzen ez delarik, kanpoan ere agerkunde eta haserrikerik ez da falta...

Urte txarra oso aurtengoa, eta batpat nafarrentzat. Hainbeste lan-

tegi itxierazteko arrisku bizian, etxegintza eta konstruzioa erabat motel eta geldia, onean gauzak konpontzeko biderik gabe. Ez, ez da bakerik sumatzen, ez nagusien buru bihotzetan, ez eta langileen sakela eta familletan. Are gutxiago lanik gabe aurkitzen diren hainbeste etxetan.

Aurrerantzean ere ez dira gauzak nolanañi aldatuko, ez dirudi luzar-ron bere onera etorriko direnik. Egin izan diren diru eskeak ere ez dute ezer konpontzen, zauriak gozatu baino. Baina erabaki nagusiak hartzen ez diren bitartean...

Igaz eguberri jai triste eta ilunak izan genituen. Aurten ere gauzak lehenean daudelarik, ez da alai-tasun handirik izango zenbait euskal sukaldetan. Nafarroan, langabe-tu etxeetan ez da abestirik entzungo, umetxoek ez dute erregente amets egiterik izango, ez da egiazko bakerik izanen.

Aurten, Eguberri jai, norentzat alaia?

Mikel Ugaldel

ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA


Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek argitaratua (Kale Nagusia, 50-1. Burlada-Pamplona).

Donostia: Okendo, 22
Tel. 42.66.66

ARPEDE SARIA:

Berruan	250 pezeta
Korroko batasunetako errietan	300 pezeta
Atzerriarriak berriz errietan	320 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitzaz) 6 pezeta



EGUBERRIAK ETA ZUZENTASUNA

Elkarrekin zer ikusirik bai al dute? Eskatzen al digute zuzentasunik Eguberri jaiak? Edo zabalagoan galdeturik: Jainkoa gurteza al da elizkizumen elburu nagusi bakarra? Egin al diteke mezarik zuzentasunik ez dagoen tokian?

Baiez dirudi gaurko kristau askoren iritzia eta jokabideak ikusiz. Baita Elizaren agiriak irakurtz ere. Ez dirudi liturgiak eta zuzentasunik elkarrekin zer ikusi aundirik dutenik. Jainkoa gurteko bakarririk diruela dirudite gure elizkizunak. Aski dela dirudi sakramentuen indar soila meza egiteko, entzuleen eta emailleen bizitza zintzo edo okerrari begiratzeko.

Ez dugu inolaz ere esan nahi Elizaren agiriaren zuzentasunaz eta elizkizunaz erakutsi bikiarik ez dagoenik. Ez dugu esan nahi kristauei bizitzan zuzentasunik eskatzen ez zaienik, elizan bildurik egiten dituzten otoitz eta mezak zuzentasunera eragiten eta beharitzen egi dituzten baizik.

Eliza dotoretan eta jantzi apain, abesti zoragarri, jarrera, jardun eta arau egokiz egin ditezke gure mezak, baina zuzentasunaren gose-egarri gabeak badira, utsak ditugu. Mamirik gabeak. Zuzentasunik ezak balio gabe bihurtzen ditu. Meza beraren muiña desegiten du.

Au garbi dakugu Liburu Santuetan. Zalantzarik gabeko erabakia ematen digute bai Igerieek, bai Jesusiek eta bai apostolek. Guzti auzentat, Aita Jainkoari parra egitea da, zuzentasunik gabe elizkizunak moldatzea. "Aitari bere aurrean semea iltzea bezala da, beharitsuen ondasunekin opariki eskitzea" dio Jaunaren itzak. Orregatik zeuden lotuak lehenengo kristauek "Jaunartzea" edo Meza eta biotzak bat egiten eta ondasunak elkarren artean banatzea.

Gaur ez da onela gertatzen, ordea. Asko arritzen gaitu apaiz-jantziak gabe meza emateak, baina gutxi zapaldu eta zapalzaile, behartsu eta aberats, nagusi eta langileek batera meza emateak.

Zoritzarrez eliz-atarian uzten dituzte askok beren egite, beren diru-poltsak, beren lur aundi-zabalak, beren irabizpide neurri-gabe, beren diru-txaketa bildurgarriak.

"Erlijio sena gabeak gerta ditezke sineskaiki aitortzea, sakramentuak artzea, mezarata joatea, otoitz eta elizkizunak egitea: ohiturak, gizarteko joerak, kultura-moldeak eta ustekabeko gaitze edo alabeharrezko indarrak bultzata eginak" dio Louis Beharge-k.

Jesusen jaiotzen misterio eta graziak geureganatzen eta gaurkotzen ditugu liturgiaren bidez guberrietan. Ori egin ezik Egu-berriak utsak. Ezerez eta pesta ditugu.

SARRERA EDERRA, JAUNAK!

Tchang-Kai-tchek-en gobernuaren ordez ONUra Maorena sartu zenean, abegiak ez zuten dudarik utzi: hara bildutakoek bihotzez txalotu zuten txinatar ordezkari berria; eta ados ez zirenek berek Maoren ideiekin, txalo jo zuten mundu guzian barrena. «Nazioarteko politika ustelduan», pentsatu genduen denok, «abots garbi eta sinestun bat entzungo dugu irurterakoan». Maozale iraultzaileen aurrizko ezagutu nahi genduen, edonon eta edonorengan «sasi-marxismoa» eta «errebisionismoa» salatzen duten txinatar sutsuenak, kaluzte-iraultzaren ondoko haurridea. Abots BERRI da espero genduen gutxiengik, politikaria-nahasketarik gabea, zabalitzen diren printzipioen erakoa; zuzentasun-oihu bat ere bai, hitz batez, ahul isil ginezuz izenean Pekinen bitartez entzunarazia.

la segituan gertatu da abots berri hori egokiro entzuteko aukera: Bengalako trajeria-kari. Eta, zer entzun dugu?

—oOo—

Ez du balio hemen Bengalaren arazo honetaz luzaz mintzatzeko. Orain dela hilabete batzuk egin nuen azterketa labor bat ordurteko berriak bilduz (ikus Z. ARGIA-n, «Joy Bangla!», joan den Ekainaren 5ean nik idatzia). Azterketa xehe on bat nahi duenak, ondoko hau irakur beza batez ere: «Le Monde Diplomatique», Azaroko zenbakia.

Bengalako herria bi partetan zatitua dago. Bata, Ekialdean, «Bangla Desh» deritzana, Pakistanen menpean bizi da; eta, bestea, Mendebalean, Indiaren menpean. Askatasunaren aldeko mugimendua bi alderdiotan piztu da bateratsu, baina «Bangla Desh»-ekoa da bietan gotorrena.

Azkeneko hauteskundeetan Awami-Elkarteak (abertalea) ia-ia boto guaiak bildu zituen (169 diputaturik, 167 Awami-ren aldeko). Zein helburutan bateratuak? Bangla Desh-en autonomia nahi zuten Pakistanen barruan.

Islamabad-en erantzuna ez zen

luzatu: Awami-Elkartearen burua, eta jokabidez eta itzalez Bangla Desh-eko Gandhiren kide den Sheikh Mujibur Rahman jauna, gartzelara eraman zuten Pakistan-aldera; eta benetako genozidioa hasi zen abertzaleen kontra. Aste bako batzutan, eta hilakintzaren larritasuna ikusita, banglatarren ostel-ihesa abiatu zen: 12.000.000 lagun gaur, Indiako Bengalaldekoko kanpamentotan palestinarrek baino okerrago pilaturik! Banglaren barruan, pakistandarren zapaketa gogortu zen, eta orain dela hilabete pare bat «Bigarren Biafra» aipatzen zuten kasalari batzuek.

Mujibur Rahman eta Gandhitar jokabideak gairidituak izan ziren. Abertzaleek gaur Askataun osoa nahi dute, Pakistandik zeharo berezi; eta Indiako lurralde izkutu batean Bangla Desh-eko gobernu bat sortzea erabaki zuten.

Arte horretan gerrilla-taldeak sortuak ziren handik eta hemendik, eta perretxikoak bezala ugaldur. «Mukti Bahini» delakoek benetako Erresistentzi bat eratu dute: 50.000 gerrilla-gudari orain Bangla Desh-eko arrozaga urtsuetan.

Indiara jo zuten Banglatar abertzaleek laguntza bila, baina harek ukatu egin zien. Orduan bildur zen. Gandhi andreak askoz beranduzko aldatu du bere jokabidea, Mendebalera laguntza-eske egin zuten bi-daia frutugabearen ontotik: bere bizkar gainean ikusi ditu betirako, eta errakor den eskualde batetan, hamabi miliun banglatar txiroak.

Eskabide berbera egin zion Mao Tse-Tung-i Syed Nazrul Islam jaunak (Bangla Desh-en Gobernu-Buru egiten duena), joan den Urriaren 2an: «Bangla Desh-eko herriak iskiluak ekutzen bere Askataunaren alde bere Autodeterminazioaren alde daraman burrukan, Txinaren laguntza nahi luke izan». Maok ez zuten erantzun. Baina Islamabad-eko mahomatar amorratuek laguntzea erabaki zuten «separatisten» kontra.

Areago: orain Indiaren militar-keriaz izutzen diren horietxek (Mao barme) banglatar abertzaleen hil-keta gaitza gertatzean (Maizatean eta Ekainean milaka eta milaka afusilatutako) Islamabad-etik bidalitako atzeritar armadaren zapaketa gorria ez zuten salatu. Frantziak, esate baterako, bai Indiarri bai Pakistan saldu dizkie armak...

Artean, Bangla-ko sasi-ekzertarek Mujibur gaitzetsi zuten; banglatarren abertzaletasuneari «burgeskeria hutsa» sumatu zuten; eta Awami-Elkartean «klase-etsaia» kausitu uste zuten («L'ennemi de classe» irakurria dugu frantsesez). Hau ikusita Bangla-ko herriak aldegin egin die sasi-ekzertar mugimenduei; eta «abertzaletasun huts»-era pasa: alegia, Pakistan kanpora, eta gero ikusiko. «Sunday Times»-i Chu-En-Lai-ek egin dion esaldi motz-motz batek gertakari honen seinale da.

Erlijioari dagokionez, Pakistango erresuma, jakina denez, oso mahomatarrak da, konfesionala alegia; eta askotan oharrazali denez, Erdi-Haroko teokrazia zahar baten antzekoa egituraz. Mujibur Rahman-ek, berriz, eta Awami-Elkartek (guztiz Bangla-ren nagusi, ez da ahan-tzi behar) argi-eta-garbi esan du Bangla Desh-eko erresuma konfesio-gabea izango dela, eta erlijio guzietiko etorkor edo kopeta-zabal.

Horra hor, hitz gutxitan, egoera.

—oOo—

Eta gauzak horretan, Maoren gobernu hasi da ONU-n hitzegtzen. Zer esan du? Argitsuena izkribu batzuk HITZETZ HITZ kopiatzea izango da:

—«Gansterren burubidea oinarritzat harturik... Indiako gobernu, sozial-inperialismoak lagundurik, Pakistaneko Ekialdean "Bangla Desh" izeneko Erresuma-aizun bat erakitzeko ari da lanean» (Pekin-Irratiak).

—«Ekialdeko Pakistanen agertu den arazoa, Pakistanen barruko arazo nabarmen eta huts bat da; eta ez dauka hor inork muturra sartzerik. Pakistango herriak berak garbitu behar du... Ekialdeko desherriuen sasi-problema ("la préntendue question") bere horretan beste naio baten nahastearen ondorio da» (Fu Hao jaunak, ONU-n, Azaroaren 19an).

—«Txinako gobernuak eta herriak, Pakistango herriaren eta gobernuaren alde daude osoki. Pakistanek bere gaintasuna eta bere lurralde-batasuna defendetikotan egiten duen burruka, bidekoa eta zuzena da» («"juste lute"») (Chi Peng-fei-k, Txinako Atzerri-Harmanen Ministroa, Abenduaren 4ean).

—«Indiako gobernuaren jokoa argi-eta-garbi kondatzen du Txinako gobernuak, eta "Bangla Desh" izeneko sasi-erresuma hori sortzeko asmoa gaitzesten. Desorduenak, puskaketak eta gerrak ondorioztat dituen Indiaren politikabide hori kondatzen dugu... Indiaren atakearen kontra Pakistanek egiten duen gudu zuzenean, Pakistango herria laguntzeko galdegiten die erresuma guzietan» (Txinatar deliberoproposamendua, ONU-n, Abenduaren 4ean).

—«Indiak orain Bangla-Desh erresuma sortzea, eta japondar inperialistek Mantxuko erresuma hura sortzea, oso egintza antzekoak dira» (ONU-n, Abenduaren an).

Beste batzutan, bestalde, azken asteotan Txekoslovakia arazoa (1968) eta Bangla Desh-ko «guzta bera» direla esan du Txinak: sozial-inperialismo hutsa, URSSek eragina.

—oOo—

Ez dut deusik erantsiko.

Ezen Maoren sarrera ezin itsusiago horretan, marxismoaz eta gainerakoez zer pentsaturik bai-bait dago eruz? Txinaren ordezkariak ez du bada «gizontxo» deitu Malik jauna? (URSS-en ordezkaria). Eta honek erantzun «sozial-traidorek» dutela Banglaren egoeraren errua? Nor sinetsiko Nixon eta Mao batera agertuko zirela behin eta berri genozidio nabarmen bati buruz?

Badago zer pentsaturik, benetan.

Baina nahiago dut irakurleak berak bere buruz egitea.

LARRESORO



Lantegitik

KONTROLAPEAN

Gaurregun, lantegi gehienetan, lan egiteko sistema berriak jarriak dituzte. Helburua: produzioa, ahal den gutxien ordainduz, gehitu. Horretarako lanaren luzera neurtu eta mugatzeraino iritsi izan dira, kontrola ezarri dute. Egia esan, hau ez da oraingoa, kontrola ezarri zutela badira urte batzuk. Baina, bere ondorenak gure artean sumatu ohi ditugu.

Nagusia lantegi gastuak ahal den gutxien igotzea komeni zaio, eta horregatik kontrola sistemak, primak, ordu estrak, eta abar bete-betean bedekintzen ditu, begi onez ikusten. Berak inbersioa egin du, eta nakinak denbora luzean lanean jardutea komeni zaio, erreleboak ezarriko ditu, gau eta egun bere kapitalak fruiturik eta etekinik eman dezaion.

Bestalde, langilea ere beretzat inbersio da (irabazpide dela gutxitan aitortuko dizute) eta denbora gutxian lan asko egiten badu beretzat hobe, prima apurra emana-gatik irabazpide ugariatu doaz.

Horretarako erlojua hartu, beste langile bat kontrolatzen ipini, beste bat gutxira begira eta zain dezan... Estruktura montatu, jaso du-te, eta gaste onurakorrik egin du-tela ohartu dira. Gainera, ondo pentsatuz gero, langilerien batasuna desegiteko bide egokitzat jo dute askok.

Lantegiren batean kontrolarekin hasi izan direnean, ez dute giroa gertu, langileak ez du kontrola sistemaren berri, ez daki kontroladorea dela-eta aukeratu behar duen postura, lasai ala bizi jo behar duen, numero ezezagun hoiek zertarako izango diren, geroari begira zer nolako ondorenak sortaraziko dituen, eta abar. Kontrola denbora neurtzun du, nagusiak gogoan ematen diona ordaintzen, baina pertsonarentzat izan ditzakean ondorenak gogoan hartu ahal da? Zenbat ez-behar eta akzidente prima sistemak dirrela bide? Langileari eman ahal zaio behar den argitasunik? Behin batean, aktibitateari zegoenien primak, mailak eta «nibelak» jakin nahi nituela adierazi nuanean, ez zidaten ezertxo ere erantzun: «secreto de empresa» zela aitzakitzat harturik.

Injustizia bide gertatzen dela ez dago dudarik. Pelotillero, «zintzo», «jator» eta «apalak» prima on bat erraz ateratzeko egokiera izan ohi dute. Baina egizale eta zuzentasunaren alde dabilenari bestelakorik aukeratzeko diote, lanean madarika dedin...

Sortu du istilu eta iskanbilarik langile artean kontrol madarikatuak, eta gaurregun ere berdintsu gabil-tza.

Produzioa lan egiteko erak aldatuz, makina egokiak jarriaz, eta abar

ugaritu behar da gehien. Langileak ere erantzun beharko du, ezparririk gabe, baina neurritz eta bere izate eta nortasunari etsuz. Metodoriak ez diote garrantirik eman hainbeste eta hainbeste lantegian, eta jendea lanpeturik ikusita lasaitu zaigu zenbait nagusi.

«Reglamentación de Régimen Interior» deritzan lantegi batetako legediaren sarreran, enpresa «familia handia da, eta anakiro bizi gaitzen giro egokia sor dedin, bijoakizue legedi hau»; familia xelebrea benetan. Geroztik, bestelakorik entzun dugu sarritan.

Argitasun eske dabilenari erantzun egokia eman bezaioke, ez noski mesede gisa, horretarako esku-bide osoa duelako baizik. Asko dira, primak eta nominak ordaintzeko erak ezagutzen ez dituzten langileak: jorjala, primak, «kalidade-errekioa», lan arriskutsuagatik zor zaila, eta abar; deskuentzako, aseguroak, zerga bereziak, komedorea, edariak, ordu pare baterako esku-tatu nuen permisioa, nere lagunaren entierroa, erantzun txar bat eman izanaren kastigua, eta abar...

«Gehiago irabazi nahi det, baina nola...?». «Jarri dezaiedan kontrola...».

Mikel Ugaldé

ARGIA

BURLADA-IRUNA

Asteroko honen jabea: Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoen probintzia da.

Zuzendaria: Miren Jose Azur-Diru kontu-zaitzaileak: Aguzta Aristegieta.

tin Ezeiza Iturriza, eta Jose Luis Orella Lazkano.

Diru gorabeherak 1970-ean:
 Bildu dena: 2.475.467,06
 Atera dena: 2.440.335,85
 Gelditu dena: 35.131,81

Asteroko honek azionistari-rik ez du; bere ekonomia-eriturburu, arpedunak, salmentak eta iragarkiak ditu.

Irakorla:
 «GRAFICAS NAVASAL»
 P. Adoain, 1-IRUNA.